

# Goienkaria

2006ko otsailaren 3a > Egubakoitza > VI. urtea > 230. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

## G2a

'Aupa Etxebeste!'  
Goya barik itzuli  
da Madrildik > 43

**DEBAGOIENA**  
Bederatzi milioi dolarreko lan  
eskaera jaso du Fagorrek > 04

**KOMUNIKAZIOA**  
AZK: komunikazioaren esparrua  
lantzen dihardue enpresa > 51

**KIROLA**  
Aloña-UDA futbol derbia jokatuko  
da domekan Azkoagainen > 41

"Abertzaleak  
elkarrekin  
aritzeko unea da  
hau, gehiengoa  
daukagula  
erakusteko"

Xabier  
Arzalluz > 09



**DEBAGOIENA** > UDALAK

## Alkate berria izango du Oñatik

Andoni Gartzia  
kargua lagako du eta  
Garaiari helduko dio  
buru-belarri > 05

**DEBAGOIENA** > HEZKUNTZA

## Haurreskola Partzuergoan sartuko da Bergara

Haurreskola Partzuergoan  
sartuko da Bergara, eta Aranzadik  
Ikastolak erabiltzen  
duen Martinez de Iralako era-  
kinean egokituko dute haur-  
tzaindegia. Hortaz, Aranza-  
diko ikasleek eta Haurresko-  
lakoek eraikin bera partekatu  
beharko dute. Horixe eraba-  
ki du Udalak oraingo asteko  
osoko bilkuraren. > 05



PROFESIONAL maila eskuratuta, lizenziaren eta bere izena izango duen poltsa berriaren zain dago Aretxabaletako golf jokalaria.

XABIER URTZELAI

**ARRASATE** > AZPIEGITURAK

## Olandixoko tunela, aurrera

Datorren urtean  
hasiko dira lanak,  
24 hilabeterako > 18

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-07  
Elkarrikzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

**KIROLA** > MIKEL GALDOS

## Ibarreko lehen golf jokalari profesionala

**URTARRILEAN** gainditu zuen  
profesional izateko 'handicap'-a, eta  
Peugeot Tourra jokatzeko sailkatu da

**OTSAI** amaieran hasiko du  
txapelketa hori; Real Club de  
Sevillan izango da lehen torneoa

Mikel Galdos (Aretxabaleta, 1984)  
da ibarreko lehenengo golf joka-  
lari profesionala, eta baita Legu-  
tiano ondoan dagoen Larrabea  
golf elkartearak eman duen aurre-  
neko profesionala ere. Urtarilean  
bete zuen ametsa, Cadizen eta  
Malagan egin zituzten Peugeot  
Tourrera sailkatzeko kanporake-  
tetan zortzigarren eginda. Golfe-  
an jokatzeko irrikan da, asteota-  
ko eguraldiak ez dio-eta behar den  
moduan entrenatzen utzi. > 05

**JUBAR®**  
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea 18.  
110 Postakutxa  
**ARRASATE**  
Tf.: 943 79 10 20  
Faxa: 943 79 08 17  
Posta elektronikoa:  
jubarateak@euskalnet.net

**Garajeko atea**  
**Burdinazko pertsianak**  
**Automatismoak**  
**Ate sekzionalak**  
**Konponketak**  
**Urrutiko aginte tresna homologatuak**  
**Azkar irekitzen diren ate biribilduak**  
**Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak**

**DQ certificación**  
E.R. 02/518  
ISO 9001/00  
ACREDITADO POR ENAC

**FordTourneoConnect** TDdi 75zp  
**9.850 €** -tik aurrera

**FordTourneoConnect** Connect

**MUGARRI AUTOAK** Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

GIZA MUGIMENDUAK > OÑATI BIZIRIK, AUZOLAN PROIEKTU AURREKARIA IBARREAN

# Herri-mugimendu eredu berria Oñatin, Debagoiiena inspiratzeko

**ARLO GUZTIETAN** jendeari parte hartzen eta hitza izaten lagundu gura dio Oñati Bizirik taldeak: enpresa, hezkuntza, kultura, kirola, hirigintza...

**LEIRE KORTABARRIA > OÑATI**  
Herri-mugimendu proiektu bat jaoi berri da: Oñati Bizirik. Oñatiar talde batek elkartea hori sortu du, herritarrendako, eragileendako, erakundeendako, enpresendako... foro bihurtzeko bokazioarekin, eta foro horretatik Oñatiaren garapen orokorra bultzatzeko, denon parte-hartzearekin. Proiektuak aintzat harzen du bere herriko etorkizunaz kezka duen herriarra, eta horretan parte har dezan bide bihurtu gura du.

Debagoienean mugimendu aurrekaria da Oñati Bizirik, eta ibar osoko eragile askorengan interesa eta eztabaida pitzu du. Iritzi gehienak baikorrak dira. Esaten dute herri guztietai sortu beharko litzatekeela horrelako auzolan proiektu bat, eta ibarrean gizarteak eragin beharreko hutsune asko dagoela.

## BIZI-KALITATEARI EUSTEKO

Oñati Bizirik joan den astean aurkeztu zuten sortzaileek. Oñati arlo askotatik datozen eta honakoak dira: Jose Luis Abaunz (Eteo), Ikerne Altube (Garapen eta Turismo Agentzia), Kepa Altube (Larraña institutua), Andoni Gartzia (alkatea), Agustin Laka (Lana), Jose Luis Madinagoitia (Ulma), Peio Roa (Stadler), Ernesto Untzurruntzaga (Jauriaritzan plangintza ekonomikoaz arduratzen da) eta Alfonso Vazquez (soziologoa). Azpimarratzen dute gizabanako moduan daudela elkartean, baina erakunde eta enpresa batzuk daudela atzean. Orain, ahalik eta oñatiar gehienek izena eman eta denon artean zelan lan egin zehaztea dute helburu.

Izenemate horiek hasil dira. Izan ere, aurkezpenean aretoa bete egin zen, eta jendeak bere

**HERRITAR AKTIBOA** eta ondo informatua da elkartearren oinarria, erabakiak osorik erakundeen esku utzi gura ez dituen pertsona

**DEBAGOIENEKO** denetariko eragileek oso begi onez ikusten dute Oñati Bizirik, eta ibarreko beste herrietan antzeko ekintzen falta igartzen dute

**Gizabanako, enpresa,  
erakunde publiko,  
ikastetxe eta arlo  
guztietako eragileen  
foroa da Oñati Bizirik**

**Jendeak Oñati Bizirik  
elkartean izena  
eman dezan gura  
dute, eta asko hasiak  
dira horretan**

interesa azaldu zuen. Hasieran zalantza handiak daude zehazki zer egin gura duen Oñati Bizirik proiektuak. Horiei, Jose Luis Abaunzek honela azalduko lieke euren helburua: "Orain dauagun bizi-kalitateari eusteko eta hobetzeko proiektua da. Bizi-mai-la ona dugu, baina hori ezin dugu ziurtzat jo. Mehatxu batzuk daude: globalizazioa, datorren lan egoera, populazioa zahartzea... Eta horien irtenbideak ezin ditugu inprobisatu".

Batera lan egitea proposatzen dute: "Enpresa bere aldetik doa, hezkuntza beretik, eta arlo askotan lan egin daiteke: hirigintza, gazteak... Mahai baten jesarri eta ideiak denon artean planteatu gura ditugu", diote.

## "DEBAGOIENA BAT DA"

Mugimenduak aurrera egiten badu, herritarrek arlo guztieta-




OÑATI BIZIRIK taldeko sortzaileetako batzuk: Jose Luis Abaunz

ko ideia berrietai hasieratik parte hartzeako aukera izango dute. Horrelakorik modu antolatuan egitea ez da orain arte Debagoienean gertatu, eta prozesuak oñatiarren eta beste debagoiendar askoren interesa pitzu du.

Debagoieneko gizartea heldua da eta ondo informatua dago aspalditik, eta bere etorkizuna erabakitzeko moduan dago. Hala, eragile askok esaten dute horrelako mugimenduak ibar osoan behar direla. "Parte hartzeo ohitura berreskuratu egin behar da, gure herrietaiko altxorra da-eta. Gauza txikiekin hasi behar dugu: adibidez, Aretxabaletan, zikloskros txapelketa genuen, Estatuko lehenengoetakoak, eta hori galdu egin da", dio Jokin Antxiak, UDAko presidenteak.

Hezkuntza eta enpresa mundutik, Luxio Ugarte oñatiarrak dio bi arlo horiek bateratuta "oso



## autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako mintegiak

# Informatika nire enpresarako: Askea ala ordaindutakoa?

Nire enpresarako softwarea hautatzerakoan zein da kontuan izan behar dudan irizpidea? Zein sistema eragile hautatuko dut? Ze nabigatzaile?, bestelako ze programa ofimatiko? Zure enpresan doan erabiltzeko tresnak dituen CDa ere emango dizugu.

## Debagoiena

otsailak 7  
BERGARA

Miguel Altuna GLBHI  
(Elementala)

Ordutegia:  
**18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:  
**943 747 314**  
[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)  
[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)

Antolatzailea:



Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa





Luis Madinagoitia, Kepa Altube, Agustin Laka, Jose Luis Abaunz, Peio Roa eta Ernesto Untzurruntzaga.

LEIRE KORTABARRIA

ESANAK

"Jendeak parte hartzeko ohitura berreskuratu behar du, eta aurrera begira herrirako asmo batzuk landu"

Jokin Antxia > UDAko presidentea

"Herri mugimendua ezinbestekoa da garapenerako, baina erakundeek diskurtso kontraesankorra dute horren gainean"

Pedro Lasagabaster > Eskoriatza

"Debagoiena hiria da, eta ekintza bateratuak behar ditu. Lan handia egin daiteke enpresan, euskaran..."

Luxio Ugarte > Eteoko I+Dko zuzendaria

"Herritarrek gehiago kontzientziatu beharko lukete, batez ere gazteek, haien gutxiago inplikatzen dira eta"

Lierni Altuna > Gazte batzarra-Aramaio

"Proiektu onak dira, baina ondorioak betetzeko konpromisoa hartu behar luke administrazioak"

Aitor Iturriaga > Bergarako udal langilea

OÑATI BIZIRIK PROIEKTUA, LABUR

> HELBURUA

Oñatiko bizi-kalitateari eustea eta hobetzea, arlo guztietan, herritar auzolan bidez.

> ONGIZATEA

Herriko enpresak, ekonomia eta azpiegiturak, baina baita kultura, hezkuntza, ingurumena... ere.

> ABIAPUNTUA

Elkartearren hitzetan: "Etorkizuneko mehatxu posible batzuk ikusi ditugu, eta horiei aurre egin behar diegu: enpresen deslokalisazioa, ekonomia globala..." .

> ENPRESA ETA EZAGUTZA

Enpresen lehiakortasuna handitu gura dute. Besteak beste, langile mota berri bat bultzatu gura da: motibatua eta bere lanarekin eta enpresarekin konprometituta.

> HERRITAR AKTIBOA

Herritarra herriko etorkizunean zeresana izan behar du, erabakiak guztiz erakundeengen utzi barik. Horretarako, erakundeenein inplikazioa ezinbestekoa da.

> ELKARTEAREN ZERREGINA

Elkarrean denondako topaleku izan gura du, eta herritarrei lagundu euren proiektuak bideratzan.

> PARTE HARTZEKO

Adin, arlo eta interes guztietako herritarrek dute lekua. Foro birtuala ere badago: [www.oñatibizirik.com](http://www.oñatibizirik.com) webgunea.

> ORAIN

Laster hasiko dira batzarrak egiten, hurrengo lana eta funtzionatzeko modua zehazteko.

lan interesarria" egin daitekeela, batez ere euskara enpresetan gero eta gehiago zabaltzeko. Ibar osora zabaltzen du iritti hori: "Debagoiena bat da, hiria, eta horrela mugitu behar du".

Beste alde batetik, German Derteano oñatiar erretiratuak dioenez, "herriko %25 gara 60 urtetik gorakoak, eta proiektu solidarioa izan behar badu, gure beharrak kontuan hartu behar ditu". Germanek dio taldearekin harremanetan jarraituko duela. Bestetik, aurkezpenean gazte asko egon ziren, eta pozik daude horrekin taldekoak, batez ere gazteen inplikazio maila jaitsi egin delako azken hamarkadotan.

ERAKUNDEAK, EZINBESTEKOAK

Erakunde publikoen inplikazioa derrigorrezkoztat jotzen dute denek. Inplikazioa zertan konkretatuko den ikusteko dago.

Aitor Iturriaga Bergarako udal langilearen esanetan, "jendearen parte-hartza murritza izaaten da, eta Udalak animuak eman behar dizkie, konfiantza behar dutelako". Hitz gogorrak ere baditu:

"Ingurumenean, akats handiak egin dira. AHTrekin egiten ari direna onartezina da. Administrazioak iritziak eskatzen ditu, baina gero ez ditu kontuan hartzen. Erakundeak zikin jokatzen ari dira". Ibarrean jendearen parte-hartza behar duten arazoak aipatzen ditu: AHT bera, Udalatxen esplotazioaren auzia, ibarreko estolderia berria...

Kontraesan hori bera ikusten du Pedro Lasagabaster eskoriatza, AP-1ek kaltetutako elkarteko kideak. Haren ustez, lurralde antolaketan "oso importantea da jendeak parte hartza", eta "Arau Subsidiarioetan herriaren iritzia kontuan hartza".

# LORAMENDI

INTERSPORT®

KIROLAK ARRASATE

ski-snow

%20

%50

50

forro polarrak  
prakak  
sudaderak  
kamisetak...

ARRASATE &gt; ENPRESA

# Lan eskaera jaso du Fagorrek Mexikotik

Bederatzi milioi dollarreko eskaera jaso du Fagor Arrasatek automatizatutako hiru ebaketa lerro egiteko

Egun 470 lagunek egiten dute lan Fagor Arrasateko San Andresko lantegian

**OIHANA ELORTZA > ARRASATE**  
Fagor Arrasatek 9 milioi dollarreko lan eskaera hartu du Mexikotik. Hango ThyssenKrupp etxeak egin dio eskaera, guztiz automatizatutako hiru ebaketa lerro egiteko. Altzairu herdoilgaitza ebakitzeko da eskaera: bi zeharkakoak eta bestea luzea.

Eskaera bereganatzeko, Italiako, Ameriketako Estatu Batuetako eta Alemaniako altzairu herdoilgaitzerako ekipamendu fabrikatzaile nagusiekin lehiatu behar izan du Fagor Arrasatek.

**ESKAERA**  
Eskaera egiten noiz hasiko diren ez dute zehaztu Fagor Arrasate-

ko ordezkariek, baina diseinatzen laster hasiko direla aurreratu dute. Diseinu lanak egin eta gero hasiko dira eskaera betetzeko lanarekin.

Zeharkako ebaketako bi lerroek zabaleran 1,270 mm eta lodieran 1,5 mm egiteko gaitasuna izango dute, 25.000 kiloko harilekin. Minutuko 133 formatu ebaki ditzake eta papera eta plastikoa ezartzeko sistemak ere izango dituzte. Arrabol edo errodiilo jokoa automatikoki aldatzeko sistema ere badute eta edozein izan daitete txaparen lodiera. Luzerako ebaketa lerroak, berriz, zabaleran 1,6 mm eta lodieran 4 mm dituzten bandak ebakitza ahalbide-tuko du eta instalazioaren errentagarritasuna nabarmen handitzeko sistema azkarra izango du.

#### FAGOR ARRASATE

Arrasateko Fagor Arrasatek San Andres auzoan du egoitza nagusia. Gaur egun 470 langilek egiten dute lan bertan.

Enpresak berak emandako datuen arabera, joan den urtean, 2005ean, Fagor Arrasateren fakturazioa 118,30 milioi euro izan zen, aurreko ekitaldian baino %20 gehiago. Diru kopuru horren %67 nazioarteko salmentetatik etorri zen.



GOIATZ ARANA

## Ziurtagiria Fagorri ingurumena errespetatzeagatik

Fagorreko etxetresna elektrikoetako garbigailuen negozioak jaso du Ekodiseinuko Gestio Sistemako ziurtagiria. Sariak ziurtatzen du Fagorrek produktua asmatzen duen unetik produzitzen duen era arte ingurumena errespetatzen duela. AENOR-ek lehenengo eman du sari hori. Arantza-jun jaso du saria Jesus Catania Fagorko presidenteak, lehendakariaren, ingurumen sailburuaren eta AENOR-eko presidentearen eskutik.

**hamaika**  
**esperientzia,**  
**proiektu bat**

- elkarlana
- lankidetza
- herrikoia
- aktiboa
- prestatua
- kalitatezkoa
- integratzalea
- berritzalea
- konpromisoduna
- sustatzailea
- euskalduna

**GOIESKOLA**

**MATRÍKULAZIOA:  
OTSAILAREN 6TIK 17RA**

goieskola@euskalnet.net

605 773992

[www.goieskola.net](http://www.goieskola.net)

#### Gatzaga/Eskoriatza

##### Luis Ezeiza

- Haur eta Lehen Hezkuntza: Gatzainadui, z/g.  
Tel.: 943 71 49 38

#### Aretxabaleta

##### Kurtzebarri Eskola

- Haur eta Lehen Hezkuntza: Santa Kurtz 19.  
Tel.: 943 79 00 49
- Kurtzebarri BHI: Herriko plaza 1.  
Tel.: 943 79 57 40

#### Arrasate

##### Arrasate Herri Eskola

- Haur Hezkuntza: Musakola, Elcano 10.  
Tel.: 943 79 04 49
- Bedonabe, Alfonso VIII.  
Tel.: 943 79 20 69
- Lehen Hezkuntza: Erguine, Uriarriz 36.  
Tel.: 943 79 77 74

#### Arrasate Institutua

- D.B.H. eta Batxilergoak: Santa Teresa, Santa Teresa 25.  
Tel.: 943 79 44 47

#### Aramaio

##### San Martin

- Haur eta Lehen Hezkuntza: Nardeaga z/g.  
Tel.: 945 44 50 04

#### Bergara

##### San Martin Agirre

- Haur eta Lehen Hezkuntza: Boni Iaskurain 25.  
Tel.: 943 76 21 47

#### Ipintza

- D.B.H. eta Batxilergoak: Boni Iaskurain 19.  
Tel.: 943 76 31 42

#### Antzuola

##### Antzuolako Herri Eskola

- Haur eta Lehen Hezkuntza: Buztinzuri 3.  
Tel.: 943 76 62 68

#### Elgeta

##### Elgetako Herri Eskola

- Haur Hezkuntza: Maala 4.  
Tel.: 943 76 82 26

#### Öñati

##### Errekalede

- Haur eta Lehen Hezkuntza: Errekalde auzoa 25.  
Tel.: 943 78 07 64

##### Zuazola Larraña Öñatiko BHI

- D.B.H.: Aita madina z/g.  
Tel.: 943 78 12 68

BERGARA &gt; HEZKUNTZA

# Haurreskolak eta Aranzadik eraikina partekatuko dute

Udaleko arduradunen asmoa da irailean zabaltzea Haurreskola Martinez de Iralan

Eraikina egokitzeko proiektua esleitu dio Udalak arkitekto talde bati, udalbatzarrean erabakita

AINTZANE IRIZAR &gt; BERGARA

Haurreskola Partzuergoan sartuko da Bergara eta Aranzadik erabiltzen duen Martinez de Iralako eraikinean egokituko dute haurtzaindegia. Hortaz, Aranzadiko ikasleek eta Haurreskola koek eraikin bera partekatu beharko dute. Horixe erabaki du Udalak; oraingo asteko osoko bil-kuran, gainera, Martinez de Iralako gela batzuk Haurreskola rendako egokitzeko proiektua idatzeko lana esleitu dio arkitekto talde bati.

GURASO ELKARTEAREN ESKAERA

San Martin Herri Eskolako guraso elkartek behin eta berriro eskatu dio Udalari Haurreskola Partzuergoan sartzeko. Horretarako, beharrezkoa da Udalak lokalak jartzea eta lokal horiek behar bezala egokitzea. Gero, Haurreskola Partzuergoaren ardura izango da Haurreskolaren kudeaketa osoa eta hezitzialeak jartzea.

Udalaren asmoa da datorren ikasturterako Haurreskola prestizatea, aurten irailean zabaltzea, alegia. Eraikin berean egon arren, Aranzadik eta Haurreskola, bakoitzak bere sarrera izango duela aurreratu digute Udaleko arduradunek.

0 eta 2 urte bitarteko umeendako zerbitzua eskainiko du Haurreskolak, nahiz eta Partzuergoak hiru urtera arteko umeendako zerbitzua eskaini; izan ere, San Martin ikastetxeen badago bi eta hiru urte bitartekoendako gela.

**IA 700 UME HAURTZAINDEGIETAN**  
Ibarreko ia herri guztietan ditugu haurtzaindegia, publikoak zein pribatuak. Aramaio eta Leintz Gatzaga dira zerbitzu hori ez daukaten bakarrak. Aramaion,

gainera, badihardute Haurreskola Partzuergoan sartzeko asmoarekin.

Guztira, pribatuak eta publikoak kontuan hartuta, hamabi haurtzaindegia ditugu ibarrean, eta 686 umeri eskaintzen diote zerbitzua. Hala ere, hainbat herri tan, Oñatin, Elgetan eta Antzuolan, esaterako, badago ume gehiagoren dako tokia ere.

Hamabi horietatik zazpi publikoak dira. Antzuolakoa, Elgetakoa, Oñatikoa bat eta Arrasateko Bedoñabe Haurreskolak Partzuergoaren barruan daude eta 60 bat umek dihardute haurreskola horietan. Bestalde, Eskoriatzako Jose Aranan eta Arrasateko Umezaintzan, 0 eta 3 urte bitarteko zaintzaz eta hezkuntzaz Arizmendi arduratzetan arruen, udal zerbitzuak dira, hots, haurtzaindegia publikoak dira horiek biak ere. Aretxaba-



MARTINEZ DE IRALAKO eraikina Aranzadik erabiltzen du gaur egun.

I.A.

letan ere badago udal haurtzaindegia, Pausoka, hain zuzen ere. Hiru zentro publiko horietan 245 bat ume daude. Horrenbestez, ibarreko haurtzaindegia publikoetan, guztira, 300etik gora ume daude.

Pribatuak, berriz, honakoak dira: Bergarako Haurtxoa eta Mariaren Lagundia, Arrasateko Mesedetako eta Oñatikoa Elkar Hezi ikastetxeak eta Txantxiku ikastolakoa. Horietan. beste 386 ume dabiltza.



AMAGOIA LASAGABASTER

## Arizmendiren umezaintza gunea inauguratu dute

Arrasateko umezaintza gune berritua inauguratu zuten martxitenean. Hantxe izan ziren, besteak beste, Ignacio Lakunza Arrasateko alkatea eta Jose Ramon Zubizarreta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteo lehendakaria.

O eta 6 urte bitartekoendako zentroa da eta Arizmendik kudeatzen du. Estatuan zabaldu zen lehendabiziko haurtzaindegia izan zen umezaintza, 1969. urtean. Emakumeak lan munduan sartzeko helburuarekin sortutako Auzo Lagun kooperatibari esker sortu zen haurtzaindegia.

> BERGARA  
**Lagun bat atxilotu dute indarkeria erabilita osteagatik**

Arrasateko 28 urteko lagun bat (H. K.) atxilotu du Ertzaintzak Bergaran, mehatxupeko lapurreta batean parte hartzeagatik eta lesioak eragiteagatik. Gertaerak urtarriaren 1ean izan ziren Arrasateko San Andres auzoan. Telefonoz hitz egiten ari zen gizonezko bati hainbat sastada eman zizkioten buruan eta gorputzean, ustez beste batekin nahastuta. Ustezko erasotzaileetako batek Ertzaintzan aurkeztu du bere burua.

> ELGETA  
**Argindarraren arazoa konpontzeko esan dio Aralarrek EAJ-EARI**

Zapatauan 15 ordu baino gehiago egon ziren argirik gabe Elgetan. Aralarrek esan du azken hilabeteetan argindar mozketak izan dituztela, eta azken hiru elurteetatik bitan ere argindar gabe gelditu direla, eta herrian kalte handia egin. Arazoaren ardura nagusia Iberdrolaren dela jakin arren, Udalak konponbidea azkartzen lagundi behar due-la uste du Aralarrek eta EAJ-EARI horixe eskatu gura dio.

> BERGARA  
**Urteaga kaleko lanen bigarren fasea adjudikatu dute**

Urteaga kalea konpontzeko bigarren faseko lanak adjudikatu dituzte dagoeneko. Lehen fasea egin duten empre-sa berberekin jarraituko dituzte lanak. Bigarren fase hone-tan, bi pareta jasoko dituzte lur jauzia gertatutako tokian, lehengo trenbidea konponduko dute, errepeidea eta biribilgunea egokituko dituzte eta ingurua landatu.

Lanak datorren abuztuko bukatu gura dituzte; egorialdiak laguntzen badie, behintzat. Bizi lagunak ezin-go dira euren etxeetara itzuli lanak amaitu arte. 2003ko maiatzean izan zen lur jauzia.

## LANGILEENTZAT DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK



EUSKAL HERRIKO KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA

Ikastaroak	Orduak	Hasiera	Amaiera	Ordutegia
Hornikuntzen gestioa	50	13/02/2006	16/03/2006	18:00 - 20:30
CNC (Heidenhain) fresatzeko makina prestatu eta programatu	46	20/02/2006	16/03/2006	18:00 - 21:00
Automatismo elektriko kableatuak	45	20/02/2006	29/03/2006	19:00 - 21:00
CNC (Fanuc) tornua programatu	40	27/02/2006	30/03/2006	19:00 - 21:00
CNC (Fagor) tornua prest.eta prog.	40	27/02/2006	30/03/2006	19:00 - 21:00
CNC (Siemens 810/840D) fresatzeko makinen programazioa	46	27/02/2006	30/03/2006	16:45 - 19:00

**BESTE IKASTAROAK (BONIFIKAZIO SISTEMA)**

MMC 2. maila: CAD-en aurkako neurketa. (PC DMIS)	20	20/02/2006	01/03/2006	17:00 - 20:00
--------------------------------------------------	----	------------	------------	---------------

METALAREN KONTRATU PROGRAMA

Ikastaroak	Orduak	Hasiera	Amaiera	Ordutegia
Planoarekin eginiko erreminten aukeraketa	20	13/02/2006	23/02/2006	18:30 - 21:00
Robotika	28	15/02/2006	09/03/2006	19:00 - 21:00
Autocad	32	20/02/2006	16/03/2006	19:00 - 21:00
Elektrohidraulika eta hidraulika proportzionala	30	20/02/2006	15/03/2006	19:00 - 21:00
Smed. Sistema, erreminten aldaketa azkarra	16	20/02/2006	08/03/2006	18:00 - 20:00
Prozesuen kontrol estatistikoa	16	20/02/2006	02/03/2006	18:00 - 20:00
CNC-aren mantentze-lanak eta instalazioa	20	22/02/2006	09/03/2006	17:00 - 19:00
Ordenagailuz lagundutako fabrik.: Cam powermill	40	27/02/2006	30/03/2006	19:00 - 21:00
CNC tornua. Elkarrikzeta bidezko programazioa	32	27/02/2006	23/03/2006	19:00 - 21:00
CNC fresatzeko makina. Elkarrikzeta bidezko prog. (gidaliburua Guide fanuc + FAGOR MC)	40	27/02/2006	30/03/2006	19:00 - 21:00
5 S-ak ezarri	16	27/02/2006	09/03/2006	18:00 - 20:00

Informazioa: Ane Iriondo. Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar tel.: 943 74 82 66 faxa: 943 74 41 53 imhinformazioa@imh.es - www.imh.es



GOIENKARIA

## Lasterketako autoen masterreko lehen diplomatuak

Lasterketako autoetan espezializatu gura duten ingeniariek egindako masterraren diploma banaketan ateratako argazkia da. Epsilon Euskadi goi mailako ikaskuntza zentroan ikasi dute, Azkoitian, MUko irakasleen eskutik. European ez dago hau bezalako beste masterrik, bakarra da. Argazkikoak lehen promozioko 24 ikasleak dira, Iñaki Oliveri MUko errektorearen eta Marc Gene auto gidariaren ondoan. Beste 24 ikaslek hasi dute dagoeneko aurtengo ikasturtea.

OÑATI &gt; ALKATETZA

## Hilaren 15eko batzarrean aukeratuko dute alkate berria

Alkate berria Lurdes Idoiaga izan daitekeela zabaldu den arren, oraindik ez dute erabaki Andoni Gartzaren ordezkoa zein izango den

OIHANA ELORTZA &gt; OÑATI

Andoni Gartzia utzi egingo dio Oñatiako alkatea izateari. Garaia ikerkuntza guneko gerentea ere bada Gartzia eta biak batera era-matea gero eta zailago ikusten duelako erabaki du alkatezta kargua uztea.

Andoni Gartzia berak esan digun moduan, "datozen bost urteak oso garrantzitsuak dira

Garaiarako, eta hortxe egon gura dut. Asko bidaia beharko dut, enpresa asko bisitatu eta alkate karguarekin ez dela oso ondo ezkontzen uste dut, Udalaren ordezkaritzak ere beste behar batzuk eskatzen dituelako". Aurrerantzean, zinegotzia izango da Andoni Gartzia: "Orain arte ogasun eta teknologia atal-ten ibili naiz lanean eta gero ere bi atal horietan, behintzat, jarraituko dut", esan digu.

Agintaldia bukatzenko urte eta erdi inguru falta denean utzi du kargua Andoni Gartzia. Berak hurrengo hauteskundeak heldu arte jarraitu gura zuen arren, tartea hori Garaiarako oso garrantzitsua dela esan du, eta horregatik erabaki duela kargua orain uztea. Alkate egondako denboraren balorazioa eskatuta, berriz, "polita baina gogorra" izan dela erantzun digu.

**LURDES IDOIAGA**  
Alkate berria Lurdes Idoiaga izan daitekeela zabaldu den arren, barneko prozesu bat jarraitu



Andoni Gartzia

behar dela-eta oraindik ez dute-la alkate berria aukeratu esan digute bai Gartzia bai Idoiagak.

Hil honen 15ean batzarra egingo dute batzokian EAJko afiliatuek, 150 baino gehiagok. Orduan erabakiko dute hautagaia. Hurrengo egunean, Gartzia uko egingo dio karguari eta 23ko osoko bilkuraren erabakiko dute hautagaia onartu edo ez.

Bestalde, EAko Joseba Agirre zinegotzia kanpora doa laster denboraldi baterako lan kon-tuengatik, eta, ziurrenez, Iñaki Galdos alderdikidea arduraturuko da kirol gaiez.

**Hemen GARBIKETAK**

Garbiketetan profesionalak gara

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Intxaurtxueta 16 behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 48 45  
Fax: 943 71 30 58

## kontsumoa



Etxebizitzaren hipoteka garestituz doa.

IÑAKI ITURBE

## Euriborrak berriro egin du gora, eta %2,8ra iritsi da oraingo astean

AINTZANE IRIZAR &gt; BERGARA

Euriborra da hipoteken zenbateko kalkulatzeko gehien erabiltzen den adierazlea, eta berriro igo da; %2,833an koka-tu da, azkeneko hiru urteotako altuenean. Puntu erdi baino gehiago igo da azkeneko urtebetean; iaz, urtarrilean, %2,3an zegoen. Azkeneko lau hilabeteotan bakarrik sei hamarreko baino gehiagoko igoera izan du.

Igoera horrek esan nahi du, adibidez, 20 urterako 120.000 euroko hipoteka dutenen hilero 30,58 euro gehiago ordaindu beharko dutela.

Aditu askok diote, gainera, igotzen jarraituko duela adie-rasleak eta 2006an %3ra iritsiko dela. Beste batzuk hara-tagoo doaz eta %3,5era ere igoko dela uste dute.

Espaniako Bankuak datu hori baieztagoak zuen orain-dik; egunotan baieztagoak du.



## Tabako enpresa gero eta gehiago dabilta prezioak jaisten

Geroago eta gehiago dira prezioak jaitsi dituzten tabako markak. Philip Morris enpresaren markak izan ziren lehenak, Chesterfield, Marlboro eta L&M markak, hain justu. 40 eta 45 zenti-

mo bitartean merkatu dira. Eta oraingo astean bertan, Altadis enpresak bere hain-bat markaren prezioak jai-tsi ditu. Ezagunen artean ditugu Ducados, Fortuna eta Nobel, esate baterako. Jaitsiera handia izan dute, gainera; Fortunak, batez ere: lehen 2,50 euro eta orain 1,85 balio du.

## Kontsumitzaleen ibarreko bulego bakarra itxi egin dute

Aretxabaletan zegoen Kontsumitzaleen Informazio-rako Udal Bulegoa, ibarreko bakarra, abenduan itxi dute. 1983a ezkerro jardun dute bulego horretan herri-tarrei informazioa ematen. Oñatin, Bergaran eta Arrasaten ere izan zituzten era horretako bulegoak, baina aspaldi itxi zituzten.

## Gereziak eta marrubiak iritsi dira fruta dendetara

Neguan gauden arren, gereziak eta marrubiak ikusi ahal izan ditugu azkeneko asteotan hainbat fruta den-datan. Gereziak Argentina eta Txiletik etortzen zaizkigu eta batez beste 5 euro balio du kiloak. Marrubiak, berriz, Marokotik eta Huel-vatik ekartzen dituzte; kilo 4 bat euroan dago.

## gure artekoak

**EUZKI** > Urtebete inguru daramate era profesionalean ogia egiten. Ogi biologikoak egiten dituzte Rakel eta Divina Arriolabengoa ahizpek Aramaion, Azkoaga auzoan, euren etxeen bertan.

Divina eta Rakel Arriolabengoa

# "Jendeak ez ditu produktu biologikoak estimatzen"

AINTZANE IRIZAR > ARAMAIO

Enpresa txikia dute Rakelek eta Divinak; biek osatu zuten orain dela urtebete, eta ogi biologikoa ekoizten dute, martitzen eta egunero, Azkoaga auzoko euren etxeen.

Produktu biologikoak ekoizten dituzue.

Batez ere ogia ekoizten dugu, ogi biologikoa; horrek esan nahi du osagaiak nekazaritza biologikotik datozena. Produktu ekoilogikoen kontsumitzaleak gara aspalditik, eta guretako oso importantea da hori; batetik, gure osasuna zaintzen dugulako horrela; bestetik, Lurra zaintzen duelako nekazaritza mota horrek.

Noiz ekin zenioten lanbide horri?

Orain dela urtebete hasi ginenean era profesionalean. Aurrelik, etxerako eta lagun batzuendako egiten genuen ogia.

Zaitasun handiak izan dituzue bidean?

Bada, bai; hastera zoazenean esaten dizute handik eta hemen-dik laguntza handiak daudela horrelako ekimenetarako. Erre-alitatea, baina, oso ezberdina da; oztopoak besterik ez dugu topatu bidean: Udalak, Jaurlaritzak... Denek trabak jarri dizkigute.



Divina eta Rakel, Azkoagako euren lantokian.

A.I.

### FITXA TEKNIKOAK

#### > HASIERAK

Orain dela urtebete sortu zuten Euzki enpresa, baina orain dela hiruzpalau urtetik hona ekoizten dute ogia.

#### > OSAGAI EKOLOGIKOAK

Nekazaritza ekologikoko osagaia erabiltzen dituzte: zekale irina, gari irina, mahaspasak...

#### > BANAKETA

Aramaio, Arrasate eta Eskoriatza-ko hainbat dendatarra banatzentzitez euren produktuak.

Zuen ustez, lehen baino gehiago estimatzen ditu jendeak produktu biologikoak?

Ez, uste genuen produktu hauek arrakasta handiagoa izango zutela, baina ez da horrela. Badago jende bat oso leiala, baina orokorrean, jendeak ez ditu baloratzan.

#### Non saltzen dituzue ogiak?

Hainbat dendatarra saltzen ditugu, Aramaion, Eskoriatzan eta Arrasaten. Dena dela, jendea etxera ere etortzen zaigu. Astean birritan egiten dugu ogia, martitzen eta egunetan.

## etxeko leihotik



Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

# Eszeptiko samar

A spaldiko partez, joan zen egubakoitzean egokitu zitzaidan Bergarako Arrasatera ordu larrieta joatea. 9etarako han behar nuen eta 8ak inguruaren elurra hasi zuen gogotik. Kakati samarra naiz eta nahiago dut autorik ez hartu elurra zuritzen duenean. Baino konpromisoari eutsi eta abiatu egin nintzen. Poliki baina lasai heldu nintzen Elorregiraino. Handik aurrera, ilaran Epeleaino. Ordu-erdi eman nuen Arrasateraino, baina ez zen elurragatik izan. Hamar kilometro egiteko horrenbeste tar-datzea ohiko bihurtu da, tamalez.

Zail ikusten dut trafiko arazoaren konponbidea gurean. Berriki, Diputazioko batek esan zidan egiten diharduen autobideak ez dituela herrien arteko trafiko arazoak konponduko, ez dabilzala horretarako eraikitzen. Bestalde, Epeletik Kaskonategirainoko zabaltze lanak ez ditu arinduko Elorregitik Epeleainoko auto ilarak.

Zein da orduan irtenbidea? Autoa gutxiago erabiltzea; konpartitzea; kultura aldatzea; garraio publikoa erabiltzea... Garraio zer? Tranbiak salba gaitzala! Egingo badute, behin nik behin, ze gero eta eszeptikoagoa naiz tranbiarekiko eta gero eta gehiago dira diotenak koplatan dabilzala.

**"Eraikitzentz aridiren autobideak ez ei du barruko trafikoa arinduko"**

#### > Andoni Gartzia

laga egingo du Oñatiko alkatezta. Garaia iker-kuntza guneari helduko dio buru-belarri. Arazoak pilatu egin zaizkio azkenaldian udaletxean, eta Garaiarena ez da makala. Zorte on!

#### > Lurdes Idoiaga

izango da Oñatiko alkate berria. Ezagutzen dudanagatik gustuko dut. Zorrotza eta zuzenda, baina dialogantea ere bai. Eta Goienaren helburuekin bat datorrena. Ongi etorri!

## begi-bistan




**Altzاسu ingurua  
elurtuta (Bergara)**  
**2006/01/28**

Argazkia: Xabier Berasategi.  
Testua: Aintzane Irizar.

Zapataua, elurtea aprobetxatuta, Xabierrek mendi buelta egin zuen. Altzasanik Gorla eta Trekuutz aldera egin zuen ibilalditxo. Argazkia zoragarriak atera zituen bidean, honako hau tartean.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoak  
bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Patxi  
Basauri**  
ELGETAKO  
ALKATEA

Eguaztenean, otsailak 1ean, 30 urte bete ziren Patxi Basauri. Elgetako alkateak kargu hori hartu zuenetik. Bizitza erdi eman dio Elgetako alkatezari; izan ere, 60 urte dauzka. Errekorra dauka, gainera, Patxik; EAEko alkate beteranoena da.



**Iñigo  
Almortza**  
'MIHILUZE'-KO  
LEHIAKIDEA

Atzo, eguna, hasi zen Mihiluze lehiaketa ETB1en eta bergarar hirukote ezaguna ikusiko dugu laster, martxoan: Iñigo Almortza, Aitor Muruamendiaraz eta Igor Oruesagasti. Orain dela hamar bat urte Txiskola lehiaketan ibilitakoak dira.



**Salba  
Rodriguez**  
AMETZUETA PEÑAKO  
PRESIDENTEA

Gaur, egubakoitza, aurkeztekoak dira Realaren Ametzuetatik Taldie peña. Salba Rodriguez izango da taldeko presidenteeta. Pare bat hilabete dela sortu zuten talde hori, ofizialki, baina aspalditik dihardute Realaren alde lanean.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**  
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEERRIA ANA**  
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**  
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19  
**ETXEERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**  
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**  
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOEN VICTOR**  
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / Zerkosteta 19, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**  
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**  
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**  
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**  
Bergara / Fraiskoizuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**  
Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**  
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**  
Arrasate / Alfonso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**LORENZO MARTIN RAFAEL**  
Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**  
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**  
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

**TRIPALDI ENRIKE**  
Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**  
Arrasate / Munar 10 / 620 124 843

## DIETISTAK

**ALBERDI MIREIA**  
Bergara / Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

## ENTZUMEN ZENTROAK

**GAES**  
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**  
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## FISIOTERAPEUTAK

**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**  
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

**ARZAK MIREN**  
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

**BASTERRETXEA MARIA**  
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

**EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA**  
Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

**NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA**  
Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89

**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**  
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**  
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**  
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**ABUIN JOSE LUIS**  
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kirolegian  
943 77 01 33 / 943 77 16 77

**ARANTZABAL SAIOA**  
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

**ARANTZETA JUAN MARI**  
Elgeta / Salvador 28 / 943 76 80 54

**AZPEITIA IRUNE**  
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**CASANELLAS JABIER**  
Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

**ELORTONDO FLOREN**  
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

**ETXEERRIA ANA**  
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LASAI MASAJEAK**  
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 943 77 04 34

## OPTIKAK

**ARRASATE OPTIKA**  
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

**BEGIENDO OPTIKA**  
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**  
Arrasate / Erdiko kalea 22 / 943 79 71 68

**ITZIAR UGARTE OPTIKA**  
Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**  
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

**PORTALOI OPTIKA**  
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**  
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**  
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**  
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

**ETXEERRIA ANA**  
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**AZPIAZU ARANTZAZU**  
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**  
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**  
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**  
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**  
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**  
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**  
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**  
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA**  
Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

**ZUBILLAGA ZABALA MARISA**  
Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

## UROLOGOAK

**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**  
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**  
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**  
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Orain dela bost urte, 2000ko abenduan, GOIENKARIaren lehen zenbakirako elkarrizketa egin

genion Xabier Arzalluzi, Bergara zetorrela-eta; orain, GOIENKARIA berriituaren estreinaldian,

hemen dugu berriro ere, orain-goan ere Bergarara datorrela aitzakia hartuta. Orduan, EAJren

EBBko presidente zen; orain, erretiroa hartuta, askeago sentitzen da nahi duena esateko.

Xabier Arzalluz > EAJko EBBko presidente ohia

# "Abertzaleak elkarrekin aritzeko unea da, gehiengoa daukagula erakusteko"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Atzo, eguna, Bergaran izan zen *Así fue* bere memoria politikoaren liburuaren gainean beretan. "Ez dut dena kontatu, jakina, gauza asko isilpean gorde behar izan ditudala, baina ez dut gezurrik esan. Agertzen den guztia egia da", dio.

Sozialistekin elkarrekin ariztearen aurkako agertu zara liburuan. Zergatik?

Orain da momentua abertzale guztiak elkarrekin aritzeko. Hurrengo urteetan gauza izan beharko genuke abertzaleok era-kusteko eta argi uzteko geuk daukagula hemen gehiengo osoa.

Zein da abertzaleen arteko elkarlana bultzatzeko oztipo nagusia?

Arnaldok-eta EAJri botako diote errua. Bestalde, haien beti uste izan dute haiena dela protagonismo osoa. Eta, jakina, protagonismoa gauza bat da eta gehiengoa beste bat eta hemen, aurkakoa frogatzen ez den bitartean, herriaren gehiengoak EAJri ematen dio botoa.

Bake prozesurik bada egun?

Horixe esaten didate nire hurbilekoek, bakearen atarian gaudela. ETAREN azkenekoan gaudela. Hala ere, denek begiratzen diote ETARI, baina nire ustez arazoa ez da ETA bakarrik. Estatuak eta Madrilgo gobernuak ere badute erantzukizunik.

Zapaterori ikusten diozu borondaterik eta dohainik bake prozesuari eusteko?

Zapaterok gogo handia dauka arazoa behin betiko konpontzeko eta ETA desagertzeko. Kontua da noraino heltzeko prest dagoen hori lortzeko. Iku dugu Kataluniako Estatutuarekin noraino heltzeko prest egon daitzekeen sozialistak. Nazio, auto-determinazio eta horrelako konzeptuen aurrean zeharo jarrera itxita dute.

Zelan baloratzen duzu Zapateroren eta CIUREN arteko akordioa?

Zapaterok eta Artur Masek garrantzi handiagoa eman diote euren botere politikoari Kataluniako botere politikoari baino.

Kolokan dago Kataluniako hiruko?

Bai. Apurtzen ez bada, argi dago hurrengo Kataluniako gobernuak presidituko duela



ARGAZKI PRESS

Artur Masek edo sozialista batek, bi alderdiek osatuko dutela gobernu, eta inolaz ere Esquerrak. Horixe da akordio horren ondorio tristeena.

ERCK badauka haserre egoteko arrazoirik.

Bai, eta batez ere Zapateroren jarrerarengatik; izan ere, ezin dugu ahaztu Kataluniako Estatutua onartu zela Esquerraren eta Maragallen arteko akordioarenengatik, eta ez PSCk eta CIUK egingako hitzarmen baten ondorioz. Baino estatutua Madrilen negoziatzeko ordua heldu denean, Zapaterok nahiago izan du oposizioko talde batekin akordioa egin, eta ez Esquerrarekin. Lehenago edo geroago, Madrilen CIUKren laguntzarekin gobernaturako du Zapaterok eta Katalunian, berriz, CIUK sozialista katalanen laguntzarekin.

Ona da euskaldunondako Kataluniak bere estatutua onartzea?

BAKE PROZESUA

**"Zapaterok gogo handia dauka arazoa behin betiko konpontzeko. Kontua da noraino heltzeko prest dagoen"**

IBARRETXE

**"Alderdia, gorputz bezala, lehendakariarekin dago"**

KATALUNIAKO ESTATUTUA

**"Zapaterok eta Masek garrantzi handiagoa eman diote euren botere politikoari Kataluniakoari baino"**

Katalunian egin dezatela nahi dutena. Nik kezka bat daukat. Nik badakit Kataluniako Estatutua eredu moduan hartu zutela sozialistek Ibarretxeri aurre egiteko. Eta Kataluniako bideratzen dutenean, nahiko dute gurean ere eredu hori aplikatu Ibarretxe baztertzeko. Eta ni ez nago horrek ados. Ni Ibarretxerekin nago.

**EBBko egungo buruak ere bai?**

Ni ez nago EBBn, baina uste dut egongo direla Ibarretxeren aldekoak eta sozialistekin akordioak egiteareen aldekoak. Duda-rik ez daukat, hala ere, alderdia, gorputz bezala, lehendakariarekin dagoela.

**Arnaldo Otegik esan du EAJK izan dezakeela tentazioa CIUK Kataluniako Estatutuarekin egin duena egiteko.**

Neuk ere beldur diot Otegik eta hauek egin dezaketenari; hau da, Euskadiko Ezkerrak egin zuen moduan, horrenbesteko zalaparla sortu eta gero, PSOE amaitzea.

**Batasunaren eta sozialisten arteko hurbiltasun estrategikorik ikusten duzu?**

Badabiltza zerbaitean; hitz egiten, eta abar. Presoak atera nahi baditzte, kartzeletako giltza Zapaterok dauka, eta ez Ibarretxek. Baino hura lortzeko, haien helburuak albo batera utzik balitzte, niretako izugarrizko desilusioa izango litzateke.

**Faltan sumatzen duzu politikan aritzeak?**

Ez. Ni sagar heldua bezala jausi nintzen arbolatik. Pentsa, 72 urterekin atera nintzen, eta hori gehiegia da, nik lehenago nahi izan nuen. Orain ikusten ditudanean Mario Soares eta hauek, segitu eta segitu egin nahi dute, lotsa ematen dit.

**Urtebete-edo bada Josu Jon Imaz EBBko buru dela. Zelan ikusten duzu?**

Gauza batzuetan ez naiz ados egongo; beste batzuetan bai, baina diziplinatua naiz, otzana ez.



zabalik

Andoni Urtzelai

## Hiperbolea nagusi bihurtzen denean

**G**aur egungo gizartea hain da konpetitibo eta zalapartatsua, zein garrasi egin behar duzun entzun zaitzaten. Atentzia deitu behar da, nola edo hala, bestela ez zaitu-eta inork kontuan hartuko.

Telebistako informatiboa —baita zenbait egunkaritako azalak ere— hiperboleari emanak daude azken boladan. Ez dira albisteak gertatzen diren bezala kontatzera mugatzen, ez. Kate ezberdinak informatiboen arteko lehia den modukoa izanik —basadia eta estua—, matraka bizian atera beharra daukate airera, baita horretarako notiziak puztu egin behar baditzte ere. Eta egiten dute, bai horixe.

Horrela, azken egunotako elurteak historikoak izan direla entzun dut. Ez hori bakarrik, aurtengo negua azken 50 urteotako negurik hotz eta basatiena izan omen da. Euri majo egiten duenean inoizko eurite handienak egin dituena esaten digute ezelako konplexu barik, eta uda parteko lehortea, berriz, urteroko lehorte endemiko hori, azken hamarkadetako lehorterik bortitzena izan ohi da. Eta adibideak ez dira eguraldi kontuera mugatzen. Kirolaten, urteroko Real Madril eta Bartzelonaren arteko partidua mendeko partidua izan ohi da beti. Politikan, Euskal Herriak une historikoa bizi omen du behin eta berriz, urteak joan eta urteak etorri. Gazteen artean sekula ez omen da horrenbeste droga kontsumitu...

Aspertuta nago *historiko*, *inoizko*, *sekulako* eta *halako adjektiboez*, badirudi memoriarik gabeko gizarte batean bizi garela. Martxa honetan, laster ezingo diegu albisteei daukaten benetako pisua antzeman. Izan ere, gertaeren importantziarekin fribolizatzen dugu-nean, notiziek ez dirudite serioagoak, komikoagoak baizik.

### Goienkaria

**Argiratzalea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola Zuzendaria Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate Saitako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseño), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erradakioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarrizko diseinua Goi Arana Maketazioa Alex Azkarate

**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Zortza Martín, Imanol Elortza, Ixas Bereziar Testuen zuzenketak Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarin, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

#### EGOTZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 Posta-e: goienkaria@goiena.com

#### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABAleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 94 Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZIALEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarrak galdezka

ONATIKO HILERRIRAKO BIDEA  
**Hilerrirako bidea egoera txarrean dagoela eta zera galdu dugu oniatiar batek: Noizasfaltatu behar dute kanposanturako bidea?**

Udaletik jakinarazi dugutenez, hilerrirako bidea konpontzekotan dira, baina lanak beste proiektu baten baitan daude. Hilerraren beheko aldean biribilgune berria egitekotan dira eta horrenkin batera etorriko dira hilerrako bideko obrak. Aurtengo aurrekontuetan sartu dute diru partida bat lan hauetarako eta euren asmoa da urteko bigarren sei hilabetekoan hastea.

**CASABLANCAKO ZEBRABIDEAK ETA PARKEA**  
**Oñatiko Casablanca auzoko bizi-lagun batek esan digu auzotarrek hainbat eskari egin zituztela orain dela hilabete batzuk eta oraindik ez dutela berririk jaso. Noizko ipinikoi dituzte zebraideak eta ume-endako jolas parkea?**

Hirigintzako zinegotzi Angel Biaienek esan digu zebraideen gaineko proiektua amaitzen ari diren

la, eta hamar egun barru gertu izango dutela auzokoei erakutsi eta haien oniritzia jasotzea.

Bestalde, Garaiko parkeko lanak aurki amaitzeko asmoa dutela esan digu Biainek. “Euria izan da lanak ez amaitzeko oztopoa. Belarra ereitea eta ume jolasak ipintzea falta da; eta eguraldiak hobera egiten ez duen bitartean ezin zaie lanei berriz ekin. Hala ere, lehenbailehen egitea da gure nahia”.

### Galdera egiteko:

Zerbaitekin arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidal egigu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

GOITB ANTZUOLAN  
**GOITB Antzuolan ikusi ezin dutela eta kezkati azaldu da irakurle bat eta honako galdera egin digu: Noiz ikusiko dugu Antzuolan GOITB?**

Goienako zuzendari nagusi Inazio Arregik esan digu Antzuolan ikus daitekeela GOITB. “Ez oraindik kalitate omenarekin, baina ez dago arazorik ikusteko”.

Erabat ongi ez ikusteko arrazoiak ere azaldu dizkigu Goienako Inazio Arregik: “Gure eskualdea oso menditsua da, eta horregatik, telebistako seinalearen hedapena garestia izaten da. Zuntz optikoak edo irrati loturak dira kalitatea berma dezaketen aukera bakarrak. Hauek, ordea, oso garestiak dira eta Udal txiki baten aurrekontuetatik kango geratzen dira. Errepikagailuak dira irtenbidea eta horrekin saiatu gara, baina mila arazo izan ditugu”.

Une honetan GOITB ikusten dela eta pixkanaka seinalea hobetzeko lanetan dabiltzala gainearatu ditu. “GOITB ikusi nahi duten komunitateek antenan errepiagailu bat jarri besterik ez dute egin behar”.

## marrakiz

Alex Ugalde



## Agur Vanessa!

Patxi Lurra

www.goiena.net/blogak/patxi

**A** gur Lehen Maila esan beharko nuke, gaur bezalako astelan honetan. Bainaz dot egingo, atzoko derbia txuri-urdinek irabazi ebelako azken finean.

Vanessari bai, *au revoir* esan behar deutsagu, “Television Vasca”koek lapurtu deuskuenez. Beste euskaldun bat baskoen arteran. Vanessa Sanchez lelengo katetik bigarrenera mugiduko dabe, Paristik Iurretara, euskaratik

gaztelera. Lapurrik! Zergaitik ez zarie gelditzen beste Vanessa batzuekin?

Argi deukot, basko erdalduan ase ezinak dira. Egunen batean Andoni Aizpuru edo Estitxu Fernandez saiatuko dira bahitzen, edo Angel Alkain bera. Aski da! Eta, gauzak okertzeko, ahuntzen topagune ikaragarria zan *Beste gu* kendu dabe. *Quo vadis, Vascum Televisae?*

Astelanak oso gogorrak dira, baina ikuslearen egunak dira bai, behintzat hamen inguruau. Beraz, penak ahaztea zinemara noia! Agur Vanessa, Lehen Maila eta dano!

## Muxua

Sare

saregutar.blogspot.com

**M**uxu bat. Zein gozoa izan daitekeen patxo bat, muxu bat, laztan bat.

Bakoitzaren atzean muxuko partaide izan direnek baino ez dakiten istoriotxoa egon ohi da ezkutatuta.

Denok dugu istoriotxo hori barruan. Ametsetako istoriotxo bidaia ere.

Gaur honekin etorri naiz. Ametsetara bidali nahi zaitudalako. Erromantizismo pixka-

plazara

Sail honek ibarreko alderdi politikoetako ordezkarientako tribuna izan nahi du; gure gizartearen isipilu izan nahi du, iritzi anizta-

suna islatuz, denei adierazteko eskubidea emanaz. Astero-astero, hortaz, indar politiko guztien ahotsa entzungo dugu, hasi ordez-

karitza handiena duenek eta txikienera arte. Oraingoan, EAJko Koldo Pereirari dagokio, eta lehen-dakariaren hitzak ekarri ditu.

Koldo Pereira \*

## Etorkizunari baikortasunez begiratzeko unea

E torkizunari baikortasunez begiratu zion azaroaren bukaeran Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Martin Ugalde Foroaren lehen ekitaldian. Etorkizuna "bakean eta askatasunean" era-bakitzeko "aukera historikoa" dagoela argi du Ibarretxek. Itxaropenari behin betiko atea irekitzea lortuko dela ziur agertzen. "Erabakiko dugu, ikusiko duzue, ez dago atzera bueltarik prozesu honetan", esan zien hitzaldia entzutera joan zirenei. "Atariko fasean gaude, elkarrizketa prestatzen, E Gunearen bihamuna prestatu behar dugu".

Fokua Euskal Herrian jarri behar dela argi utzi zuen Ibarretxek, eta ez Madrilen. "Gakoa hemen lortzen dugun akordioa da". Madrilen agintean nor dagoen baino askoz garrantzitsuagoa Euskal Herrian egitasmo baten aurrean gehiengo osoa izatea dela nabarmendu zuen.

Fokua Madrilera eramatea "akats larria" liteke. "Hemen era-bakiko dugu gure etorkizuna". Alderdien arteko mahaiai buruz, Ibarretxek ez zuen daturik eskaini. "Fase erabakitzalean" koka-tu zuen eta horretara iristeko indarkeriaren desagerpena eta bazterketarik eza beharrezkozat jo zituen. Mahaia abiatzeko unea iristen denerako, mahaiaaren hel-buruak, edukiak eta eragile bakoi-tzaren zeregin zehaztuta egon behar dutela ohartarazi zuen.

Aukera historikoa "esku arte-an" ikusten du Ibarretxek. Bakearen ametsa gertu sentitzen du. Aljerretik Lizarrara ia hamar urte eta Lizarratik hona sei edo zazpi



MIKEL ARROIBAR

urte iragan direla gogoratu ondo-ren, hurrengo epea motzagoa izango dela iragarri zuen. "Baina aktoreak ezberdinak izango dira, nigan-dik hasita, argi eta garbi". Baina ametsa egia bihurtzeko, honako inflexio puntu seinalatu zuen: "ETAk prozesuari ekin behar dio armak behin betiko uzteko asmoa duela argi eta garbi adieraziz. Hobe gaur bihar baino".

Lau data harilkatu zituen lehendakariak Martin Ugalde Foroan. Gatazkaren jatorri politikoa azaltzeko, 1939ko urriaren 25era jo zuen, foruen lehen abolizio legea indarrean sartu zen eguna. Ondoren, Gernikako Estatutua erreferendumean bozkatu zen egunera jauzi egin zuen, 1979ko

**"Madrilen agintean nor dagoen baino askoz garrantzitsuagoa Euskal Herrian egitasmo baten aurrean gehiengo osoa izatea"**

**"ETAK prozesuari ekin behar dio armak behin betiko uzteko asmoa duela adieraziz"**

urriaren 25era. Autogobernuaren garapenak euskaldunon bizimodu hobetzeko balio izan duela aitortuta, Estatutuaren ibilbidetik honako ondorioa azpimarratu zuen: "Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanetarako esparru berria ezarri beharra dago, datozten belaunaldiak itxaropen ateak zabalik izan ditzaten etorkizunari begira". Behar horretatik jaio zen Estatu Politiko Berria, 2003ko urriaren 25ean. Legebiltzarrean 2004ko abenduaren 30eko "egun historikoan" onartu ondoren, Espainiako Kongresuan "ate dantebetako" jaso zuela gogoratu zuen. Ezezko horrek "1939tik konpondu gabeko auzi bat" dagoela agerian utzi zuen.

Laugarren Foroaren hitzaldiarena izan zen. Geroari begira jarrita, Estatutu Proposamena-ren edukiak normalizazio politikoa lortzeko zume gisa aurkeztu zituen, bere ustez, indarrean dau-den auziei "irtenbidea" ematen dietelako: Euskal Herria subjektu politiko gisa onartzeari, era-bakitzeko eskubideari, lurraldetasunari, negoziatzeko beharrari eta giza eskubideen lehentasunari. Normalizazioari begira, bost konpromiso beharrezkozat jo zituen: indarkeriarik eza, bazterketarik eza, demokratikotasuna, berdintasuna eta pluraltasuna. Horiek azaltzean, ikuspuntu berri-tua agertu zuen bazterketarik ezaren kontzeptuari "lurraldeetako sentsibilitate guztien parte har-tea" erantsi zuelako.

\*Gipuzko Buru Batzarreko Debagoiena eskualdeko kidea

## zer deritzoz?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Tranbiak arinduko du trafiko arazoa?

BAI	%40
EZ	%60

### > DEFIZIT LARRIA

Ez nago ziur tranbiak konponduko duen gure eskualdeko trafikoaren arazo edo ez, baina garraio publikoa bultzatu behar dela argi daukat, ze horren defizit larria daukagu hemen.

Gaizka

### > GEZUR HUTSA

Nik uste dut dena gezur handi bat dela eta ez dela tranbiarik egingo... Bira eta buelta ibiliko dira, eta azkenean AHT bai, autopista ere bai eta tranbiarik ez!

Guridi

### > TRANBIAREN ABANTAILA

Jendeak garraio publikoa erabiltzeko abantailaren bat aurkitu behar dio, eta tranbiak edukiko luke, autoak errepidean geratuta dauden bitartean tranbiak aurrera egingo baitu.

Etor

### > AUTOBUSAREN ALDE

Seguru nago ordu erdiro edo 15 minuturo autobusak baleude askok erabiliko genukeela. Aitzi

### DATORREN ASTEKO GALDERA:

**Gustatu zaizu GOIENKARIA berritua?**

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

## blog-top

tekin busti nahi zaitut. Nahi duzun horri muxu emateko go-goa piztu nahi dizut. Istoriotxo-a eraiki. Ahal baduzu egi bila-katu.

## Europa madarikatua!

Potzuar  
[www.blogari.net/Potzuar](http://www.blogari.net/Potzuar)

G aur goizian entzun dot radixuan, Hamasi bi gauza eskatzen diuezela:  
1. Armak uztia.  
2. Israel errekonozitzia.

Besterik ez... eta Israeli zer eskatu diote?

Lotsagarrixa da, eurak defenditzen deben joku demokratikoan ateratako emaitzak onartu nahi ez eta txantaje zikinian hastia... jendeak zergatik botatu du ba Hamas, hurrengo egunean bere izaera aldatzeko ero?

Mundu gezuretako ustel baten bizi garela badakigu danok baina jokuan errespeto pixkat ez litzake geizki etorriko.

Hola, beste 20 urtian palestinaren egoera tamalgarrixa luzatzia besterik ez debe lortuko, beti ere israeldar faltsuen mesedetan!

En fin...hasarre nao Europa ustel honekin!

## Notiziaren bezperan

Imanol Murua Uria  
[www.berria.info/blogak/imanol](http://www.berria.info/blogak/imanol)

Z alantzan egon nintzen joan den larunbatean, Egi-barren elkarrizketaren titulua aukeratzen, su-etenaren bezperan gaudela estatea izenbururako modukoa ote zen edo ez. Baina azkenean entresakan besterik ez nuen nabarmendu.

Broma tonuan gehixeago ere esan zidan su-etenaren kontu horrekin, horren harira galde-ra bat egiten hasi nintzaionean:

- Asteburu horretan elkarrizketa hau idatzi beharrean su-etenari buruzko gehigarria idazten aritu beharko duk akaso.

- Prest daukagu gehigarria-nik, gezurretan.

- Pentsatzen nian.

Gero argitu nion ez dauka-gula prest, baina eduki beharko genukeela, bada ezpada ere. Txantxa besterik ez zen izan, baina notizia epe labur sama-rean espero duela iruditu zitzaidan, Aberri Egunaren zain egon beharrik izan gabe.

## koplak

Aramaioko Bertso Eskola

## Aurrerapena

Baserritarra nahi zenituzke Txabarri zuk progresista, Gernikako Arbolan gainetik pasa zazu autopista.

AHT eta autopista bailaran hainbat sarraski, behin hasi zineten ta sekula ez duzue izango aski.

Txabarri hi haiz kriston morroia berdin luze berdin zabal, zauden lekuan baino hobeto Santa Agedan zaude igual.

## 2006. urterako asmo onak?

Eneko Arana, Igor Gonzalez, Iker Jimenez eta Koldo Balantzategi Arrasate

Beste urte bat pasatu da, bai. Gabonetan familiakoekin egon, lagunekin momentu onak pasatu eta asmo onak betetzeko hitza emanda hasi duzu urte berria. Ondo deritzogu, baina zure asmo "on" horiek zeintzuk diren eta nola gauzatzen dituzun ikusi beharreko gauzak dira, Ines Aldai Arrasteko kultura zinegotzi hori. Herrira ekarritako gospel taldeak arrakasta handia izan zuen, gure ustez era horretako emanaldiak herrira ekartzea oso aberasgarria da. Gu behintzat ez gara horien aurka azalduko, eta mesedez, ez itzazu bazterrak nahastu eta tankera horretako ekitaldien aukako jarrera dugunik asmatu.

Bestalde, jakina zenuen zure eskutitzak erantzuna izango zuela eta beste behin argi utzi duzun bakarra zure jarrera itxia da: "Nik, honekin, hasi eta bukatu egiten dut gaia". Zergatik? Ez al duzu esateko duguna entzun nahi? Zuk bakarrik al duzu iritziak plazaratzeko eskubidea? Berriz ere gogoratu nahi genizuke zure deiaren zain gaituzula, orain ia urtebete hitz emandako bilera burutzeko. Emandako hitza betetzen ez duenak bere asmoak beteko al ditu? Asmoak ederrak dira, baina ekintzakin erakusten diguzu asmoak besterik ez dela.

Horrez gain, eta gutxi ez balitz, gezur galantak idazteko ausardia ere izan duzu. Ze adibide mota zara zure ilobarentzat? Ez al diozu erakutsi gezurrak ez direla esaten? Hainbat kultur talderi ez diezu dirulaguntzaren bigarren zatia eman. Ez al da hori murrizketa? Herriko kulturaren alde lanean dihardugunoi trabak besterik ez diguzue ezartzen. Noiz ez ditugu justifikatu gure gastuak? Aurreko agintaldietako udalbatzei ere kontuak argi eta garbi eraman dizkiegu, nola lortu bestela arrasatear guztien den diruaren zati bat? Ondo dakizu (eta ezean, informatu zaitez, mesedez) beti aurkeztu izan ditugula gure aurrekontuak eta ondoen dagozkien fakturak. Beraz, sartu eta ondo gorde ezazu bi belarrien artean daukazun gela huts horretan ez garela lapurrik, eta ez dihardugula lanean zuk kudeatzen duzun diruaren ordainetan, hemen soldata bidez "lan" egiten duen bakarra zu zaitugu.

## Ongi etorri, Gorka eta Gaizka!

Amaia Agirre (Askatasunaren izenean) > Debagoiena

**O**ngi etorri, bio! 2005eko apirilaren 7 hartan barrenak iraulita jaso genuen zuen atxiloteka injustuaren berri. Ordurako inkomunikazio sistematiko ankeraren hatzapar beldurgarrietan zeundeten. Torturaren tirakada, kolpe eta zigor psikologikoaren tunelean irudikatzen zintzutegun, espaniar justiziaren laborategi suntsitzalean. Eta hala baieztago zuten zuek egindako salaketek. Bost egun haien tentsioz eta inpotentziaz gainezka pasa genituen. Eta albiste hura komunikabideetatik heldu zitzagun, zuen espelxeratzearen berri gogorra. Biak barrura.

Muntaia polizial madarikatu, kalkulatu hark kondenatu zintzuten demokrazia faltsuaren izenean.

Sakabanaketa, eskubideen aldeko borrokak, komunikazio murrizketak, oinarrizko eskubideak zapalduta, zuen izaera politikoa ere ukatu zizueten Soto del Relax-en.

Bahiketa politikoa zuen larrutan jasan duzue, zuen ideieie indarrez, duintasunez eutsiz. Zenbat kilometro zuen senide eta lagunek egin dituztenak, zuen kontuak entzuteko, zuek ikusteko.

Atxilotu zintzutenean bezalaxe lehertu zitzazkigun astelehenean barrenak etxera zentoztela jakin genuenean. Baina oraingoan poztasunak irauli gintuen. Espaniar injustiziak baldintzaeko askatasuna eman dizue fidantza baten truke. Orain itxaron egin beharko, muntaiaren bide ustelak zein norabide hartzan duen ikusteko. Etxean aske eta baldintzarik gabe, ibentzio eta intentzio politikoaren asmoetatik landa. Horixe beharko luke epaiak, justua izatekotan.

Errepresioaren makinariak martxan jarraitzen duen bitartean lanari eutsiko diogu. Ongi etorri kalera!

Ahaztu baino lehen, gure heziketaz zuk esandakoaren harira zera argitu nahi genizuke: gure gurasoengandik eta ikastolako irakasleengandik jasotako heziketaz harro gaude, nahiz eta zu bezalako irakasle eskasek ez duten horretan lagundu. Adibide bezala, eta esaldi famatuak gustukoak dituztula jakinik, guk ikastolan oso ezaguna egin zenuen bat gogoratu nahi genizuke: "Ni fisika naiz eta Ines emango dizuet".

Azkenik, onartezina iruditzen zaigu gure parte-hartzea kolakan jarri izana, urte askotan etengabe egindako lana, bi urte eta erdian zapuzten ahalegindu zara (horrela bai galtzen dela kultura!). Jakin ezazu lanean jarraitzen eta jarraituko dugula (udalaren laguntzaz edo gabe), eta jaienkiko izan dugun eta mantenduko dugun jarrera dirulaguntzarekin gertatutakoa baino askoz lehenagokoa dela. Gainera, ez da aitzakia soila, benetan sentitzen duguna baino. Ea 2006. urtean benetako laguntza dugun talde guztiok eta jaiak orain arte bezala edo hobeto igarotzen ditugun, inolako inposaketaik eta antolakuntza lapurretarik gabe.

P.D.: guk, zuk ez bezala, erantzuteko aukera ematen diogu nahi duen pertsona orori, ez baitaukagu elkarritzearako inongo arazorik.

hartuko du egindako min guztiaren erantzukizuna? Arduratuko da norbait usteak ustelak zirela argitzen ala edozer esan liteke eta hor konpon?

Nik neuk proba zehatzak azaldu arte gobernutik bota dituztelako haserre bat besterik ez dela pentsatuko dut.

## Lekuko bila

Juan Carlos Poza

Bergara

Joan den zapatuan, urtarrilak 28, emaztea eta biok Urbiala joan ginen goiza pasatzera. Autoa, Citroen ZX zuri bat, Arantzazuko aparkalekuaren utzi genuen goizeko 10:00ak aldera. Dena ondo zihoan, 14:30ak aldera autoaren ondora iritsi ginen arte. Zur eta lur gelditu ginen. Norbaitek ezkerreko atzoko atean izugarrizko golpea eman zion, atea txatartegira botatzeko besteko.

Ez ziguten inongo paperik edo abisurik utzi eta norbaitek zerbait ikusi balu, gurekin harremanetan jartzea eskertuko genioke telefono zenbaki honetara deituz: 656 00 85 10. Eskerrik asko aldez aurretik.

## Lurreko hegazkina

Aitor Bengoa

Aretxabaleta

Egunero bizitzan, lanean, etxearen, anbulatorioan, eskolan, auzoko jolastokietan, kiroldiaren, supermarketuan... jadaniak entzunda edo irakurrita dauzkagu letra ezagun batzuk, aldi berean hitz batzuen hasierak direnak. AHT/TAV edo Abiadura Handiko Trena/Tren de Alta Velocidad.

Zertarako? Gure errepidetik egunero 1.000 kamioi gutxiago igarotzeko? Europarekin lotuago egoteko, gero eta azkarrago mugitzeko? Nora? Ahal den eta denbora gutxienean etekin handienak ateratzeko? Erregaiaren kontsumoa murrizteko? Karbono dioxido isuriak gutxitze? (horrela Kyotoko protokolotik gertuago egongo baikara).

Eztabaidea? Gizartean gai honen inguruan eztabaidea oso urriak izan dira, azpiegitura erraldoi honek merezi du aldeko eta aurkakoen arteko eztabaidea prozesu bat. Azken finean hemen gauza asko ari gara jokatzen: gure etorkizuna nondik nora joan behar den... Administrazioak kanpaina erraldoiak egin ditu eta diru publikotik izugarrizko gastua egin du proiektu honen alde, aurka daudenei inongo tarterik

utzi gabe. Benetan uste duzue hemen demokrazia dagoela? Batzuek demokrazia hitza bekokian idatzita eramatzen dute baina oraingotik ez dira ispi luurrean begiratu. Utz ezazue hipokresia alde batera! Erabilten duzuen hau guztia inposizioa izenarekin da ezaguna.

Ahoa beteta erabiltzen duzue parte-hartzaile hitza, baina nire eskuetara txosten bat iritsi da eta bertan aipatzen da "bizilagunek parte-hartze zuzena edukiko dutela proiectuetan ekarpenak egiteko" (gaur egungo alegazioak), baina sekula ez proiektu bat atzera botatzeko. Demokrazia ez da lau urtetan behin bozkatzen joatea eta ondoren ahalmen guztia edukitzeaedozer egiteko.

Abiadura Handiko Trenaren aurrekontua 3.300 milioi eurokoa izango dela aurreikussten du Eusko Jaurlaritzak, baina batzuek 6.000ra ere iritsiko dela esaten dute. Azpiegitura publiko bat gutxi batzuen erabilpenerako.

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenak ikusiz, garraioaren hazkundeak gora egingo du hurrengo urteetan. Horrek esan nahi du 1.000 kamioi errepidetik kenduko direla, baina 1.000 edo gehiago errepidetik bueltatu. Aipatzen duten erregaien kontsumo murrizteak eta karbono dioxido isuriak non geratzen dira?

Ikusita daude azpiegitura handiek dituzten ondorioak, polarizazio fenomenoa gertatzen da, ekonomia azpiegitura baten hasierara eta bukaerara bideratzen da erdibidean dauden herrien kalterako. Euskal Herriaren kalterako eta Euskal Hiriaren mesederako.

Kontsumitzen ditugun produktuen jatorria jakitea gero eta zailagoa izango da. Gaur egun daukagun hurbiltasun txiki hori gainbeheran joango da, hiltegiaren adibidea hor daukazue. Guztio indarra behar dugu proiektu hau gelditzeko eta eztabaidea martxan jartzeko, ea ze Euskal Herri edo Euskal Hiri nahi dugun.

Ingurugiro txikizioan eta honek sortutako eraginetan ez naiz sartuko, ingurugiro impaktu negatiboa izango baita. Ordua da garapen ereduaren inguruan eztabaidea bat sortzea hausnartzeko ea nora goazen. Ez al zaio garapenari frenoa jarri beharko? Bakotzak hausnartu behar du honen inguruan eta idatziz honekin iritzi kritiko batzuk sortzea da nire nahia.

Alvaro Amman garraio sailburu izandakoak hauxe esan zuen: "50 urteko atzerapauso ekonomiko, sozial eta kulturala ekarriko du tren azkar hau ez eraikitzeak". Pentsatzeko ahalmena duen edonork badaki hau ez dela egia.



# familia *bizi-bizia*

ARIZMENDI Ikastolan familia osoarentzako zerbitzua  
eskaintzen dizugu. Gure lana, haurraren eta gurasoen  
premiak asetzea. Zer behar duzue?

***matrikula epea otsailaren 6tik 17ra***

**902 11 20 25**

**Informa zaitez!**

[www.arizmendi.ikastola.net](http://www.arizmendi.ikastola.net)



**06-07 ikasturterako  
matrikula epea zabalik**

*otsailaren 6tik 17ra*

## **UMEZAINTZA**

**Udal Haur Eskolan (0-3 urte)**

**San Andres, 8 • 902 11 20 25**

Instalazioak ikusi edo elkarritzeta egin nahi  
izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.



ARRASATEKO  
UDALA

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

**A**  
Arizmendi ikastola

geurea, zeurea

**ALDEDI**

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35  
Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



## > BERGARA

Zabalotegiko errepidearen egokitasuna zalantzan > 24




## > ARRASATE

Umeendako ikuskizunak, otsailean, Amaia Udal Antzokian > 22



## > ELGETA

Arrain-saltzaile ibiltaria izango dute eguen goizetan > 37



## > ARETXABAleta

Txakur arriskutsuen errolda egiten hasi dira > 30



ARCELORREK Bergaran duen lantegian 300 langile baino gehiago dabilta lanean gaur egun; urduritasuna eta kezka da nagusi langileen artean.

ENEKO AZKARATE

BERGARA > EKONOMIA

## Esperantza izan arren, sindikatuek ez dute argi ikusten etorkizuna

### OPA ARRIOTSUA

Mittal Steelak 18.600 milioi eurotan baloratu ditu Arcelorren akzioak

### SINDIKATUAK

OPAri aurre egiteko, Europako agintariengana joko dute sindikatuek

### UBANE MADERA > ARRASATE

Eguaztenean, hilak 1, Bruselan izan ziren Arcelorrek ordezkaritzan dauen herrietako sindikatuak. Euskal Herriko Arcelor ordezkatzen ELAko Iñaki Arregi bergararra izan zen han. Besteak beste, Arcelorreko Administrazio Kontseiluarekin bat ziren. Hala, hartu zuten erabakietako bat izan zen Mittal Steel enpresak Arcelorri egin dion EEP edo OPA arriotsuari (erosteko eskaintza publikoa) aurre egiten saiatuko direla. Euskal Herriko Arcelorreko ELAko Jabier Garitano ordezkariek zera adierazi digu: "Oso urduri gaude guztia. Kontua da Mittal Steel enpresak ez dela Arcelorrendako plan industrialik aurkeztu. Hitzez dio lasai egoteko eta ez dela murrizketarik egongo lantaldeetan. Bainan hitzez esateak ez du balio. Arcelorrekin

badugu halako esperientzia bat. 2002an, idatziz agindu zigutenean ez genuela murrizketarik izango. Orduan 100.000 langile ginan; orain, berriz, 80.000-82.000. Mittal Steelen EEPari dagokionez, finantzarioa da ehunetik ehunear".

Halaber, Jabier Garitano jakinarazi digu Bruselako batzarrean Europako sindikatuek era-

baki zutela Mittal Steelak egindako EEPa geldiarazteko agintariengana joko dutela: "Arcelorrek ordezkaritzan dauen Europako herrietako gobernuak eta era-kundeak mobilizatu nahi ditugu EEParen kontra".

Dena dela, emaitza oraindik urrun dagoela ere esan digu: "Prozesua luze joango da; batzar

gehiago egin beharko ditugu. Eta ikusi egin beharko dugu ea gauza garen EEPari aurre egiteko. Esperantza beti izan behar da, baina halako EEPak daudenean, ikusten da atzetik zerbaite landuta badutela".

### ALKATEA ERE KEZKATUTA

Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea ere kezkatuta dago: "Kezkatuta eta arduratuta nago, jakina, Arcelorren eta Bergarako langileen etorkizunarekin, batez ere ez dakigulako zeintzuk diren Mittal Steelen helburuak". Alkateak esan digu nahiago lukeela EEPak aurrera egingo ez balu, bereziki, Arcelorrek Bergaran duen garrantzia kontuan hartuta: "300 langile baino gehiago ditu. Inbertsio handiak egin ditu eta ondo prestatuta dago (...). Oso kezkatuta eta arduratuta nago, bai".

### ESALDIAK

**"Oso urduri gaude. Mittal Steel enpresak ez du Arcelorrendako inolako plan industrialik aurkeztu"**

Jabier Garitano > ELAko ordezkaria

**"Oso kezkatuta eta arduratuta nago Arcelorren eta Bergarako langileen etorkizunarekin"**

Victoriano Gallastegi > Bergarako alkatea

**zerbitzuak****GOARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Astelehenetik, 6	Azkoaga	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Martitzenetik, 7	Azkoaga	Iturriortz 17	943 79 11 99
Eguaztzenetik, 8	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Eguena, 9	Irizar	Erguin kalea 11	943 79 12 39
Egubakoitzatik, 10	Amezua	Santa Marina	943 79 09 74

**BERGARA**

Astelehenetik, 6	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzenetik, 7	Camacho	Oixorondo 4	943 76 11 74
Eguaztzenetik, 8	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Eguena, 9	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitzatik, 10	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

**ONATI**

Astelehenetik, 6	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzenetik, 7	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztzenetik, 8	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 9	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitzatik, 10	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

**ARETXABAleta**

Astelehenetik, 6	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzenetik, 7	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztzenetik, 8	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 9	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitzatik, 10	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIK**

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Orokorra).....	943 46 46 22
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Suhiltzaleak.....	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate.....	943 79 71 99
Bergara.....	943 53 47 20
Osasun etxek	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 78 90 27
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Hies Ekimenra.....	943 79 26 99
Udalzainoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 76 19 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

**GARRAIoAK**

Eusko trenbideak.....	943 45 01 31
PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 79 22 33
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65
Renfe.....	943 28 35 99

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 21 93
Mendi nekazaritzatik elkartea.....	943 76 25 47
Nekazaritzatik garbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakinketegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	945 44 44 42
Onati.....	943 78 36 67

**GOARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Astelehenetik, 6	Azkoaga	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Martitzenetik, 7	Azkoaga	Iturriortz 17	943 79 11 99
Eguaztzenetik, 8	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Eguena, 9	Irizar	Erguin kalea 11	943 79 12 39
Egubakoitzatik, 10	Amezua	Santa Marina	943 79 09 74

**BERGARA**

Astelehenetik, 6	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzenetik, 7	Camacho	Oixorondo 4	943 76 11 74
Eguaztzenetik, 8	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Eguena, 9	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitzatik, 10	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

**ONATI**

Astelehenetik, 6	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzenetik, 7	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztzenetik, 8	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 9	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitzatik, 10	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

**ARETXABAleta**

Astelehenetik, 6	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzenetik, 7	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztzenetik, 8	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 9	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitzatik, 10	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIK**

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Orokorra).....	943 46 46 22
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Suhiltzaleak.....	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate.....	943 79 71 99
Bergara.....	943 53 47 20
Osasun etxek	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943

**kale inuesta****Zela konpontzen zara “urtarrileko aldaparekin”?**

**Loli Estefania**  
Erretiratua  
Bergara



**Mikel Ugarte**  
Langilea  
Bergara



**Ekaitz San Vicente**  
Langilea  
Arrasate



**Mari Segura**  
Erretiratua  
Arrasate



**Maider Idigoras**  
Langilea  
Arrasate

Niri ez zait luzea egiten, ez dut-eta arazorik, bakanrik nago eta ez dut, adibidez, umiei jantziak eta halakoak erosteko beharrak. Dirua ondo administratza da kontua. Niri negua egiten zait luzea.

Niretako ez da horren-besteko aldapa. Behera-penak-eta daudenez... Hori aprobetxatu egin behar da eta ez dira gauza asko erosi behar, bestela aldapa gogorragoa egiten da.

Betiko moduan, diru gutxirekin ibili behar urtarriko aldapari aurre egiteko! Eta diru gutxirekin ibili arren, dagoena ondo administratu behar da, gastua kontrolatu.

Nik ez dut igartzen. Normalean badakit noraino iristen naizen eta gauza da handik ez pasatzea, ez Gabonetan ezta handik aurrera ere. Eta aurten, gainera, ez naiz sartu jan-tzi kontuetan.

Ba ez. Niri ez zait egiten luzea eta ezer ere ez, ez dut igartzen. Egia esan, gastu askorik ere ez dut, ez dut umerik eta halakorik, eta hori ere iga-rriko da... Niretako txa-rragoa izaten da iraila.

**txaloak eta txistuak**

GOIATZ ARANA

**Bazterkeriari aurre egiten laguntzeko**

Elkarlanerako hitzarmena sinatu dute Arrasateko Udalak eta Kutxa-Zeharok. Kutzako Gizar-te Ekintzak eta Gureak taldeak iazko otsailean zabaldu zuten Arrasaten Kutxa-Zeharoren bulegoa, bazterkeria jasaten dutenei laguntzeko. Orain, Udalak bat egin du egitasmoarekin.

**bertako berbak**

Juan Martin Elexpuru

**"Pelaje"**

- Ikusi dozu Klaran semiak zelako pelajia daukan?



Marrazkia &gt; Jon Iraegi

**Asteako datua****35**

Milioi euro pasatxoko aurre-kontua aurreikusi dute Arrasaten mendebaldeko saihesbidea eraikitzeko. SAIHESBIDE horrek irteera emango die Uribarri-Garagartzia inguruan dabiltzan langileei.

**5 galdera...****Nati Arrieta**

Etxekoandrea  
Elgeta

**1.** San Blasa ganoraz egiteko zer behar da: esperientzia, pazientzia edo egin nahia bakarrik?

Egin nahia behar da batez ere, eta esperientzia ere ondo dator. Urtean-urtean zertxobait aldatu egiten dut eta batzuetan geratzen da hobeto eta bestetan ez, baina horrek berorren esperientzia ekartzen du. Nire ustez, esperientzia ere behar da. 65 urte egin ditut eta beti egin izan ditut opilak. Gustatu egiten zaigu gozoa-eta...

**2.** Niri esan didate, gainera, zure opilak oso gozoak direla; osagai bereziren bat botatzen diezu?

San Blasa ondo egiten dute-nak mila egongo dira... Osagaiei dagokienez, oinarria zera izaten da: arrautzak, irina, azukrea, anis tanta batzuk, mantekila eta legamia (Royal). Izena ipintzeko txokolatea bota-eta, nik hori ez diot egiten. Nik egiten diot gai-neko zuria eta huraxe kosta zitzaidan ondo ateratzea; batean modu batera probatzen nuen, beste batean beste modu batera... Baina orain dezente ondo ateratzen zait. Kosta zitzaidana izan zen gai-nekoa gogortza.

**3.** Opilak egiteaz gainera, baduzu ohiturarik San Blas eguneko bestelako tradizioak zaintzeko?

Bai. Ni oso praktikantea ez naiz, baina elizara joaten naiz. Bedeinkatzen ditut eta batez ere bedeinkatzen dut gatzia. Urte guztian izaten dut gatzia bedeinkatuta. Gozoki batzuk ere bedeinkatzen ditut eta gure amak bedeinkatzen zuen ogia.


**4.** Zuk zeuk zeini oparituko zenioke zure opilik gozoena?

Nire umeei eta tia Dorari.

**5.** Eta zure umeen artean edo ondoko artean lortu duzu jarraitzaileraren bat zu San Blasak egiten asper-tzen zarenerako?

Ez. Bi mutil ditut, eta orain arte, behintzat, ez. Ez dute zer-tan ez egin mutilek, baina ez dut uste segimendurik egongo denik. Erosi egingo dituzte lehenago!





PLANOA Argazkiko irudiak erakusten du nondik norako ibilbidea egingo duen mendebaldeko saihesbideak; guztira, 2,1 kilometroko ibilbidea izango da.

GOIENKARIA

#### HIRIGINTZA > OLANDIXOKO TUNELA

# Arrasateko mendebaldeari arnasa emango dion saihesbidea badator

Proiektua hilabetz jendaurrean izango da, herritarren eskura

2007an hasiko dira lanean eta 24 hilabete dituzte bukatzeko

35.453.176,38 euroko aurrekontua zehaztu dute

#### UBANE MADERA > ARRASATE

Oraingo astean onartu du Udalek Olandixoko tunelaren ibilbidearen proiektua, Arrasate Mendebaldeko Saihesbidearena, hain zuzen ere. Behin-behinerako onesprena eman dio. Hala, orain, hilabetez jendaurrean ipini dute, eta herritar, entitate eta era-kundeek aukera izango dute agiri guztiak aztertzeko eta nahi

izanez gero, alegazioak aurkezteko. Arrasateko Udaletxean eta Aretxabaletakoan dago ikusgai.

Alegazioak batu eta haiei erantzun ostean, lan horrek izango duen ingurumen eragina aztertuko dute, Diputazioak proiektua behin betiko onartu baino lehen.

Zehatzago esanda, burokrazia kontu horiek guztiak bukatu eta lanak hasi arte, urtebete pasako da; Udaleko Hirigintza Sailetak jakinaraz digutenez, 2007an hasiko dituzte. Eta gero, 24 hilabete-ko epea dute guztia bukatzeko.

Aurrekontuari dagokionez, berriz, 35.453.176,38 euro aurreikusi dituzte oraingoz.

#### SAIHESBIDEAREN IBILBIDEA

Olandixoko tunelaren proiektua LKS Ingeniaritzak egin du. Guztira, 2,1 kilometroko ibilbidea izango du saihesbideak. Hain justu ere, honako hauxe: Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan hasiko da (Mugarriten). Han, biribilgune berria eraikiko dute, Deba ibaia zeharkatzen duen zubiaren ondo-ko bidegurutzearen gainean. Biri-

bilgunetik abiatuta, eta GI-2620 errepidearen paraleloan, mendiaaren malda igotzen joango da, San Andres auzoko pabilioien atzetik (Chapime, Meca...).

Mendira iristen denean, berriz, tunelean sartuko da, Olandiomendi zeharkatzeko. Tunel hori 830 metro luze izango da eta bi errei izango ditu. Olandiomendi zeharkatu ostean, Alecop

lantegiaren eta Uribarriko industrialdearen artean aterako da. Zubi berri baten bitartez, Aramaio ibaia zeharkatuko du eta errepideraino iritsiko da (Amatondotik). Han beste biribilgune bat eraikiko dute, errepidearekin bat egiteko. Hain justu ere, gaur egun Uribarri industrialdera sartzeko dagoen biribilgunearen ondoan eraikiko dute berria.

#### 5.000 IBILGAILUTIK GORA

Hobekuntza handia izango da saihesbide hori Arrasateko mendebaldeko. Esaterako, egun arrunt batean, 5.015 ibilgailu ibiltzen dira Uribarri eta Uribetik Gesalibarrera. Eta Uribarri eta Uribetik Arrasateko erdigunea, berriz, 5.712 ibilgailu. Datuok Ingurumen Sailak batu zituen, 2004ko urriaren 4an.

## Uribarri inguruko enpresendako komunikazio hobe eta egokiagoa

Arrasateko Udalaren aspaldiko nahia eta asmoa da Olandixoko tunela edo mendebaldeko saihesbidea eraikitza. Izen ere, Uribarri-Garagartzza gunean zirkulazio izugarri handia dago, hango lantegiek eraginda. Zirkulazio horrek, gainera, eragina dauka, baita ere, Arrasateko barruko aldean. Tunel berriari esker, berriz, zirkulazio horren zati handi bat Arrasateko erdialdetik kanporatzeaz gainera, lotura zuzena lortuko da oraingo Arrasateko saihesbidearekin eta laster eraikiko duten AP1 autobidearekin.

Uribarrin dagoen enpresetako bat da Fagor. Hainbat negozio ditu han Fagorrek, tartean, Fagor Ederlan.

Horren barruan sartzen dira Uribarriko galdegia, Edertek, presio baxuko planta, Mekanizatuen lantegia eta laster eraikiko duten galdegia. 500 langile baino gehiago dabitza lanean. Halaxe jakinarazi digu Fagor Ederlaneko prentsa saileko Inma Rodriguezek. Hark saihesbide berriaren gaineko oso balorazio positiboa egin digu: "Enpresaren ikuspuntutik oso positiboa da. Neurri horrekin ahaleginduko dira arintzen gaur egun sortzen den auto-pilaketa. Beharrezko neurria da, askotan eskatu duguna". Gaineratu digu halako neurriak garapena indartzeko onak direla, "garapenak eskatzen ditu lan kopuruarekin bat datozen neurriak".

UDALA > OSOKO BILKURA BEREZIA

# Gehiengoa galdu egin du hiruko udal gobernuak

Gehiengo osoa behar duten gaiak aurrera ateratzeko negoziazioa ezinbestekoa dela argi ikusi du udal gobernu taldeak

UBANE MADERA > ARRASATE

Gobernazio zaila du Arrasateko Udaleko udalbatzarrak. Ezker Batua udal gobernutik kanporatu izanaren ondorio zuzena da hori. Hala ikusi zen oraingo asteko osokoan (astelehena), EB bota dutenetik egin duten aurreneko batzarrean, hain zuzen ere.

Izan ere, EBren kanporatzaren ondorioetako bat da oposizioak (PSE-PP-EB) eta udal gobernuak (EAJ-EA-Aralar) hamartza zinegotzi dituztela orain. Hala, osoko bilkuretan berdinketa sorrten da zenbait puntu bozkatze ko orduan, eta berdinketa hori gainditzeko alkateak bere kaltzatezko bota erabili behar du. Hala egin zuen astelehenean; are gehiago, asteleheneko batzarrean gehiengo osoa behar zuen puntu bat bertan behera utzi zuten ez zutelako gehiengo osoa lortu.

ALKATEA: NEGOZIAZIOA BEHAR

Gauzak horrela, Inazio Lakuntza alkateak argi du aurrerantzean negoziazioa beharrezkoia izango duela: "Hemendik aurrera ikusiko dugu ea gauza garen adostasun puntualak lortzeko eta hori posible bada, gaur ikusi duguna (astelehenean) ez dugu berriro ikusiko. Bainak ez daukat hagaxka magikorik ziurtatzeko". La Caixaren proiektuarekin lotuta, berriz, hura egiteko Egitamu Orokorra aldatzeko behar duten gehiengo osoa dela-eta, zera argitu digu: "Gaur ez da gai-zerrendan azaldu; eta ez da azalduko iku si arte posible dela aurrera ateratzea eta horretarako gehiengo osoa dugula. Hasita gaude indar politiko batekin berba egiten baina oraingoz ez dugu lortu adostasunik. Dena dela espero dugu hemendik gutxira lortzea".

**PSE ETA EB NEGOZIATZEKO GERTU**

Oposizioan gehiengoa duen alderdi sozialistako bozeramaile Paco Gartzia ere argi du udalbatzarrak negoziatu egin beharko duela: "Alkateak ez du mezua ulertu: gure mezua da guztiokin berba egin behar duela gai guztiengainean, ez bakarrik berari 11 boto lortzea komeni zaionean. Dena dela esperantza beti izango dugu. (...) Gu zabalik gaude elkarrizketa eta "talanterako". Bainak hori bai, "herria egiteko" negoziatu egin beharko du".

EBk, berriz, bakarrik ikusi du alkatea: "Gaur ikusi duguna da alkatearen bakardadea; berak irabazitako, ez du-eta negoziatu inorekin. Hori da gertatu zena gobernu batzarrean. Han egiten zuten *manu militarieta* guk ezetza eman genion. Negoziatzeko ados gaude. Bainak bera ez badago prest eta dena inposaketaz egiten badu, halako egoerak sortuko dira". Gainera tu zigun udal gobernutik kanporatu arren, lanean segituko dute la: "Lan bera egin behar da bai gobernuan baita oposizioa ere."



OSOKO BILKURA EBko zinegotziei kendum egin dizkiete eskumenak; argazkian, J. A. Baz, J. Ugalde eta A. Rodriguez.

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**RIP**  
PUNKAREN 25 URTEKO HISTORIA BIZIA

DVD Erreportaje-elkarritzketak Kontzertuak Argazki galeria Bestelakoak  
CD Argitaragabeo 14 abesti

DVD-CD SALGA!

Salgai ohiko tokietan eta GOIENAKO egoitzetan



> POLITIKA

## Gaur (egubakoitza) ongi etorria egingo diete Gorka Aztiriari eta Gaizka Olabarriari

Martitzenean iritsi ziren Arrasatera Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrieta. Gaueko ordu txikietan iritsi ziren, baina egunean bertan herritar talde bat zain izan zituzten Arrasaten. Soto del Real espetxeen izan dira bi gazteak preso, 2005eko apirilaren 7an atxilotu zituztenetik. Orain, 18.000 euroko bermea ordaindu eta aske utzi dituzte, baldintzapeko askatasunean. Eta etorkizunean epaiketa izango dute, baina epaiketa hori noiz izango duten antzik ere ez dutela jakinarazi digu Askatasunak.

Bestalde, gaur, egubakoitza, ongi-otorri ekitaldia antolatu dute gazteen senide eta lagunek. 19:00etan egin dute hitzordua, Herriko Plazan. Horren ostean, aferia egingo dute.

> KULTURA

## Artxibo historikoko agiriak digitalizatu egingo dituzte

Arrasateko Udalaren aspaldiko asmoa da artxiboko agiriak digitalizatzea eta oraingo astean erabaki dute aurrera egitea. Besteak beste, herritarrek esku-ragarriago izatea da helburua. Gainera, agirien segurtasuna bermatu egingo da. Agiri asko daude udal artxiboa, hala, taldeka digitalizatuko dituzte.

> GIZARTEA

## Arrasateko erretiratuen elkarteenetan ezin izango dute tabakorik erre

Oraingo asteko gobernu batzarrak erabaki duenez, guztiz debekatuta izango dute erretzea Abaroa, Uribarri, Toki Argi eta Musakolako erretiratuen elkarteenetan. Hau da, Arrasateko erretiratuen elkarrengutian. Elkarrengutian tabernak ere badituzte eta hain justu ere, debeku hori izango da alpatutako egoitzetako taberneratarako, zentro sozialetarako, sukaldeetarako eta gainerako gela edo areto guzti tarako. Udalaren menpe dauden elkarteen direlako ezarriko diete debekua. Bestalde, erretiratuen elkarteenetan segituz, oraingo astean eguneratu egin dituzte elkarteenetako tabernetako prezioak. KPIren (Kontsumo Prezioen Indizea) arabera igoera ezarri dute eguztenaz gerotik (%3,7).

> HIRIGINTZA

## Arruena eta Mojategi arteko oinezkoen bidea itxi egingo dute, hiru asterako

Joan den astelehenean, hilak 30, itxi egin zuten Arruenako parkeko Mojategiraino doan oinezkoen ibilbidea. Hain zuzen ere, Deba ibaiaren ezkerraldean dagoen ibilbide zatia itxi dute, Arruenako aparkalekua eta Mojategi lotzen dituen egurrezko Zubia arteko zatia. Udaleko Zerbitzu Sailetik jakinarazi dugutenez, Mojategiko kiroledegia berria eraikitzea egiten dabiltsan obren eraginez itxi behar izan dute pasabide hori. Halaber, jakinarazi dugite Eroskiko aparkalekua bukatzen den lekuaren sartu ahal izango dela berriro oinezkoen ibilbidera. Aurreikusitakoaren arabera, joan den astelehenean hasita, datozen hiru asteotan izango dute itxita oinezkoendako pasabidearen zati hori.

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Erakusketa berria**

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82



ETBk oso ezagunak egin ditu Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak. Amaia antzokia hainbat alditan bete dute. GARI GARAIALDE

KULTURA EGITARAUZA > OTSAILEKO EKINTZAK AURKEZTU DITUZTE

# Umeendako hainbat ikuskizun, besteak beste, Amaia antzokian

Udaleko Kultura Sailak otsaileko programa aurkezu du astean. Denetariko ikuskizunak batu dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE Otsaila ekintzaz beteta dator. Hala jakinarazi digu Udaleko Kultura Sailak. Datozen egunean, ohiko film emanaldiez gain, bi erakusketa, antzezlan bat, Golden Apple Quartet taldearen ikuskizuna eta umeendako bi emanekin egingo dituzte Amaia Udal Antzokian.

PAILAZO, MAGO ETA BESTE Datozen asteetan umeak izango dira protagonista. Hilaren 20an, Txirri, Mirri eta Txiribitonen *Trikitra Trakitron* telebista saioa grabatuko dute ETBrako. Eta hilaren 28an, *Barrebira* helduko da Arrasatera. Horren bai-

tan, Txan magoak, Elvi sabeliztunak, eta Gari, Montxo eta Jose-Iontxo pailazoek hainbat ikuskizun egingo dituzte.

Umeak egileak ere badira. Hala erakutsiko digute elizetako katekesi taldeetakoek. Hilaren 14tik 17ra *Mundua zeuk margotu* erakusketa jarriko dute Monterronen, Hego eta Iparren aldeak irudikatzeko.

Erakusketekein jarraituta, Rafa Fernandez Zubiagak hain-

bat margolan erakusgai izango ditu Harresi aretoan, hilaren 16tik 28ra bitartean.

**MOTA ASKOTAKO FILMAK** Hileko asteburu eta eguen guztietan filmak emango dituzte Amaia Udal Antzokian. Woody Allenen, David Cronenberg eta Isabel Coixeten azkeneko lanak, *Los dos lados de la cama* komedia eta *Manuale d'amore* italiarra, besteak beste.

KONTUAN HARTZEKO

## Golden Apple Quartet eta 'Nasdovia Txejov'

Ume eta gaztetxoak kontuan hartu dituzten arren, helduek ere izango dute zer entzun eta ikusi otsailean. Datorren asteburuan, hilaren 12an hain zuzen ere, Vaiven producciones taldeak Anton Chejoven ipuineta oinarritutako *Nasdovia Chejov* antzezlanera egingo du.

Horiez gain, hilaren 26an, Aratusteen egitarauari hasiera emateko Golden Apple Quartet taldeak *Los Golden en serio* ikuskizuna egingo du. Donostiaroko laukote ezagunak flamenko, opera, zirkoa eta malabarismoa tartekatuko ditu Amaia Udal Antzokiko taula gainean. Laster jarriko dituzte emanaldi horien guztien sarrerak salgai.



**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealeku 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ERDI AROKO AZOKA > LEHIAKETA ZABALDU DUTE

# Erdi Aroko hirugarren azoka egiteko lehiaketa

Udalak asmoa dauka aurten ere Erdi Aroko Azoka antolatzeko. Horren harira, lehiaketa zabaldu du kontratazio prozedura egiteko

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Dagoeneko birritan antolatu du azoka Udalak. Horren harira, onartu egin du lehenengo urtean hainbat kritika izan zituztela, baina bigarren edizioan hobekuntza dezente egin zituztela. Hala nola, euskararen presentzia areagotu egin zuten eta herriko taldeen presentzia bermatzeko ere egin zituzten ahalgina, besteak beste. Bestalde, kanpoko jende asko era-kartzen duela azpimarratu dute.

Udaleko ordezkariek jakinara ziurra digitenez, aurtengo Erdi Aroko Azokan (maiatzean egingo dute) ere ahalegin bera egingo dute. Hain zuzen ere, asmoa da herritarrek lehentasuna iza-tea kanpoko aldean.

Lehenengo urtean Bartezionako Pegasus enpresak antolatu zuen azoka; bigarrenean, berriz, Elgoibarko AEBk. Aurtengo ardura zeinek hartuko duen erabakitzeko lehiaketa publikoa deitu berri du Udalak.



Argazkian, su-malabarismoa iazko edizioan.

JOSETXO ARANTZBAL

> PIANO KONTZERTUA

## Arrasateko Musika Eskolako piano taldeak bi emanaldi egingo ditu, Arrasaten eta Andoainen

Arrasateko Musika Eskolako piano taldea sasoian dago. Hain zuzen ere, hilaren 11n Andoainen egingo duten jaialdi erraldoi baten esku hartuko dute. Horren aurretek, beroketa edo entrenamendu moduan, gaurko, egubakoitza, beste kontzertu bat antolatu dute Arrasateko eskolan bertan. Gaurko emanaldia 18:30ean izango da, eta hara gerturatzent direnek aukera izango dute Andoainen eskainiko dituzten piezak entzuteko.

Taldearen arduradunak Mertxe Madinabeitia, Isabella Blezien eta Raquel Hernandez irakasleak dira. Horiez gain, beste hamabi piano jotzaile gaztek esku hartuko dute iragarritako bi emanaldi oihan.

<b>Metal aroztegia eta PVC</b> Leihoa eta itxierak  <b>Egur aroztegia</b> Leihoa Ateak Armaireu enpotratuak Armaireu-fronteak Mota guztietako zorua Lixatua eta bernizatua  <b>Osagarriak</b> Neurrira egindako alfonbrak Gortinak, mahaiaiak eta aulkiaiak
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

# Matrikula epea 2006-2007

Otsailaren 6tik 17ra

Haurtzaindegia - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - D.B.H



Mesedeetako Andra Maria

**IKASTETXEA**  
Tel.: 943 79 27 73  
**ARRASATE**



**Euskal Eskola  
Publikoaren alde  
Egin Kinu!!**

Matrikulazio epea zabalik  
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan  
**OTSAILAREN 6tik 17ra:**

**2 urteko umeen familientzat informazio bilerak:**

- Bedoñaben (San Andres Auzoa)  
otsailaren 6an, astelehenean, 18:00etan
- Musakolan, otsailaren 9an, ostegunean 18:00etan.

**a+e arrasate Herri Eskola**  
Gurasoen Elkartea Herri Eskola

**baikara**  
Gipuzkoako Ikasleen  
Gurasoen Federazioa

Jaime Epelde > Besaide Mendi Elkarteko presidente

# "Gazte Ekintzak gazteak Besaidera erakarri gura ditugu, eurak izango dira-eta errelebua"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Otsailean urtebete egingo dute Jaime Epelde eta zuzendaritzako gai-nontzeko lagunek Besaide Mendi Elkarteko zuzendaritzan. Besteak beste, aurten izango dituzten helburuen eta erronken gainean berba egiteko izan gara berarekin.

**Urtebete Arrasaten baziak gehien dituen elkartea zuzen-tzen.**

Bai, eta berehala igaro den urtea izan da, gainera. Ez da horren gogorra izan, nahiz eta egon diren momentu konkretu batzuk topera ibili garena. Baina, horrelako gauzak lasaitasunarekin hartu behar dira; inguruaren lantaldetan ona izanda, errazagoa da dena.

**Zein balorazio egiten duzue?**

Orokorrean balorazio positiboa egiten dugu, nahiz eta badiagun badagoela zer hobetu. Aka-so, Udalatxen egiten dabiltsan lanen kontra dagoen plataformarekin bat egin izanak ekarri ditu eztabaida handienak. Bazkideek bozkatu zuten hori. Hala, proiektua ondo ezagutu gura dugu, horren gainean ez delako informaziorik egin. Eta, aurrerago ere hartu ahal izango dira erabakiak.

**Zeintzuk izan dira zaitasun handienak?**

Seguruenik, burokrazia kontuetan jardun behar izatea. Lantalean badaude kontu horiek hobeto ezagutzen dituztenak, baina federazioarekin hartz emanak, agiriak egin beharrak...

Horrekin batera, jendearei eskatu gura nioke ulermen apur bat. Hemen gaudenak musu-truk gabiltza lanean; izan ere, batzuetan, "kobrato berehala egiten duzue!", moduko esaldiak entzun



Jaime Epelde, Besaideko hurrengo egitasmoen egutegiarenak. XABIER URTZELAI

**"Dudan lantaldea izango ez banu zoratu egingo nintzateke; ezinbesteko da lana banatzea"**

**"Irteerak ondo egitea da helburuetako bat, baina baita herritarrengana gerturatzea ere"**

behar izaten ditugulako. Hori bai, musu-truk ibiltzeak ez du esan gura gauzak ez direnik ondo egin behar".

**Zu zaitugu presidente, baina lantalde sendoa duzu alboan.**

Bai, eta eskerrak eurei, zoratu egingo nintzateke bestela. Lehenengo zuzendaritzan taldeko Haritz Arregik, Jon Ugartek eta Karmelo Bergaretxek gurekin jarraitzen dute; eurak dira bete-

ranoak, esperientziadunak. Eurekin batera, Mikel Loiti, Maite Aperribai eta Mikel Bergara dira fitxaketa berriak. Eta, idazkari lanak Aitziber Galdosek egiten ditu. Horiekin batera, baina, beste hainbat lagun daude irteerak antolatzeko izanak.

**Eman iezaguzu Besaideren gainerako hainbat datu.**

Ia bi mila baziak daude Besaide Mendi Elkartean, eta horietatik mila lagun baino gehiago daude federatuta; zenbateko oso garrantzitsua da hori. Horrekin batera, adibidez, azkeneko mendizaharko eskiko irteeran 35 lagun izan ziren, eta Formigalera egindako irteeran ia 50 lagun.

**Aurtengo egitasmoak aurkeztu berri dituzue; bada berritisunak?**

Berria ez bada ere, Gazte Ekintzak izeneko arloa indartu gura dugu, herriko gazteak izango direlako errelebua hartuko dutenak. Egia da, baina, egungo gazteek gero eta gauza gutxiago egiten dituztela musu-truk. Horrekin batera, mendiko bizikleta taldea sortu dugu, eta iraupen luzeko hainbat mendi irteera ere egingo ditugu. Gainontzeko irteerekin alderatuta, horiek dira berritasunak. Baina, baditugu beste egitasmo batzuk buruan.

**Zeintzuk dira Besaideren aur-tengo erronkak?**

Erronketako bat gertatutako irteera guztiak ondo egitea izango da, eta horrekin batera, sortu diren talde berriak indartzea. Horrekin batera, baina, jendearengana gerturatzeko ahalegindu behar gara. Besaiden ez gaitezela betikoak egin, aurpegi berriak eskertzekoak dira.

## futbitoa zaldibar

### EMAIZTAK

AC Surcos - Aurrera Bolie.....	6-3
Iluntz - Berdes Bremen .....	16-4
Pippol - Saukelu Scream .....	6-5
Lasagabaster - Betrayer.....	2-5
Fuxxion - Abokajarro .....	4-6
Irish Pub Dublin - TxoponbeixeK .....	5-2
Iriztu Taberna - THC .....	6-2
HLB 108 - Billy & The Cowboys .....	2-6
Arrano Taberna - Dribling .....	1-4
AT Celaya - Tomahawk.....	Deskantsua

### PARTIDUAK

Otsailak 4, zapatau	Epaileak
09:50 Aurrera Bol. - Abokajarro	Berdes Br.
11:00 Iriztu Tab. - Berdes Brem.	Aurrera B.
12:00 AT Celaya - Billy & The...	Iriztu Tab.
13:00 Dribling - Saukelu Scree.	AT Celaya
16:00 Pippol - Tomahawk	HLB 108
17:00 HLB 108 - TxoponbeixeK	Tomahawk
18:00 Arrano Tab. - THC	TxoponbeixeK

### Otsailak 5, domeka.

Otsailak 5, domeka.	Epaileak
10:50 Irish Pub - Aurrera Bol	Lasagabast.
12:00 Lasagabaster - Abokajarro	A.Bolie
13:00 Iluntz - Betrayer	Abokajarro

### SAILKAPENA

P J	
1. Betrayer..... 21 8	
2. Dribling ..... 21 8	
3. Iriztu Taberna .....	16 7
4. Saukelu Scream .....	15 8
5. Arrano Taberna..... 15 8	
6. Billy & The Cowboys..... 15 8	
7. Iluntz .....	13 8
8. Lasagabaster..... 13 7	
9. Fuxxion .....	13 8
10. Abokajarro .....	13 7
11. Pippol .....	13 8
12. AC Surcos..... 12 8	
13. Irish Pub Dublin .....	12 8
14. AT Celaya..... 9 7	
15. HLB 108 .....	9 8
16. TxoponbeixeK .....	6 8
17. Aurrera Bolie TMT..... 6 6	
18. Tomahawk..... 6 7	
19. Berdes Bremen..... 0 8	
20. THC..... 0 8	

## Jokalari bat tibia eta peronea hautsita

Aspaldian horrelako albiste baten berri eman behar izan ez badugu ere, ezingo dugu Zaldibarko areto futbol txapelketako txoko berri hau modu onean estreinatu.

Joan den astean, Irish Pub eta TxoponbeixeK taldean arteko norgehiagokan, azken talde horretako jokalari Igor Karkas-ek min hartu zuen hankan, tibia eta peronea hautsita. Talde horretan jokatzeaz gainera, Aramaikoa antolatzale lanetan ere badabil. Hala, antolatzale eta taldekieen partetik, animo, Karkas!!!

## Penalti jaurtiketetan, atezaina bere lekuau

Aurrekoan ezin izan genuen kontu horren gainean ezer idatzi, baina penalti jaurtiketetan atezainak behar baino gehiago aurreratzen direla kexatu dira asko.

Hala, antolatzaleek argi utzi gura dute penalti jaurtiketan atezainak ate azpian egin beharko duela. Gehienez, pauzo bat eman ahal izango dute aurrera, baina ez gehiago. Hori zaintzea epaileen ardura ere bada.

KIROLA > ERRUGBIA

# Elorrioko taldearen kontra, gogorago

Txapelketako norgehiagoka lehiatsuenetakoak jokatuko dute bihar Arrasatek eta Elorriok

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Bihar arratsaldean (16:00etan Garagartzan) Arrasate Errugbi taldeak gehien gozatzen duen kontrarioarekin neurutuko ditu indarrak, Elorrioren kontra. Gehien gozatu, eta gehien sufritu, bi talde horien artean dagoen lehia da-eta txapelketa horretako politenakoa. Oraingoan, baina, Arrasatekoek ez dute aban-

tailarak izango. Batetik, Elorriokoak indartsu dabiltsalako, eta bestetik, ARTko min hartutako jokalari mordoa dituelako. Hala, igoera fasera sailkatzeko erraztasunak izan dituzten arren, Arrasatekoek ez dute beste urte batzuetako indarra erakutsi; hirugarren postuan sailkatu dira.

### INDARRAK PARE-PAREAN

ARTko kide Kako-ren esanetan, Arrasatekoek orain hasiko dute benetako lehia: "Igoera fasean gure maila bera duten taldean kontra jokatuko dugu; irabazi ala galdu, alde txikia izango da". Besteak beste, Elorrio, Eibar, Kakalardo eta Zarautz izango dira kontrarioak.



ZUNBELTZ bilbotarren artean baloi bila.

GOIENKARIA

nire bidai hura

**Urtzi Axpe**

Laosera > 2005eko udan

## "Marrazki bizidunetako parajeak daude Laosen"

XABIER URTZELAI > ARRASATE  
Luang Namtha-n utzigenituen joan den astean Urtzi eta lagunak, atseden hartzen. Bizikletak konpondu ta, Muang Sing-eraino egin zuten joan-erorría, Txinarekin mugan dagoen lurraldera. Orduan ikusi zuten, lehenengo, jendea egoera nahiko eskasean.

"Luang Prabang-erako bidea hartu genuen handik. Eta Vang Vieng-era gero. Tartean, euri jasa galantak, hotza, sekulako parajeak eta zerua gainera eroriko zitzaina sentsazioa". Tarte batzuk bizikletan egin zituzten, beste batzuk tuktuk-ean, eta beste batzuk kanoa txikietan, errekan behera: "Materiala tuktu-



Urtzi Axpe.

kean sartu eta bi lagunendako kanoa txikietan sartu ginen. Ikus-tekoa zen errekaren ur jarioa zelakoa zen. Ia denok uretan amaitu genuen, kanoa iraulita".



Arrozarekin landatutako sailak, Luang Namthako ingurueta.

Vientiang-en utzi zioten bizikletan ibiltzeari, eta Bangkok-etik hegoaldean dauden irleteria joan ziren, Kochang-era, hain zuzen. Gorputzari astindu ederrak

emandu gustura hartu zuten hondartzako lasaitasuna, "paradisa", Urtziren esanetan. 25 egun ahaztezin igarota itzuli ziren Euskal Herrira.

bere ustez



Aitor Zabalo

## Neguaren alde on eta txarrak

T estu hau idazten dudan momentuan, aurtengo hirugarren elurteak astindu egin gaitu. Elurra baditu bere alde ederrak eta baita txarrak ere. Zuritasunaren edertasunak paisaia zoragarriak ikusteko aukera ematen digun bezala, non berotzeko aukera ez dute-nendako ere tranpa ikaragarrria bihurtzen da.

Oinezkoak ere negua sufritu egin behar du: hotzak, haizeak eta euriak deseroso egiten baitu egin beharreko ibilbidea. Bada neguan (edo

argazki zaharra

## Fagor ziklista taldea, 1969an

Txirrindularitza talde indartsua izan zuen Fagorek; erretiruan 1969ko denboraldiari aurre egin zioten ziklistak azaltzen dira, Igeldon egindako erretiruan. Goian, ezkerretik eskumara: Juan Silloniz, Ramon Mendiburu, Eusebio Velez, J. M. Errandonea, Luis Ocaña, Jesus Arantza-bal, Manuel Galera eta F. Gabikagogeaskoa.

Behean, J. M. Lopez Rodriguez, J. A. Momeñ, Mariano Diaz, Pedro Machain (Zuzendaria), L. P. Santamaria, Joaquin Galera eta Domingo Perurena.

Argazkia: Fagor.  
Testua: X.U.  
Urtea: 1969



## "Baldosa bat zapaldu eta zas! belaunetaraino bustitzen zaituen horietakoa"

euria egiten duenean batik bat) aztoratu egiten nauen zerbait, baldosa tranpa deitzen diodana, hain zuzen. Oinez lasai zabiltzala, baldosa bat zapaldu eta zas!! belaunetaraino bustitzen zaituen horietakoa. Abisatu gabe zipritzindu egiten zaitu eta momentuko orioigarri bat eramatzen duzu.

Orain arteko kontutan hartuta, ez pentsa neguari gorroto diodanik, kontrako baizik. Ondo dakit-eta zein beharrezko dugun urteko sasoi horrek ekartzen digun ura. Oraingo egunotan inguruko mendietan dugun elurra poliki-poliki urtzen doan heinean lurak eta urtegiak urez betetzen dira, udaberriko berdeak prestatzeko bidean.

**zenbaki DOAN**

Jaso doan Asteleheneko Goienkaria lau astez. Gustukoa baduzu Asteleheneko Goienkaria jasotzen jarraitu ahal izango duzu (2006. urteko abendura arte) 36 euro bakarrik ordainduta.



Eskaintzaz balitzeko:

**902 36 38 51**  
Astelehenean egubakoitzera,  
09:00etatik 18:30era.

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

HIRIGINTZA &gt; ARAU SUBSIDIARIOAK

# Zabalotegiko errepeidea ez dela beharrezkoa uste dute auzotarrek

Udalak uste du irtenbide egokiena dela herriaren ordenamendurako

Auzotarrek ez diote onurarik ikusten eta beste irtenbide batzuk aztertzeko eskatu dute

OIHANA ELORTZA &gt; BERGARA

Datozen urteetako arau subsidiarioak onartu gura ditu aurten Udalak. Lehen ideiak jendauurrean erakutsi ditu azken bi hilabete hauetan eta Zabalotegi kalean egin gura duen errepeidea zeresana ematen jarraitzen du.

Mariaren Lagundiko goiko aldean etxebizitzak egin gura dituztela ikusita, hango eta Boloko bizilagunei irtenbidea emanago dien errepeidea egitea pentsatu du Udalak, Zabalotegi kalean. Inguruak ikusita eta aztertuta hartu du erabaki hori Udalak, "gerora begira irtenbiderik egokiena horixe dela uste dugulako", esan du Josean Etxeberriak, Hiri-gintzako zinegotziak. "Gainera, Artekale oinezkoendako bakarrak izango da gero", gaineratu du. Barrenkalea ez da, momenzuz, oinezkoendako soilik izango.

**MASTERREKA KALEA ZABALDU**

Aralarren iritziz, mugikortasun azterketa bat egin beharko litzateke, ikusteko ea Bolu auzoak beste irtenbide bat behar duen edo ez. Emaitza baiezkoa balitz, beste aukera batzuk ere aztertu beharko liratekeela uste du; adibidez, Masterreka kalea zabaldu eta bi noranzkoko errepeide bihurtzea. Kale horren bi estuguneak honela konpon daitezkeela uste du Aralarrek: Santos etxetresna elektrikoen dendatik Nahikari taberna bitarteko etxebizitzak



ZABALOTEGI KALEA Bizilagunak errepeidearen aurkako sinadurak batzen ibili dira herrian eta Udalari entregatuko dizkiote euren iradokizunekin batera.

O.E.

**KONTUAN HARTZEKO****Errepidea nondik nora doan**

Mariaren Lagundiko ikastetxearen goiko aldean egingo dituzten etxebizitzei irtenbidea emateko, ikastetxearen zati bat aldatu egingo dute; gimnasioa, adibidez, tokiz mugituko dute. Errepideak zuzen jarraituko du horrela Zabalotegi kalean zehar, eta Mizpirualde egoitzaren aurretik pasatuko da. Bi kale horiek lotzeko, Zabalotegi 2 atariko etxebizitza bota egingo dute. Errepideak Errekalde jauregia dagoen parkea zeharkatuko du Bolura heldu arte. Zabalotegiko aparkalekuak galdu egingo dira, baina Bolun aparkalekuak egiteko asmoa du Udalak, auzoaren beheko aldean gerora eraikiko dituzten etxe blokeen azpian.

bota eta atzerago jaso, eta beharragoko palazioko estugunea, palazioa harriz harri atzerago mugitu. Masterrekako Julen Narbaitz

zak zail ikusten du zabaltzea, baina irtenbide bat izan daitekeela uste du, kaleak horrenbeste autoaren fluxua jasaten badu, behintzat.

**ZENBAKIA****371**

Datuen arabera, 2004. urtean 177 familia bizi ziren Zabalotegi kalean, 371 lagun guztira. Hala ere, proiektuak eurei ez ezik Bergarako erdigune osoari egiten diola kalte diote, aparkaleku falta ere egongo delako, besteak beste

Bergara Aurrera herri ekimenak astelehenean jakinaraziko ditu bere iradokizunak, epea amaitu ostean.

**ZABALOTEGIKO AUZOKOAK**

Zabalotegi auzoko bizilagunek diote errepeide hori "ez dela beharrezkoa". Uste dute atzean beste interes batzuk daudelako egin gura dutela, ez auzoari eta Bergarako erdiguneari onura ekartzeko. Gainera, proiektuaren inguru informazio falta ere salatu dute. Auzotarren esanetan, "ez dakigu beste aukera batzuk aztertu dituzten ere, hala nola: errepeidea goragotik egitea edo Zabalotegi kaleko noranzko bakarreko soilik izatea". Kezkatuta daude, gainera, horrenbeste autoren joan-eroriak euren eraikinetan eragingo duen kaltearekin, "oinarrri sendorik ez dutelako".

**elkar**

Orain, elkar txartel berriarekin:

- \* %5eko deskontua liburutzen
- \* %10eko deskontua euskalazko musikan
- \* Erosketa bakoitzarren puntuak zurgeanatzeko aukera
- \* Ikuusitzunezko eta jokoetan promozioak
- \* eta askoz gehiago...

Zatoz eta doan atera.

elkar megadenda Bergaran  
Ibargarai, 12 - Tel.: 943 764 050

BAIONA · BERGARA · BILBO · DONOSTIA  
GASTEIZ · IRUN · IRUÑEA · TOLOSA

**Poltsikoratu deskontu guztiak!**

**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

Elkarrekin ikasten dugu...  
ikas ezazu gurekin

2 Urteko umeen gurasoentzat  
aurkezpen bilera  
otsailaren 7an, asteartea,  
arratsaldeko 18:00etan



MATRIKULAZIO EPEA: Otsailaren 6tik 17ra

Mariaren Lagundia Ikastola  
Espaloia 1  
Tlf: 943 76 25 40-41  
Fax: 943 76 33 31  
e-mail: ikastola@mlagundia.net

Iñaki Moreno Ruiz de Egino > Margolaria eta eskultura egilea

# "Azken 34 urteotako lanen aukeraketa ekarri dut, figuratibotik forma geometrikoetara"

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Iñaki Moreno Ruiz de Egino donostiarak erakusketa jarri berri du Aroztegi aretoan. Martxoaren 5era arte egongo dira ikusgai bere lan grafiko eta eskulturak. Erakusketaren horretan, 1972tik gaur egunera arte egindako lanak batu ditu, figuratibotik espresionismora artekoak. Gaur egun forma geometrikoak lantzen ditu Ruiz de Eginok.

**Donostian jaio zinen, baina Hondarribian bizi zara. Non kokatzen duzu zure burua?**

Munduko hiritartzat daukat nire burua, anarkistek esaten duten moduan.

**Txikitak koadernoak marrazkiz betetzen zituen horietakoak zinen edo zaletasuna geroxeago etorri zitzazun?**

Egia esanda, txikitak ez nuen askorik margotzen. Bai, zaletasuna geroxeago etorri zitzaidan. Gaztetxotan elektronika zen nire zaletasun nagusia. Horren ostean, filosofia interesgarria iruditu zitzaidan; eta azkenean, Arte Ederrak ikastea erabaki nuen.

**Elektronika abiapuntu har-tuta, zer dela-eta erabaki ze-nuen Arte Ederrak egitea?**

Nire ustez, Arte Ederrak dira sorkuntza gehien landu daitekeen ikasketak, eta bizitza-filosofia ere badira. Horrek dena hartzen du, horregatik aukeratu nuen.

**Eta ikasketa horiek egiterakoan, gura zenuena aurkitu zenuen?**

Bai, Zaragozara jo behar izan nuen sasoi hartzan, Euskal Herrian ez zegoelako hori ikasteko aukerarik, baina oso esperientzia ona izan zen. Are gehiago, hainbat lagunekin *Forma* elkartea sortu genuen, gerora zeresan handia eman duena.

**Zer zara gehiago, eskultura egilea edo margolaria?**

Biak. Unibertsitatean eskultura ikasi nuen, baina horren ostean Sevillako Jose Ruesga-kin lan grafikoa ikasi nuen. Ruesga 1974an Espainiako grabatugile onenaren saria jaso zuen.



Ruiz de Eginoren erakusketa martxoaren 5era arte izango da zabalik.

EDU MENDIBIL

## ETXEBERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



## POL-POL

### Taberna

943 76 07 78. Bergara

MUSIKA

## Giulio Mercati organo jotzailea

I.B. > BERGARA

Bihar, zapatua, Italiako Giulio Mercati organo jotzaileak kontzertua egingo du San Pedro elizan. Emanaldia 20:00etan izango da, eta eki-taldia Azkoitia, Bergara eta Azpeitiko udalen artean antolatutako Organo Errmantikoaren Nazioarteko VII. Zikloko Kontzertuen barruan dago.

ESKOJA HANDIKO MUSIKARIA

Mercati Milango basilikako organo jotzaile eta abesbatzako zuzendarria da. Bergaran, Sigfrid Karg-Elert, Marco Enrico Bossi, Reubken eta Louis Vierne piezak joko ditu, besteak beste.

> JAIAK

### Asteburuan San Blas jaiak Murinondo auzoan

Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi, Murinondo auzoan San Blas jaiak ospatuko dituzte. Gaurko, egubakoitza, 11:00etan hasita, domeka arratsaldera arte denetatik izango da auzoan: auzo afaria, mus txapelketa, dantza ikuskizunak, aizkolaria eta harri jasotzaileak, besteak beste.

> BATZARRA

### Hilaren 14an Orfeoiaren urteko batzar orokorra

Hilaren 14an, martxitzena, Bergarako Orfeoiak urteko batzar orokorra egingo du Zabalotegiko aretoan. Besteak beste, zuzendaritzaz berri-tuko dute batzar horretan. Kideei eta bazi-kideei batzarrera joateko deia egin diente. Lehen deialdia 20:30etako egin dute eta bigarrena, berriz, 21:00etarako.

# SAN MARTIN ESKOLAN ATEAK ZABALIK

Otsailaren 4an 16:30etik 19:30era



San Martin Agirre  
herri eskola



## EGITARAUA

ARRATSALDEAN ZEHAR

- Erakusketak
- Tailerrak
- Informatika gela
- Zozketak, opariak

17:30ean:

- Sun magoa aretoan
- Erromeria EGUZKI taldearekin patioan

19:00etan:

- Santa Ageda bezperako koplak  
abestuko ditugu

Beste egun batean auzoetako  
gelak ezagutzea nahi  
badituzue deitu  
telefonoz eskolara



## MATRIKULAZIO EPEA OTSAILAREN 6TIK 17RA

IPINTZA INSTITUTUA  
Boni Laskurain 19 Tel: 943 76 31 42  
[www.goieskola.net/ipintzabhi](http://www.goieskola.net/ipintzabhi)




## IPINTZA INSTITUTUAN BILERA INFORMATIBOA

DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzenduta

Otsailaren 8an 18:30ean

Bilera amaitu ondoren ikastetxea bisitatzen  
gonbidatuta zaudete

Integratzailea • Euskalduna • Plurala • Dohaina



SAN MARTIN  
BERGARAKO

IPINTZA

IKASTETXE

M. ALTUNA

HHE-EPA

PUBLIKOAK

FUTBOLA > BERGARA-EIBARTARRAK AGORROSINEN

# Zumaiako harrapatzeko bidean, Eibartarrak hurrengo oztopo

Hirugarren postuan dago Jozu Zubiaren taldea, aurrera begira, eta zazpigarren lekuaren dagoen Eibartarrak izango dute bihar kontrario (16:15)

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergara futbol taldearenak hilabete garrantzitsua izango da otsaila, kontrario gogorren kontra neurtu beharko ditu-eta indarrak. Eta, bihar izango dute lehenengo azterketa (Agorrosinen, 16:15ean), Bergarako entrena-tzailearen esanetan, kale egin ezin dutena: "Preferente mailara talde bakarra igoko da, eta horrek esan gura du etxearen ezin dugula gehiago galdu. Lau talde inguru gabiltza aurrealdean, bai-

na atzetik datozen Mundarro eta Elgoibar ere ez nituzke alde batera utziko, oraindik liga luzea geratzen da-eta".

Horrekin batera, biharko kontrarioaren gainean ere egindu berba Josuk, ondo ezagutzen duen taldea da Eibarkoa: "Joan den urtetik oso gutxi aldatu den taldea da. Euren etxearen 2-0 irabazi ziguten. Norgehiagoka amaitzeko hamar minuturen faltan penaltia huts egin genuen, eta ondoren egin zizkigutene

eurek bi golak". Alde horretatik, errebantxa gogoarekin daude bergararrak: "Gogotsu jokatuko dugu, baina eurek ere daukaten guztia ematen dute; alde horretatik, futbolean egiten ahalegintzen den taldea da. Ondo zaintzen dute atzealdea; ezin da kontraeraso handirik egin, bost jokalari geratzen dira-eta atzean. Eta esanguratsua da, adibidez, lider dagoen Zumaiakori irabazi egin ziotela".

Josu Zubiak esandako moduan, oraingo hilabetean estutu behar du Bergarako taldeak. Atzeratutako norgehiagoka kon-tutan hartuta, lau partidu garan-tzitsu datozen orain, balio handiko 12 puntu jokoan.

## Nielka Ibarguren eta Peru Alustiza, nabarmenenak

Junior mailako Gipuzkoako Igeriketa Txapelketan, Bergarako zazpi ordezkarien artean Nielka Ibarguren eta Peru Alustiza nabarmendu ziren. Nielka bigarrena izan zen 50, 100 eta 200 metroko bular lasterketan. Peru Alustiza, berriz, lehena izan zen 200 metro estilotan, eta hirugarrena 100 metro tximeletan. Eurekin batera, azpimarratze-koia Irizar eta Alberdi anaiek Oviedoko Masterrean egindako lana. Alde horretatik, Kepa Irizarrek jardun zuen ondoen 100 metro estilotan (3), 100 metro tximeletan (2) eta 50 metro bizkarretan (3) podiumera igota.



GOIENKARIA

## MUJIIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITAREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

**UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**

## KONDE PANADEROKUA



Burdinatze 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## GIMNASIA ERRITMIKOA

### Bergarako 20 gimnasta Astigarragan

x.u. > BERGARA

Eskola arteko A mailako Gipuzkoako Txapelketako lehenengo fasea egingo dute asteburuan Astigarragan, eta Ariznoa elkarteko 20 gimnasta izango dira Bergara ordezkatzen.

Hala, domeka goizean alebin, infantil eta kadete mailako gimnastek hartuko dute esku, bai bakarka eta baita taldeka ere. Eta, arratsaldan lehiatuko dira gazte mailan dauden bi multzoetako gimnastak. Kategoria horretan izango dira Sarai Ruiz, Virginia Odriozola, Izargi Vega, Uxue Arregi eta Irati Arteaga.

## Iabegaraieta

### EMAIZTAK

Mongatxurrik - Fit Automotion.....	22-1
Teatekh - Pirulotarrak.....	8-2
Niu Tim - Txakurrak.....	10-1
A ze flaxa - Santana.....	8-4
Belengua - Irubide.....	5-4
SDTNT - Erratagain.....	3-4
Pub Irish - Kalaveras.....	4-12
Komando Pip. - Paco Cia.....	5-10
Niu Tim - Guri guri.....	5-5
Agirrebeña - Egurre.....	15-2
All Black's - Makanaki.....	10-2

### PARTIDUAK

Otsailak 6, domekan (barruan)	Epaileak
09:30 A ze flaxa - Erratagain	Fit Automoc.
10:30 Agirrebeña - Makanaki	Azeluxa
16:00 Belengua - Paco Cia	Pub Irish
17:00 SDTNT - Fit Automoc.	Kalaveras
18:00 Teatekh - Kalaveras	Pirulotarrak
19:00 Mongatxurrik - Pirulotarrak	Agirreb.
20:00 Pub Irish - Santana Rivers	Mongatx.

Otsailak 6, domeka (kanpoan)	Epaileak
16:00 Komando P. - Egurre	All Black's
17:00 All Black's - Txakurrak	Egurre

### SAILKAPENA

P J
1. All Black's..... 36 12
2. Guri Guri ..... 31 12
3. Teatekh ..... 28 12
4. Kalaveras..... 27 12
5. Agirrebeña ..... 27 12
6. Erratagain..... 27 12
7. Niu Tim ..... 26 13
8. A ze flaxa..... 22 12
9. Mongatxurrik..... 22 12
10. Makanaki..... 21 12
11. Pirulotarrak..... 18 11
12. Pub Irish ..... 16 12
13. Egurre ..... 15 12
14. Belengua Taberna..... 13 12
15. Santana River's..... 12 12
16. Paco Cia..... 12 12
17. Komando piperrak .. 9 12
18. SDTNT ..... 8 13
19. Irubide Jatetxea .. 7 12
20. Fit Automotion .. 3 12
21. Txakurrak..... 3 12

## Fit Automotion da gol gehien jaso duen taldea

Talde horretako jokalariek begiratua bota beharko diote defentsan egiten dabiltsan lanari, 12 partidutan 104 gol jaso dituzte-eta. Eta, joan den astean Mongatxurrik taldeak emandako zaparrada da horren erakusle (22-2); ez zuten errukirik izan.

Txakurrak taldea dago sailkapenean atzerago. Horiek ere gol zaparrada ederrak jaso dituzte (102), eta gainera, atera begira Fit-ekoak baino trebezia txikiagoa dute. Animo bi talde horiei, kontrarioa bihamarunarekin harrapatzean egon daiteke gakoa. Domekan jokatuta ez da gaitza.

## GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

## mingainari tiraka

Aitor Arantzabal > Santa Ageda eskean koplaria

# “Prestatutako koplak kantatuko ditugu”

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Otsailaren 4a da bihar, Santa Ageda bezpera. Ohi-tura zaharrak berritzu, kantuan aterako dira herrian hainbat talde. Aitor Arantzabal da koplak kantuan ibiliko den horietako bat.

### Santa Ageda bezpera dugu...

Hala da, bai, eta aurten aterako da gure taldea lehen aldiz. Ikastetxeetakoak, Alai taldea eta presoen aldekoak ere ibiliko dira.

### Zenbat lagunek jardungo duzue kantuan?

Trikitixa ikasleak, hauen gurasoak, bertso eskolakoak eta beste zenbait lagun izango gara, 40 inguru.

### Herri guztian ibiltzeeko asmoa duzue?

Erdialdean ibiliko gara.

### Zaindu duzue eztarria kanturako?

Ez. Gaur, egubakoitza, entsegua egingo dugu, baina ez gara askorik prestatu.

### Bertsoan jakin behar da Santa Ageda eskean irteteko?

Ez. Koplak aurrez prestatu ditugu, gero



beharbada norbait animatuko da koplak bat-batean botatzera.

### Makila eramango duzue eskuan. Bainan inork merezi du makilakadarik?

Agintean daudenek; promesak egin eta betetzen ez dituzten horiek.

### Santa Agedaren omenez abestuko duzue. Beste zeren alde kantatuko zenuke?

Euskararen eta kulturaren alde.

### Jasotako diruarekin zer egingo duzue?

Oraindik ez dugu erabaki.

### Eskean joango zaretenez... Bergarari zer eskatuko zenioke?

Poltsara dirua botatzeko eskatzeaz gain, herritarrei esango nieke jardueretan inplikatzeko.

### Eskean joateko poltsadunak lotsagabea izan behar du?

Bai, dudarik gabe, eta horrelakoren bat ipiniko dugu diru eskean.

## txutxu-mutxua



GOIENKARIA

### Aranzadi ikastolako neska-mutilak eskiatzen izan dira Panticosan

Herrian elurra egin arren, hauendako ez da nahiko izan dirudienez. Kanpora egin dute bidaia Aranzadi ikastolako DBHko 2. mailako ikasle eta irakasle batzuek. Elurretan izan dira; Jacan lo egin dute eta eskiatu, berriz, Panticosako eski-estazioan. Lau egun pasa dituzte ber-

tan eta eguraldi aparta izan dutela esan digute, egunero oskarbi eduki dute zerua. Guztiek ikasi dute gutxienez eski gainean tente egoten, eta eroriko dezentze izan diren arren ez da inor lesionatu. Gainera, euren arteko giroa ere oso ona izan dela azpimarratu dute.

## bere ustez



Aitziber Azkondo

### Bergarako kulturaren bila sarean

Inernetes joan, Google zabaldu eta bila itzazu Kultura Bergaran hitzak. Zer agertzen zaizu? Paper apurtuen gaua deritzon dokumentua; Bergaran Euskara Biziberritzeko Planaren diagnozia, zabaldu ezin daitekeen dokumentua; eta zabaldu ezin daitezkeen beste dokumentu batzuen ostean, eta gutxi balitz, Bizar Zuri eta Errege Magoak Bergaran titulua duen Udaleko orrian dagoen albistea. Kultura ekintza aukera zabala, gaurkotua eta aberasgarria oso, ezta?

### "Giroak alde guztietan du eragina eta beharrezko da herrian bizia mantentzeko"

Berrigara-ko pasa den asteko inkestari so eginda. Galdera: Non pasatzen dituzue neguko asteburu arratsaldeak? (Protagonistak umeak). Erantzuna: lagunen etxean euria eta hotza bada, edo seminarioan. Aisialdirako eskaintza aproposa eta zabala iruditzen?

Joan zen asteko Mikelen iritzi artikuluari eutsiz, Udalak kantitatea begiratzeari esker herri kalitatea behera. Alegia, kultur ekitaldi gutxiago, jende gutxiago kalean eta ondorioz, herri giro eskasa. Giroak, mugimendua, alde guztietan du eragina eta beharrezko da herrian bizia mantentzeko. Dena elkar lotuta doa, katea balitz. Behin eta berriz kalean errepikatzen den gaia da, ez dut asmatu. Gainera begi bistana da. Herria erortzen ari da?

**CAMACHO**

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**GURIA**  
*Taberna*

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**BEHEKO TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

**ANGIOZAR**  
Tel.: 943 76 55 74



**ORMAZABAL**  
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurritua  
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma  
Etxeetara fisioterapia  
Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bulgoa  
Labegarieta ind. BERGARA  
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08  
ormazabalfisioterapia@yahoo.es

**KURTZEBARRI ESKOLA**  
2-12 urte bitartekoentzat



**KURTZEBARRI BHI**  
12-16 urte bitartekoentzat

**MATRIKULA EPEA ZABALIK:**  
**otsailaren 6tik 17ra arte, egunero, 18:00ak arte**



Telefonoa / Faxa: 943 79 00 49  
e-maila: kurtzebarrieskola@euskalnet.net

- Ikasten ikasteko,
  - Egiten ikasteko,
  - Elkarrekin bizitzen ikasteko,
  - Norbera izaten ikasteko,
- Zatoz Gurera!**

... Euskara eta Euskal kulturaren jabekuntza eta bizipena bide, Mundura begira.



Telefonoa / Faxa: 943 79 57 40  
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Debagoineneko Euskal Eskola Publikoa



Gipuzkoako Ikerleen Gurasoen Federazioa



## 2006-2007 ikasturtea izen ematea: **otsailaren 6tik 17ra**

**Ordutegia:** 09:00etik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



**TALDE EGOKITUAK**

- 0 eta 3 urterako haurrak talde egokituetan

**ORDUTEGI ZABALA**

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

**JANGELA ZERBITZUAK**

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

**EGUTEGI ZABALA**

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonaetan, Pazko astean eta uztailaren 23ra arte zabalik.

**LOGELA**



**Txiki txikitatik  
jolasten heziz**

**BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77**



ENTSEGUETAN hogeitako mutil inguru ibili dira; gaur, azken entsegu eguna dute eta domekan, Santa Ageda eguna, ikasitako erakusteko ordua izango da. MIRARI ALTUBE

KULTURA > SANTA AGEDA MUTILAK

## Kintoak gertu Santa eskean atera eta dantzan egiteko

Soldadutzara joan beharko luketen mutilak elkartzen dira Santa Ageda ospatzeko

Gaur egindo dute azken entsegua eta domekan, 19:00etan, erakustaldia plazan

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta  
Bihar, zapatua, Santa Ageda bezpera ospatzeko dugu eta etzi, domeka, Santa Ageda eguna. Usadiorik ezagunenetako da Aretxabaletan, eta zaharrenetik ere ez dakite noiz duen jatorria.

**1987AN JAIOTAKO 29 MUTIL**  
Soldadutzara joan beharko luketen mutilak elkartzen dira Santa Agedaren inguruko jaia ospatzeko. Aurten, 1987an jaiotakoak dira, 29 inguru. Dagoeneko ez daukate soldadutzara joateko obligaziorik, baina usadioa ez dute ahaztu gura eta aurten ere etorriko zaizkigu etxafuego hotsekin kantuan eta eskean.

Bihar, otsailak 4, baserriz baserri ibiliko dira, herriko bederatzi auzoetatik pasatuta. Praka urdinak eta blusa jantziko dituzte, eta txapel beltza buruan dute-

la baserrietako jakia eta dirua jasoko dituzte. Domekan, ostera, kalean aurkituko ditugu, goitik behera zuriz jantzita eta gerriko eta txapel gorriarekin. Santa Age-

KONTUAN HARTZEKO

### Hainbat mutilek ez du dantzan egingo

1987an jaiotako mutilek jardungo dute aurten Santa Ageda koplak kantuan, batzen eta ondoren dantzan. Aurten 29 inguru dira, baina horietako batzuek Herriko Plazan dantzan ez egitea erabaki dute, hainbat arrazoi tarteko. Hala, 21 inguru geratu dira, gutxitxo antza. Ohitura da aurreko urteko gazteena, dantzan zela egin erakusteko, eta hurrengo urteko nagusiena, dantza ikasi eta hurrengo urtean irakasteko, Santa Ageda mutil ateratzea. Aurten, baina, bana izan beharrean hiruna hautatu dituzte mutilen kopurua txukunagoa izan dadin.

DATUA  
**710**  
Frantziako dago atxilotuta Zuhaitz Errasti aretxabaletarra. Orain arte Poitiersen egon da, baina joan zen asteburuan aldatu egin zuten eta 300 kilometro urrunago eraman. Moulins-Yzeure esperean dago, 710 kilometrora.

ESALDIA

"Bernardo Atxaga euskararen sortzaile eta erabiltzaile den neurrian, gaurko beharrei erantzuna bilatzen saiatuko da erakunde barrutik"

Miriam Urkia > Euskaltzain urgazlea

da eguneko koplak eskainiko dizigute eta atarteaz atarte dirua batzera pasatuko dira.

Kantuan egin eta dirua batu bakarrik ez, jai giroa izango dute egunotan eta dantzari ere egingo diote tartea. Santa Ageda egunean, domekan, hasi eta Aratus-te domekara bitartean domeke-ro egingo dute dantzan Herriko Plazan, lau aldiz aurten. 19:00etan izango da ekitaldia, eta azken egunetako entseguetan ikasitako erakutsi gurako dute herri-tarren aurrean.

**GIZON DANTZAN OINARRITUA**  
Mende hasieran dagoeneko elkar-tzen ziren herriko zein auzoeta-ko mutilak Santa Ageda eguna ospatzeko. 100 urte baino gehiago pasatu dira ordutik eta usa-dioak aldaketatxo batzuk izan arren bere horretan mantendu ditu sustraiak.

Dantzak garrantzi handia hartzen du jaian, eta gizon dantzan oinarritua dago Aretxabaletan egiten dutena. Desafioarekin hasten dira beti, eta lehen eta azken mutilek egiten dute elkarren artean. Ondoren, banakoa egingo dute dantzan mutil guztiak banan-banan, eta guztiak pasatu ostein, neskak aterako dituzte. Agurra biri bakarrik egiten diote, eta gainerakoek, arin-arina eta fandangoa egingo dituzte dantzan mutilekin batera.

Jauregi  
Okindegia

Otalora 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABAleta

TABERNA  
TARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAleta • TEL. 943 79 32 34

> KONSUMOA  
**Kontsumitzaleek Eibarko bulegora jo behar dute**

Informazioa gura duten Deba-goieneko kontsumitzaleek Eibarrera jo behar dute Aretxabaletako bulegoa itxi ostean. Errebal kaleko 13. zenbakian dago Eibarko bulegoa; hona telefono zenbakia: 943 20 38 43; eta helbide elektronikoa: [omic-ebar@kontsumo.net](mailto:omic-ebar@kontsumo.net).

> KULTURA  
**Tabernen arteko mozorro lehiaketa, Loramendik deituta**

Loramendi EEk tabernen arteko mozorro lehiaketa antolatu du Aratuste-domekarako. Euskal ofizio zaharrak hautatu dute mozorrotzeko gai antolatzaleek, eta tabernen esku utzi dute zela mozorroto. Izena emateko epea zabalik dago oraindik.

**di-da batean**

Mirari Altube

Santa Ageda neskak noiz?

Dagoeneko entzuten ditut etxfuego hotsak. Santa Ageda mutilen etorrera iragartzen duten hotsak dira, eta gogaitu artean entzungo ditugu Aratuste domekara bitartean. Bai, Santa Ageda mutilak, eta neskak noiz? Usadioa asko aldatu da azken urteotan, izan ere mutilok dagoeneko ez dira joaten soldadutzara. Hortaz, zergatik ez onartu neskak? Badira zortzi urte Txino dantza egiten dutela, eta ez da ezer gertatu. Trikitixa joten atera izan dira mutilekin, baina orain kopla eta dantzak ikasi eta mutilen artean beste bat gehiago izan gura badute, zer? Nesken esku dago eskaera egitea.

**ANIMALIAK > TXAKUR ARRISKUTSUAK**

# Txakur arriskutsuen erroldak egiten hasi dira udaltzainak

Baimena behar dutela gogoraraziko diente udaltzainek txakur arriskutsuen jabeei lehenengo egunetan, eta bete ezean, isunak jarriko dizkiete

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**

Udaltzainak aste honetan bertan hasi dira txakur arriskutsuak dituzten jabeei zein betebehar dituzten gogorarazten. Eta hori egindakoan, isunak jartzea izango da hurrengo pausoa.

**ISUNAK ETORRIKO DIRA**

2004ko irailean kaleratu zuen Udalak animalien gaineko ordenantza. Hala, urte eta erdi pasatu ostean oharra bidaliko dute etxe guztietara txakurren jabeeik, eta batez ere txakur arriskutsuen jabeeik, zein betebehar dituzten gogorarazteko. Udaltzainak ere hasi dira txakurren jabeei ohar horien berri ematen,

eta hurrengo asteotan isunak jarriko dira. Hala, txakurra lotu barik paseatzear edo bere kasa bakarrik ibiltzeak 300 euro-tik gorako isuna jasoko du.

**TXAKUR ARRISKUTSUEN ERROLDA**

Aretxabaletan 600 txakur inguru daude, Diputazioan jasota dituzten datuen arabera. Txakur arriskutsuen gaineko daturik, osteria, ez daukate. Hori horrela, erroldak egiten hasi dira eta txakur horien jabeeik Udaletik pasatu beharko dute datuak emateko. Ez hori bakarrik, txakur arriskutsu horiek eduki eta paseatzera ateratzeko baimena behar dute, eta Udalean emango diente.



Arriskutsutzat duten txakurra.

Txakurra jaio eta hilabete pasatu aurretik identifikatu eta erroldatu behar da. Identifikazioa mikrotxiparen bitartez egiten dute, eta albaitaria jartzen die mikrotxipa. Gainera, emandako datuetan aldaketarik izan bada, txakurra saldu, esaterako, horien berri eman behar zaio Animaliak Identifikatzeko Erregistro Nagusiari. Txakur arriskutsuak dituztenek, bestalde, derrigorrez baimena eraman behar dute aldean. Gainera, txakur guztiak eraman behar dira lotuta leku publikoetan eta arriskutsuak baita muturrekoarekin ere.

**TXAKUR KAKAK**

Jabeek dagoeneko badakite, ondo jakin ere, lorategi zein herritarra pasatu behar diren edozein tokian kaka eginez gero txakurrek, jaso egin behar dituztela, eta Udalak poltsak banatzen dituela jasotzeko. Udaltzainek jasotzen ez dituzten horiei isunak jarriko dizkiete, baina gogorarazi gura dute erantzukizuna jabean dela, eta gainerako herritarrok ere hori gogoraraztea egokia izango litzatekeela.

**argazki zaharra**

## Meza entzun eta gero kantuan

Mende hasieran dagoeneko ospatzen zuten Santa Ageda inguruko jaia. Otsailaren 5ean, 06:30eko meza entzun ostean joaten ziren aterik ate kantuan eta eskean. Dantzan ere egiten zuten plazan, eta neska bila etxez etxe joaten ziren.

Bainuetxean atera zuten argazkia 1906ko mutilek. Behean daude: evezaguna, Julian Olabe, Bittor Antxia, Toribio Elkoro, Jose Otxoa Gerra eta Laureano Garai. Goian: Seberiano Altube, Jesus Galdos, Juan Jose Garciaetxabe, Jose Zubia eta Timoteo Ezpeleta.

Argazkia: Aretxagazeta  
Informazioa: Aretxagazeta  
Urtea: 1906



**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

**SANER**

**ITURGINTZA**

Selaikua baserria  
Apotzaga auzoa  
ESKORIATZA  
605 71 66 92 / 943 71 52 51

**PAGALDAI**  
*Opari denda*  
*Burrindegia*

Durana 33 € Aretxabaleta  
943 79 10 14



Minutu bat egunean,  
24 orduko lifting efektua sortzeko

> KIROLA

## Gaur aurkeztuko dute Ametzueta izena duen Realaren peña

Gaur, egubakoitz, 19:00ak inguruan aurkeztuko dute herrian sortu den Realaren peña edo lagun taldea: Ametzueta taldea. Orly tabernan izango da ekitaldia, eta Realeko zuzendaritza batzordeko kideak eta hainbat jokalari hurreratuko dira. Ametzueta 140 baziak inguru ditu.

> GAZTEAK

## Gazteleku lan egiteko hezitzalea hartu gura dute

Atxagazte gaztelekuaren hezitzalea behar dute. Orain arte bi lagun ibili dira gaztekin, baina hemendik aurrera hiruren artean banatu gura dituzte lanak. Aisilan enpresak kontratatzen ditu hezitzaleak, eta bertara deitu behar da argibideak eskatu eta izena emateko: 946 73 06 52.

> IKASTAROAK

## Ikastaroak antolatu ditu institutuak langileendako

Aretxabaletako institutuak hainbat ikastaro antolatu ditu langileendako: fabrikazio elektromekanikoa, metaleraikuntza, tresneria elektronikoa eta beste batzuk. Dirulaguntzak dituzten ikastaroak dira, gainera. Argibideak eskatu eta izena emateko institutura jo: 943 79 79 00.

> GAZTEAK

## Gaztelekuak egingo duen eski irteerara joateko izenematea

Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuek eski irteera antolatu dute elkarrekin Luz Arditenera. Otsailaren 11n izango da irteera, eta egunean bertan egingo dute joan-etorria. 40 euro ordaindu beharko dituzte gazteek, eta izena emateko epea domekan, otsailak 5, itxiko dute.

> KIROLA

## Gaur aurkeztuko dute Ametzueta izena duen Realaren peña

Gaur, egubakoitz, 19:00ak inguruan aurkeztuko dute herrian sortu den Realaren peña edo lagun taldea: Ametzueta taldea. Orly tabernan izango da ekitaldia, eta Realeko zuzendaritza batzordeko kideak eta hainbat jokalari hurreratuko dira. Ametzueta 140 baziak inguru ditu.

bote prontoan

Beñat Zamalloa > 'K-23' koadrilako kidea

## "Kulturan jendea behar da lanerako gogoarekin eta imajinazioarekin, eskaintza hobetzen joateko"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Saltsa askotako perrexila da Beñat, eta kamera aurrean zein atzean, Gazte Ekimenean zein K-23 koadrilan aurkituko dugu lanean. Laguntza eske datozeni ezetzasaten ez dakiela aitortu digu.

Zer ikasten zabiltza?

Ikus-entzunezko ikasketak egiten nabil Eskoriatzan, komunikatzaileak sortzea du helburu.

Baina dagoeneko bazabiltza kamera aldean hartuta, ez?

Bai, zertxobait egiten banabil. Atzegiko kideak film laburra egiten dabilta, eta nire asmoa aktore lanak zela egin erakustea zen. Kamera on bat utzi zidaten eta horrekin agertu nintzenean lanean hasteko esan zidaten. Egia esateko, lehenengo aldiz hartu nuen kamera, eta hain zuzen, uste dut horixe falta zaiola laburmetrairi profesional baten ukitura.

Dena dela, orain arte gehiago ibili zara kamera aurrean, ez?

Bai, eta erosoago sentitzen naiz. Antzerki ikastaroa egin nuen orain dela hiru urte, eta handik Trilkimailu taldea sortu genuen. Lau edo bost antzezen egin genituen. Orain atsedenaldian dago taldea, baina etorriko da, ez dakit bera edo beste talde bat, baina zerbait izango da. Antzerkiaren munduan jarraitu gurako nuke; hala ere, aktore lanak baino gurago dut idaztea.

Gidoilaria zara?

Bai, egindako lanen gidoia neuk idatzi ditut lagun batekin batera, eta lan polita da. Presio puntuak ere badu, atsegina izango duten edo ez zalantza.

Eta bakarrizketa ere egin zenuen Hiruatzxen jaialdian...

Bai, hala da. Eskatu egin zidaten, eta ezetz esaten ez dakidanez, egin nuen. Horregatik esan izan dut *express antzerkia* egiten dugula; talde edo lagunek eskatu eta Trilkimailuk edo neuk bakarrik egin.

Zelabaixota koadrilako kidea ere bazara, ez?



Beñat Zamalloa.

M.A.

**'Zelabaixota' koadrilakoak txiki geratuko dira gure aurrean Aratusteetan"**

**"Kultura etxea egin bai, baina ez du arrakastarik izango aurretik ez bada ohiturarik sortzen"**

Ez! Horrelakorik... K-23 koadrilakoa naiz. Bi koadrilen artean adin ezberdintasun handia dago, baina pike sanoa sortu zen eta hainbat ekitaldi egin ditugu batera; desafioa eta Untzillara igoera bizikletan, esaterako.

**Aratusteetan koadrila bat zein bestea mozorrotuko zarete...**

Bai, badaukagu zerbait egiteko asmoa, eta Zelabaixotakoak txiki geratuko dira gure aurrean, seguru.

**Aurtengo Aratusteak beste era batera antolatu gura izan ditu zue hainbat koadrilak, ez?**

Bai, zappi izan gara. Iruditzen zitzagun zerbait berria behar genuela Aratuste-domekan, eguerditik arratsaldera bitartean ez zegoelako ezer eta jendea noraezean ibiltzen zelako. Proposamen batzuk egin genizkion Udalari eta herri bazkaria onartu ziguten. Gainerakoak ezetzen geratu ziren.

**Zein izan da arazoa?**

Nik uste dut gure herrian ez dagoela kulturaren ikuspegirik, eta bizi kalitatea ere ez dugu zaintzen kultura aldetik. Kultura etxea egiten dabilta, bai, baina ez du arrakastarik izango aurretik ez badugu kultura kontsumitzeo ohiturarik sortzen. Gainera, kulturan jendea behar da lanerako gogoarekin eta imajinazio apur batekin, urtetik urteara eskaintza hobetzen joateko.

**Gazte Ekimeneko kide zara.**

Bai, nahiz eta aspaldi ez agertu. Talde polita da, baina jendea falta dela uste dut. Ikastaro batzuk antolatu genituen iaz, eta orain, urteko plana egin gura dugu, zer antolatu erabaki eta hobetu egin daitekeena zuzentzeko.

bere ustez



Anjel Bergaretxe

Ongi etorri gaur datorren GOIENKARIari

**G**aur ongietorria ematen hasi behar. GOIENKARIari ongietorria hain justu. Izan ere, esku artean duzuen alea guztiz eraldauta omen dago. Omen diot, idazten ari naizenean ez dut oraindik ikusi eta, jakina.

Herri aldizkarietatik GOIENKARIArako jauziak gauza on asko ekarri zizkigun. Besteak beste, elkarlanari esker, kolokan egon zitezkeen proiektuak sendotu egin ziren, eta eskualdea apur bat hobeto ezagutzeko aukera beeskaini zugun.

**"Elkarlanari esker kolokan egon zitezkeen proiektuak sendotu egin ziren"**

Hala ere, bidean zerbait galdu dugula uste dut. Herri aldizkariek euskarazko prentsaren bezero "natural" ez zen hainbat irakurle erakarri zituzten. Notizien hurbilasunak ("Joño, Joxepa agertzen don eta. Ze esaten etejon"; "Hara bestia, gero eta txorrada haundi xauak esaten jittuk honek be") ezkai zirudien jende asko eraman zuen euskaraz irakurtzen. Herriei eskaintzen zaien tokien gutxitzeak, aldiz, hurbiltasun horren aurka doan heinean ez ote ditu irakurle batzuk uxatuko? Ez bedi hala!

Beraz, "globalizazio" prozesu honetan euren zuztarrak ez ditzatela ahaztu eskatuko nieke GOIENKARIko arduradunei, etapa berri honeitan zorterik onena opatzeaz batera.

# ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Obra eta projektuen kudeaketa integrala

Zuzendaria:  
Lyonel Arquero

Dekorazioa:  
Soraya Arquero

**CONSTRULAN S.L.**

**K21**  
KALITATEAK  
Ertzaintza Herrialdeko 25. 2050043  
2 M x 11 m

Basabe poligonoa 4, EQ-11 ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 01 51 / 608 77 28 67 / 679 45 57 64  
construlan@euskalnet.net www.construlansl.com



GERO eta kinto gutxiago daude, baina gazteek gogoz heltzen diote aspaldiko ohiturari.

GOIENKARIA

TRADIZIOAK &gt; KINTOAK

## Santa eskearen tradizioari eutsi

17 urteko eskoriatzarrek, 18 urteko batzuen laguntzarekin, dantza egingo dute bihar plazan

Bihar, zapatua, elizateetan ibiliko dira Santa eskean; eta etzi, domeka, hirigunean bertan

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Eskoriatzan Santa Ageda jaian urteko kintoek protagonismo handia hartzen dute. Bezperan eta baita egunean bertan ere irten dira Santa eskean. Gaur, egubakoitza, gazteak goizeko lehe-

nengo orduetatik ibiliko dira baserriz baserri. Aranburu bala Trankil-ek batutako kopla abestu, eta baserriean dirua eta jana emango dizkiete. Bihar, Santa Ageda bezperan, bakeroekin jantzita ibiliko dira gazteak.

Etzi, domeka, berriz, Santa Ageda eguna izanda, hirigunean ibiliko dira kopla abesten. Horretarako, zuriz jantziko dira, txapela, gerriko eta abarken zinta gorriarekin, bizkaitar erara. Arropa horiek janzteko ohitura Mario Padillak berreskuratu zuen.

### DANTZA EGINGO DUTE PLAZAN

Egun osoan Santa eskean ibili ondoren, 19:00etan herriko plazan batuko dira protagonistak. Aurrekua, agurra, fandangoa, arin-arina eta beste dantzatuko

dituzte, eta txapel beltzek (kin-toetatik nagusiena eta gazteena) urte bereko neskak plazara dantzara aterako dituzte. Horren ostean, neskak eta mutilak, guztia bat era afaltzera joango dira. Tradizioaren arabera, jatetxe edo tabernetan prestatuko dituzte etxe eta baserriean batutako janak, baina gaur egungo praktika bestelakoa da.

Plazan egin beharreko dantzak ikasteko, urtero kintoek lehengo dantza taldekoengana jotzen dute haien irakats diezaieten. Gabonetatik otsailera

bitartean hainbat entsegu egiten dituzte pilotalekuaren azpian, herriaren aurrean behar den moduan dantza egiteko.

### 17 URTEKOET OSPATZEN DUTE

Eskoriatzako Santa Ageda jaieren bitxikerietako bat da kintoak 17 urtekoak izaten direla. Gainontzeko herriean, berriz, 18 urtekoek ospatzenten dute.

Bestalde, aurten 17 urte bete dituzten zazpi lagun bakarrik daudenez, iaz kinto izan zirenek lagunduko dituzte Santa eskean eta plazan dantzan.

UDALA &gt; TXAKURREN GAINeko LEGEDIA

## Otsailean erabakiko dute txakurren gaineko legedia

Txakurrak udalerrian lotuta ibiltzeko araua onartu aurretik, gaia hobeto aztertu gura dute Udaleko taldeek

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Dagoeneko bigarren aldia da Udaleko osoko bilkuraren txakurren gaineko legedia aztertu eta eztabaidatzetan dutena. Are gehiago, oraindik ez dute horren gaineko erabaki zehatzik hartu. Otsaileko osoko bilkuran hartu behar-

ko dute azken erabakia. Hala jakinarazi digute Udaleko ordezkariek.

Udalekoen esanetan, Aretxabaletako araua hartu zuten eredu moduan, baina "Jaurlaritzak beste bat onartu berri du, aurreratuagoa dagoena", argitu zuten.

Hain zuzen ere, gobernu batzarrak prestatutako arauan Udalak debekatu gura zuen udalerri osoan txakurrak askatuta eramatea. Baino Jaurlaritzaren arauak debeku hori hirigunean bakarrik aurreikusten du. Horiaz, Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoak honako hau adie-

razi digu: "Onartu gura genuen arauan Udalak ez zegozkion esku-menak hartu ditu. Hau da, ez genuen aztertu Jaurlaritzako arau berriak zioena".

Arrazoi horregatik erabaki dute gaia hobeto aztertu, eta otsailoko osoko bilkuran behin betiko osoa onartzea.

### TXAKURRAK ASKE IBILZEKO GUNEAK EGOKITU

Bestalde, Udalak jakinarazi digu arau hori onartzearrekin batera asmoa dutela hirigunetik gertu txakurrak aske ibiltzeko gune batzuk egokitzeko.



LASTER ezingo dira txakurrak hirigunean solte ibili.

I.B.

HEZKUNTZA > HELDUEK HEZIKETA IRAUNKORRA

# Helduek eskolak jasotzeko egoitza jarri dute Intxaurtxuetan

1995ean Amuskaren ekimenez alfabetatze eskolak kultura etxeen ematen hasi zirenetik bilakaera handia izan du helduen hezkuntza eskaintzak

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Amuska emakume elkartearena izan zen ideia, eta bi urte geroago Arrasateko Helduen Heziketa Iraunkorren bitartez eskaintza hori arautu egin zuten. Poliki-poliki talde gehiago osatzen joan ziren eta kultura etxeen erabiltzen zuten gela txiki gelditu zitzaien.

Iaz Udalak erabaki zuen helduei hezkuntza emateko egoitza bat egokitzea. Horretarako Intxaurtxueta auzoko etxabe bat hartu eta Zutarri enpresari adjudikatu zizkion egokitze lanok. Lanen aurrekontua 75.000 euro izan zen, eta Gabonetarako bukatu zitzuten.

Hortaz, Gabonetako oporrak bukatu bezain laster, goizez eta arratsaldez eskolak ematen hasi

DATUA

97

urte ditu Eskoriatzan Helduen Heziketa Iraunkorrean dabilen emakumezko nagusienak.

Emakume horrek erakusten du edozein adin dela apropoa gauza berriak ikasteko. Ikerlak helduak oso motibatuta daude.

dira. Bost irakasle dabiltza zergin horretan.

#### GEHIENAK, EMAKUMEZKOAK

Helduen eskolen hastapenetan guztiek ziren emakumezkoak, eta eurak dira ikasteko gogo

handien dutenak, gaur egun ere ikasle ia guztiek emakumezkoak dira-eta.

Helduen Heziketa Iraunkorreko arduradunak gustura daude egoitzarekin. Bi ikasgela, irakasleen gela eta komunak dituzte. Horrez gain, hasi dira ordenagailuen gela eta liburutegia prestatzen. Dena dela, gauza batzuk bukatzea falta dela esan digute. Horiek bukatzean, inaugurazio ofiziala egingo dute.

Goizez 15 bat lagun joaten dira kultura orokorra ikastera (matematika, ingelesa, euskaraz...); eta arratsaldez 10 bat lagun. Arratsaldeko taldeak alfabetatze eta matematika eskolak harzten ditu. Horiez gain, eskoriatzar batzuek Arrasate eta Aretxabaletara jotzen dute.



I.B.

## Fagor Ederlanek 70 aparkaleku jarri ditu arriskua saihesteko

Ederlanek elektrizitate transformagailutik enpresara bitartean, biribilgunearen alboan, aparkaleku jarri ditu. Ederlanek autoendako sarrera desegokia zuen, eta hainbat istripu gertatu dira. Aparkaleku horiek konponbidea emango diente Udalak egindako eskariei.

> AUTOBIDEA

### Bidegiko zuzendari Nestor Aranaren esanetan, Bidegik eta Udalak harreman ona dute

Kaltetutako Eskoriatzako Elkarteak banatutako oharrean, Bidegiko zuzendari Nestor Aranak alkateari tonu txarrean idatzitako gutuna argitaratu zuen. Eta GOITBk Aranarenengana jo du horren gaineko azalpenak eskatzen. Aranak erantzun du harreman onak dituztela eta laster batzarrak egingo dituztela Udalarekin.

> AISIALDIA

### Amuska emakume elkartearak hainbat ikastaro egiteko aukera eskaintzen dihardu

Amuska elkartearak lanean dihardu emakumeek eurek egiteko eta disfrutatzeko ekintzak sortzen eta bultzatzen. Horren harira, datoz hilabeteotarako pintura, olio, larru, ehoziri eta bestelako eskulanen ikastaroak antolatu ditu. Izena emateko, jo kultura etxera martitzenean edo eguztenean 18:00etatik 19:00etara bitartean.

> KULTURA ONDAREA

### Lorentxo Altuberen ‘Euskal Herriko soinu tresnak’ erakusketa ikusgai Ibarraundin

Atzo, eguna, inauguratu zuten Lorentxo Altube arrasatearraren erakusketa. Altubek urtetan batutako eta berak sortutako musika tresna mordoa daude. Ekitaldian, alkateak, hainbat zinegotzik eta museoko arduradunek esku hartu zuten. Aste barruan arratsaldez zabalduko dute eta asteburuan goiz eta arratsaldez.



ASTEAN ebaluazioak dituzte eta matrikulazioa ireki dute. Argazkian arrasatear batzuk, motibatuta ikasten.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure  
Zerbitzura

Villar  
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA



BENJAMIN mailan elkarrekin jokatzen dute neskek eta mutilek.

HERRI IKASTETXEA

**HEZKUNTZA > ESKOLA KIROLA**

## Eskola kirolean 53 umek eta 14 gurasok dihardute

Eskola kirola Herri Ikastetxearen ardura da, baina gurasoak arduratzentzira entrenamenduez; baita umeak Bergarara eramateaz ere

GOIENKARIA &gt; ANTZUOLA

Herri Ikastetxeako Lehen Hezkuntzako 53 neska-mutikok dihardute oraingo ikasturtean eskola kirolean. Eskubaloia, saskibaloia, futbola... Denetik pixka bat egiten dute, eta Bergara eta Elgetako eskoletako aurka jokatzen dituzte partiduak zapatuetan.

Herri Ikastetxearen ardura da eskola kiroleko jarduerak antolatzea; eskolako arduradunen esanetan, baina, ezinbesteko da gurasoek egiten duten lana. Eurak dira neska-mutikoak entrenatzeaz eta Bergarara partiduetara eramateaz arduratzentzira direnak.

**DIRULAGUNTZAK**

Ikasturte hasieran, eskola kirolean izena eman duten guztien gurasoekin egutegi bat osatzen dute; horrela, hasieratik dakite noiz eraman beharko dituzten umeak Bergarara.

Eskola kiroleko partidu guztiek Bergaran jokatzen dituzte; horregatik, Diputazioak joan-etenrietarako dirulaguntza ematen dio urtero eskolari. Diru hori ez dute gurasoen artean banatzen, bestelako gastuetarako erabilten dute. Bestalde, Antzuolako

Udalaren dirulaguntza ere jasotzen dute.

Edonola ere, aurrekontu oso txikiarekin aurrera eramatzen dute eskola kirola. Eskolako kiroleko arduradun Jose Angel Amorrainen esanetan, "hori gurasoen lanari esker lortzen dugu".

### Benjamin mailan 27 neska-mutiko eta alebin mailan 26 dabiltaza oraingo ikasturtean

Egubakoitzero Herri Ikastetxeoko jolastokian edo Udal Pilotalekuaren elkartzen dira eskola kiroleko entrenamenduetarako. Benjamin mailan (hirugarren eta laugarren mailetakoak) 27 neska-mutikok jarduten dute, elkarrekin. Alebin mailan, berriz (bosgarren eta seigarren mailetakoak), 16 neska eta 10 mutilek dihardute, neska eta mutil, nor bere aldetik.

Bestalde, hainbat klubek ere antolatzen dituzte eskola kiroleko jarduerak; Olalde pilota elkartean, esaterako, 17 umek dihardute, 13k benjamin mailan eta lauk alebinetan. Bergarako Ariznoa gimnasia erritmikoko taldean, berriz, 6 ume dabiltaza. Arrola mendizale elkartea, azkenik, hainbat irteera antolatzen ditu umeendako; ume askok eta askok parte hartzen dute.

*Tomas Gezalaga***Zoruen kutxilatu eta bernizatzea**

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**ANTZUOLA**

Apainketak eta isolamendua  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

**GAILUR**  
taberna eta gozategia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

**ONDAREA**

## Diputazioak laguntza larru-ontze egitasmoari

Mairuaren Alardea elkartea jasoko dirulaguntza

GOIENKARIA &gt; ANTZUOLA

Larru lantzeak Antzuolako industrian garrantzi handia izan du; hala ere, ez dago industria horren lekukorik herrian. Azkeneko urteotan pare bat larru lantegitako artxiboak berreskuratu dituzte, argazki bilduma bat osatu dute eta Telleria lantegiko materiala berreskuratu.

Berreskuratutako horrek guztiarekin Udalak nahi du larru-ontzearen eta uhalgintzaren gaineko zentro bat zabaltzea. Horretarako, Diputazioak erabaki du 125.000 euroko laguntza ematea.

**ALARDEAREN ELKARTEA**

Mairuaren Alardearen elkartea jasoko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza: 15.000 euro, hain zuzen ere.

Elkartearren helburua da alardea ezagutaraztea eta bultzatzea. Momentu honetan, gainera, egitasmo ugari dute esku artean; besteak beste, armak erostea, kanoia berrikustea, liburu bat kaleratzea, webgunea sortzea... Horri guzti orri aurre egiteko izango da dirulaguntza.



Tellerianeko katalogo zahar bat.

*Tomas Gezalaga*

Apainketarako eta industriarako pinturak  
•  
Paper margotuak  
•  
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

> UMEA  
**Itziar Zubizarreta ipuin kontalariaren saioa zapatuan**

Bihar, zapatua, 18:30ean, Itziar Zubizarreta ipuin kontalariaren saioa izango dugu Udal Liburutegian.

Horrek batera, aipatzeo da aurrerantzear kobraturu egingo dituztela ipuin kontaketa saioak; pertsonako 1,5 euro, hain zuzen ere. Orain arte doakoak izan dira.

> ELKARTASUNA  
**Sahararako 326 kilo janari eta konpresa mordoa batu dituzte**

243 kilo azukre, 83 kilo atun eta 256 poltsa konpresa batu dituzte herrian Saharara bidaltzeko. Gainera, Anelkarreko 1.500 euro bidalko ditu.

Bestalde, Santa Ageda eskean irtengo dira zapatuan, 17:30ean, abesbatzakoak, eta batutako dirua Anelkarren proiektuetarako izango da.

> SARIAK  
**Herriko lau odol emaileri saria eman die lehendakariak**

Pilar Arangurenak, Lourdes Arregik, Begoña Letek eta Luis Mari Jauregik odol-emaile nagusi sariak jaso zituzten Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik, Ajuria-Enea bertan. Luis Marik 75 bider baino gehiago eman duelako odola, eta emakumeek 60 bider.

> PRESOAK  
**Karmen Irizar otsail bukaeran lagako dute aske**

Karmen Irizar preso antzuolarrak otsailaren 26an lagako du Villanublako (Valladolid) espetxea. Senitarteko eta lagunek autobusa antolatu dute bere bila joateko. Martxoaren 4an, berriz, ongi-eroeria egingo zaio herrian, eta afaria egingo dute frontoian.

**LARREA****TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MERKATARITZA > ARRANDEGIA

# Arrain-saltzailea eguen goizetan etortzen da San Roke kalera

Azaroa ezkero arrandegi gabe egon dira Elgetan; orain dela hilabete hasi zen Durangotik furgonetarekin etortzen Manuel arrainduna

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA**  
Epe batean hura barik egon ostean, berriz ere arrain freskoa eros- teko aukera dute Elgetan. Sal- bador kaleko arrandegia urria- ren amaieran itxi zuten eta izoztutako arraina baino ezin zitekeen erosi herriko dendetan; bestela, inguruko herrietako arrandegietara joan behar zuten elgetarrek arrain bila, eta auto- rik izan ezean, zaila zuten edo- zein egunetan arrandegira joatea.

Orain, ordea, badute arran- degia, eta ez nolanahiko gaine- ra: arrandegi ibiltaria.

Astean behin, egunetan, etortzen da Durangotik Elgetara furgonetarekin Manuel arrain saltzailea. San Roke kalean ego- ten da eguen goizetan 09:00etatik 11:00ak ingurura arte; eta berta- ra joaten dira herritarrek arrai- na erostera. “Arrandegia itxi zutela jakin nuen eta jabeari gal- detu nion ea furgonetarekin eto-

rriz gero zer irudituko litzaiokleen jendeari, eta hari, behintzat, asmoa ona zela iruditu zitzaison. Hark esan zien, gainera, lehen- go bezeroei herrira etorriko nin- tzela eta gerora herritarren artean zabalduz joan da berria”, esan digu Manuelek.

**HERRITARRAK POZIK**  
Hilabete da Elgetara etortzen hasi zela eta jendeak harrera ona

## JAKINGARRIA

**> SAN ROKE KALEAN**  
Eguenetan, 09:00etatik 11:00ak bitartean egoten da San Roke kalean eta herritarrek ilara egiten dute arraina erosteko.

**> ONDARROAKO ARRAINA**  
Arrandegian aurki ditzakegun produktu gehienak ditu; Ondarroako arraina batez ere.

egin diola esan digu: “Elgetara ez ezik beste hainbat herritara ere joaten naiz, betiere herri txikieta eta baita baserri auzoetara ere, eta denean hartzen naute ongi. Eurendako abantaila da herrian arrandegia izan ez eta astean behin bada ere arrain fres- koa erosteko aukera izatea”.

Ondarroako arrain freskoa ekartzen du batez ere Manuelek furgonetan: kariokak, legatz, txitxarroa, sardinak, antxoak, muskuiluak, txirlak... “Arran- degian aurki daitezkeen pro- duktua gehienak izaten ditut”.

Herritarrok ere gustura sumatu ditugu. Furgonetaren aldamenean arraina erosteko zain zen Rufinak hori esan zigun: “Arrandegia gabe ginengoa eta gure- tzako poztekoa da arrainduna herrira etortzea. Bestela arrain izotzua jan behar genuen edo kanpora joan erostera”.

**> ERAKUSKETA**  
**Maria Dolores Lonbideren margolanak Espaloian**

Soraluzeko margolariaren ko- droak ikusgai izango dira dome- katik otsailaren 23ra bitartean Espaloian. Umetatik izan du margotzeko zaletasuna eta Teresa Rierarekin ikasi zuen. Bere zaletasuna landuz joan da eta gaur egun natura dago bere lan gehienetan oinarrian: zerua, itsaso eta argia, esaterako.



**> KIROLA**  
**Pirinioetako Midi mendian eski zeharkaldia antolatu du Egoki kirol taldeak hilaren 11rako**

Egoki (Elgetan gozatu kirolaz) taldeak mendi irteera antolatu du datorren astebururako. Pirinioetako Midi mendian eski zehar- kaldia egingo dute. Otsailaren 10ean irten eta otsailaren 11n bost edo sei orduko ibilbidea egin ostein, zapatuan bertan bueltatuko dira. Izena emateko derrigorrezko da mendian federatua egotea; eskiatzeo oinarritzko gaitasunak izatea eta negurako mendiko arropa egokia eramatea. Interesatuek Udal Kirol Zerbitzuan eman dezakete izena arratsaldez 943768022 zenbakira deituta edo *kirola@elgeta.net* helbidera mezua idatzita. Otsailaren 8a da ize- na emateko azken eguna eta materiala alokatu nahi dutenek otsai- laren 6a baino lehen eman behar dute izena.

**> GAZTEAK**  
**Datorren asteburuan zabalduko dute gazteendako lokala Ozkarbi elkartean**

Datorren zapatuan, otsailaren 11n, zabalduko dute 11 eta 16 urte bitarteko gazteendako lokala. Maiatzaren bukaerara bitartean aste- buru eta jaiegunetan egongo da irekita. 16:00etan ateak zabaldu eta zapatuetan 22:00ak bitartean egon ahal izango dira bertan gaz- teak; domeka eta jaiegunetan, berriz, 21:00ak arte.

Ozkarbi elkarteko hirugarren solairuan egongo da gazte- endako lokala. Izena eman nahi dutenek bertara jo beharko dute. 20 euroko kuota ordaindu eta argazki bat eraman baino ez da egin behar. Gazteek Legazpiko Lorratz elkarteko begirale bat izango dute arduradun, eta harekin aisiaidiko hainbat ekintza egin ahal izango dituzte.

**> ETXEBIZITZA**  
**Udalak 60 eskaera jaso ditu Torrealdeko babes ofizialeko etxebizitzetarako**

Martitzenean amaitu zen Torrealdeko babesutako etxebizitzetan izena emateko epea. Guztira 20 etxebizitza daude eta 60 eska- ri jaso dituzte. Eskariak aztertu eta alegazioetarako epearen ostean, zozketa maiatzaren amaieran edo ekainean izango dela aurre- kusi dute. Urtarrilean ziren astekoak urbanizazio lanak Torrealdean, baina atzeratu egin dira. Bertan lanak egin behar dituzten bi enpresa eraikitzileen arteko ezadostasunak izan dira horren arrazoia. Tira-birak konpondu eta lanak otsailaren bigarren erdi aldean hasiko direla esan digute Udaletik. Urbaniza- tzen ez ezik babes ofizialeko etxeak eraikitzen ere hasiko dira.



I.A.

MANUEL arrain-saltzailea furgonetarekin etortzen da Elgetara.



# Elgeta-Piel

Domingo Iturbe 8 ELGETA  
Tel.: 943 76 81 12

## ESKAINTZA BEREZIAK:

Gizonezkoentzako jaka larru itzuliarekin

149 euro

Udaberrirako gizonezkoentzako jaka beix argia

89 euro

Neskentzako txaketa motzak

49 euro

Martitizenetik zapatura: 17:00-20:00 Domekak: 11:00-13:30  
Astelehenetan itxita



GASTUAK Udalaren jardunerako eta udal zerbitzuen funtzionamendurako izango dira partidarki handienak.

UBANE MADERA

UDALA &gt; AURREKONTUAK ONARTU DITUZTE

# Arriola, Errrotabarri eta Zalgorako 236.000 euro pasa

Zenbait partida ezabatu egin dituzte eta lortu dute sarrerak eta gastuak parekatzea

Halakoetan ohi denez, Udalaren funtzionamendurako dira gasturik handienak

**UBANE MADERA > ARAMAIO**  
Ezusteko barik onartu dituzte 2006rako udal aurrekontuak. Hori bai, hasierako asmoak kontuan hartuta, zenbait egitasmo datozen urteotan egiteko utzi egin behar izan dituzte. Iza ere, aurrekontuaren hasierako proposamenaren arabera, gastuak sarrerak baino handiagoak ziren. Esaterako, bertan behera utzi behar izan dute kaleko argiteria berritzea edo Bentamotzeko uraren saneamendu, arazketa eta banaketa sarearen berritzea.

## AUZOAK INDARTZEKO

Kontuak kontu, 1.638.731,81 euroko aurrekontua izango du Udalak 2006rako. Alkateak esandaikoaren arabera, kopuru horretatik zati handi bat erabiliko dute herriko auzoak indartzeko, 2005ean Arexola auzoan egin duten moduan. Horren harira, Arriolako azpiegiturak berritzeko 119.111,63 euro bideratuko ditu Udalak. Eta Errrotabarri eta Zalgoko azpiegiturak berritzeko, berriz, 116.899,93 euro.

## BIDEAK KONPONTZEKO

Bestalde, Udalaren beste helburuetako bat da herriko zenbait bide konpontzea. Hala, erabaki dute aurtengo diruekin konponduko dituztela honako bideak: Uriarritik Gureirako doan bidea (18.843,20 euro); Arexolarakoa

(18.658 euro); Muru eta Untzilla artekoa (14.096,37 euro) eta kanposantura doana (12.020,67 euro).

## SAILEN ARABERA: OGASUNA

Sailez sail begiratuta, berriz, Ogasun Sailak behar du kopururik handiena (506.494,76 euro). Iza ere, hortxe sartzen dira Udalaren jardunarekin zerikusia duten gastu ugari. Esaterako, Udaleko langileen soldatak ordaintzeko 283.346,59 euro behar dituzte. Horren harira, ohitura gaude entzuten lartxo kobratzen dute-la udal agintari askok. Bada, Aramaiko kasuan, Mertxe Mon-

dragon alkateak 18.400 euroko soldata eskuratzentzu du. Zorionez, ez da ez ohitura gauden kopuru altu horietako bat.

## GAINERAKO SAILAK

Hurrengo sailik pisutsuena Zerbitzuena da. 483.215,41 euroko aurrekontua du. Kasu horretan, udal zerbitzu guztien gastuak sail horretan sartzen direlako dauka halako garrantzia. Esaterako, hortxe sartzen da kultura etxearen eta kirolegiaren mantenua, lorategien zaintza eta zabor bil-keta zerbitzuua.

Hirigintza Saila ere ez da atzen geratzen: 373.119,64 euro izango ditu. Kasu horretan, lehen aipatu ditugun inbertsioak egiteko (Zalgo, Errrotabarri...) erabiliko dituzte partidarki handienak.

Kulturari dagokionez, berriz, 124.800 euroko aurrekontua dauka. Kopuru horren barruan sartuta dago, esaterako, Ibarra jaietarako 22.000 euro. Eta herriko gainerako auzoetako jaiak ospatzeko, beste 11.600 euro.

Euskara eta Kultura Sailari begiratuta, berriz, 90.602 euroko aurrekontua du. Euskarazko komunikabideak bultzatzeko izango da sail horretako kopururik handiena: 16.005 euro.

Eta Mendi Sailaren dako 60.500 euro gorde ditu Udalak. Basoko bideak zaintzeko izango da horko kopururik handiena: 30.000 euro.

## Aurrekontuetako partida garrantzitsuenak

	KOPURUA EUROtan
Udal zerbitzuak (Udalaren jarduna)	746.667,65
Inbertsioak	406.699,64
Udaleko langileak	283.346,59
Dirulaguntzak (jaiak, kultura elkarreak...)	112.652,5
Maileguen amortizazioa (Euskadiko Kutxa eta Foffel)	60.513,23
<b>SAILAK BEGIRATUTA:</b>	
Ogasuna	506.494,76
Zerbitzuak	483.215,41
Hirigintza	373.119,64
Kultura	124.800
Euskara eta Hezkuntza	90.602
Mendiak	60.500
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.638.731,81</b>

&gt; JUSTIZIA

## Udala epaitu zuten martitzenean, Gasteizen

Martitzenean, hilak 31, epaitu dute Udala, Udalbideri dirulaguntza ematearren. Udaletxeko idazkariak jakinarazi digunez, epaileak ez zuen esku tu Udalak testifikatzea, ez dago elako beharrik. Horrenbestez, Estatuko abokatua eta defentsaren abokatua (Udalarena) izan ziren epaiketan.

Udaleko idazkariaren esanetan, seguru asko, Udalbideri laguntza eman dioten bestelako herrien jokabidea erabiliko zuen Aramaiko Udalaren abokatuak dirulaguntza hori justifikatzeko.

Bestalde, azken horrekin, laugarren aldia da Estatuko abokatuak Aramaiko Udal salatzen duela. Hain zuen ere, presoen senideei dirulaguntza ematearren, presoen aldeko pankarta batengatik eta *Berria* egunkariari laguntzearren salatu izan dute orain arte.

&gt; KULTURA

## Bihar, zapatua, Santa eskean aterako dira

Gaur San Martin Eskolako neska-mutikoek egin duten moduan, bihar, zapatua, Bizen-te Goikoetxea abesbatzako zenbait kide aterako dira kantuau. 14:00etan egin dute hitzordua, plazan. Honako ibilbidea egingo dutela esan digute: plaza-Salazar-Zubialde-Solaia-Ametzu-Mendiola-Maskaino - Ibañez-Arana - Errota-Goiko Errota-Arragaburu-Iturrieta-Arraga-Basauti-Errotabarri-Zalgo eta kalea. Halako ibilaldia egin eta gero, merienda egingo dute, iluntze partean. Bestalde, jakinarazi dugunet, eskean batutako diruaren zati bat Caritasi emango diote, eta gainontzeko abesbatzaren gastuetarako erabiliko dute.

&gt; TEKNOLOGIA

## Teknologia berrien gainezko erakusketa izango da otsailean

Sarekide izeneko erakusketa otsailaren 13tik 22ra bitartean izango da Aramaion. Bestelako artean, teknologia berrien esparruan, informatica eta ofimatica arloetan prestakuntza eta formazioa emango dute, bereziki, nekazaritzarako interesgarriak diren gaiak landuta. Horrez gainera, erakusketa gunea izango dute, teknologia berrien gainezko eta bereziki gaztetxoei zuzendutako ziberludiko gunea.

GARRAIOBIDEAK > AUTOBUS ZERBITZUA

# Balorazio guztiz ezkorra autobus zerbitzuari

Gazteen taldea, guraso elkartea, emakume taldea eta gastronomi elkarteko ordezkariak elkartu ziren autobus zerbitzua baloratzeko astelehenean

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA  
Astelehenean jarri zuten abian autobus zerbitzua Gatzagan. Eta astelehenean bertan elkartu zen herritarrek osatutako komisioa zerbitzuaren gaineko balorazioa egiteko.

**HOBETE EZER EZ ESKANTZEA**  
“Balorazio guztiz ezkorra egin dugu”, dio Rosa Urreta komisioko kideak. “Herritarren eskaera ez dute inondik inora aintzat haratu”, gaineratu du. Zazpi lagun elkartu ziren asteleheneko batzarran: gazteen taldeko, Gurel gurasoen elkarteko, Sorginak emakumeen taldeko eta gastronomi elkarteko ordezkariak, hain zuzen. Jarri duten zerbitzua jarri beharrean hobe zutela ezer ez eskaintza iritzi zioten komisioan. Izan ere, ordutegia kontuan hartuz gero oso herritar gutxik erabiliko duela diote: “11:40an jaitziz gero Gatzagatik Eskoriatza bueltan etortzeko 16:40 arte ez dago ezer; hortaz, zein joango

da? Ezingo gara jaitsi ez erosketak egitera, ezta edadetua bueltatxo bat eman ere”, dio Rosak. Eta azkenean kendu egingo dutela zerbitzua aurreikusi zuten komisioan.

**UDALAREN BERRI OFIZIALIK EZ**  
Balorazioa bakarrik ez dute egin astean; atzo, eguna, Udalak egindako osoko bilkurako gai zerrendan sartzen autobusaren kontua eskatu zuten. Komisioko kideez

gain, herritarrei ere euren iritzia ematera joateko eskatu zieten. Udalak ofizialki ez dietela ezer esan, eta jakin dutena komunikabideetan irakurri dutela aipatu zuten. Hala, badakite Udalerren iritziz hobe dela herrian zerbaiz izatea zerbitzurik ez egotea baino, eta horregatik onartu dute Diputazioak eskainitakoa. Komisioko kideak, baina, ez datozi bat iritzi horrekin, eta hala jakinarazi diete.

KONTUAN HARTZEKO


## Herritarrek eskatzen dutena

Autobus zerbitzua baloratu duten komisioko kideak kexu dira herritarren eskaerak ez dituztelako kontuan hartu. Ikastolako autobusaren eta taxibusaren zerbitzua eskaini diente; eurek, ostera, garraiobide publikoa eskaten zuten. “Bailaran dagoen eskaintzan barneratu gura dugu; %100ean ezin bada, %50ean, baina bailaran”, diote komisioko kideek. Aste bukaeretan ez diente zerbitzurik eskaini, ezta Arlabanera igo eta bertan Gasteizera doan autobusa hartzeko biderik ere. Hortaz, eskainitako zerbitzuak ez gazteen, ez edadetuen, ezta gainerako herritarren eskaerak ere ez dituela asetzan uste dute.



TAXI-BUSA hutsik itzuli zen Eskoriatzara astelehen goizean.

M.A.



**06-07 ikasturterako  
matrikula epea zabalik**

*otsailaren 6tik 17ra*

**Jose Arana  
Udal Haur Eskolan (0-3 urte)**

**Aranburuzabala, 1 • 943 71 31 58**

Instalazioak ikusi edo elkarritzeta egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.



**eskoriaztako  
udala**

**A**  
**Arizmendi ikastola**

*geurea, zeurea*

## &gt; KIROLDEGIA

**Master jaia izango da zapatuan Arrasaten, Uarkapen**

Bihar, zapatua, Mankomunitateko kirol zerbitzuek antolatuta, frontenis, tenis, squash eta esku pilotako master finalak jokatuko dira Uarkapeko pilotalekuaren, 10:00etan hasita. Sari banaketa 12:00etan egingo dute. Aurtengo txapelketen berri emango dute jarraian.

## &gt; ESKIA

**Bergarako Pol-Pol Elkarteak eski irteerak antolatu ditu**

Pol-Pol Mendizale Elkarteak otsailaren 17tik 19ra bitarteko aste bukaerarako Baqueirara irteera iragarri du. Martxoan bi irteera izango dira: hilaren 3tik 5era Baqueirara eta hilaren 24tik 26ra Fornigalera. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

## &gt; DUATLOIA

**Oñatiko Duatloia martxoaren 18an jokatuko da**

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, Oñatiko Duatloia martxoaren 16an jokatuko du. Aurtengo XV. ekitaldia izango da. Oñatiko Triatlooi Taldeak gonbidapena luzatu nahi die bailarako kirol zaleei proban parte hartzeko. Argibideak: [www.txantxi-ku.net/duatloia.htm](http://www.txantxi-ku.net/duatloia.htm).

## &gt; MENDIA

**Besaidek antolatutako irteera domekan**

Arrasateko Besaide Mendizale Elkarteak irteera iragarri du domekarako, otsailaren 5erako. Irun aldera joango dira, Bianditzera eta Olara eta ondoren sagardotegi batera joango dira baxkatzera.

Izenematea eta argibideak 943 77 30 66 telefono zenbakian.

## &gt; TRIATLOIA

**Antxintxika Triatlooi Taldea hasi da denboraldia gertatzen**

Debagoineneko Antxintxika Triatlooi Taldea hasi da dagoeneko denboraldi berria geratzen. Besteak beste, aurten errelebotako triatloia antolatzeko asmoa daukate Antxintxikakoek.

Web orrialdea ere abian jarri dute. Interesatuek hona jo dezakete: [www.antxintxika.org](http://www.antxintxika.org).

**MIKEL GALDOS > GOLF JOKALARI PROFESIONALA**

# Ibarreko lehenengo golf jokalari profesionala da Mikel Galdos

Aretxabaletako jokalariak otsailean jokatuko du lehen txapelketa, Sevillan

Peugeot Tour txapelketarako sailkatu da, zortzigarren postuan

**XABIER URTZELAI > ARETXABALETA**  
Ezin hobeto hasi du Mikel Galdosek urte berria. Aretxabaleta-kok profesionala eta jauzi egin du, *handicap-a* gaindituta, eta ez hori bakarrik, Peugeot Tourrean esku hartzeko ere sailkatu da: "Azken batean, profesional izanda ere, txapelketetara sailkatzen ez denak ez du ezer egiten". 163 lehiakide izan ziren estatu mailan jokatzen duten Peugeot Toureko kanporaketetan (La Alcadesan, Cadiz, eta Guadalmiran, Malaga, egin zituzten kanporaketa horiek), eta 40 lagunek eskuratzen zuten txartela; zortzigarrena izan zen Mikel: "Albiste ona da txapelketa horretara sailkatzea, 12 torneotan izango naizela esan gura duelako. Hala, Spainiako hainbat zelai berri ezagutuko ditut, eta noski, dirua irabazten hasteko aukera izango dut".

**GOLFA OGIBIDE**

Profesional izateak zer esan gura duen galdeztzean, aurrerantzean kirol hori lanbide izango duela erantzun digu Mikelek: "Jauzi handia dago. Orain, nahiz eta gogorik ez izan, entrenatzeria joan beharko dut. Baino, hori izango da nire ogibidea, eta kirol gusituko dudanez, oso pozik nago".

Astean bost aldiz joaten da Mikel Legutio ondoan dagoen Larrabea golf zelaira. Gogoratu ere ez da egiten noiztik den bertako baxkide, baina Larrabeako harrobiko harribitxia da, klub horrek eman duen lehenengo profesionala. Hori bai, gogoan du lehenengo kolpeak eman zituen makila, logelan du zintzilik, beste makila askoren artetik bananduta. Orain, berriz, Wilson markako materiala eraman behar du, eurekin sinatu du-eta kontratuak.

**LEHENENGOA, SEVILLAN**

Aretxabaletako golf jokalariak oraindik ez du denboraldiko egutegia, baina badaki lehenengo torneoia Sevillan izango duela, Real Club de Sevilla golf zelaian: "Ezagutzen dut, eta oso zelai ona da. Otsail amaieran edo martxo hasieran izango da torneo hori".

Helburuen gainean galdetze-



MARTITZENEAN izan ginien Mikelekin, Donostiara lagunarteko txapelketa batera joan aurretek.

XABIER URTZELAI

**"Orain golfa ogibide bilakatu da; gogorik ez badut ere entrenatzeria joan beharko dut"**

**"Torneoetan izandako irabazi ekonomikoen arabera lortuko dut txartela mantentzea"**

rakoan, lehenengo urtea izanda, erantzuna ez da erraza: "Ez daukat erreferentziarik, eta ezin dut helburuen gainean gauza handirik esan. Hasteko, torneoetako lehenengo kortea gainditzea izango da helburua, azken txanpara sailkatzea. Gainontzeko txapelketetan, 120 lagunetik erdiak egiten dute aurrera; Peugeot Tourrean, baina, 45 lagun baino ez dira sailkatuko". Alde horretatik,

datorren urterako txartela mantentzea izango da erronka nagusia: "Torneoetan izandako irabazi ekonomikoen arabera lortuko dut txartela mantentzea. Horretarako, gehien irabazi duten 85 jokalarien artean egon beharko dut".

**'PUTT'-A HOBETZEKO**

Jokalari moduan dituen gaitasunen gainean ere galdezu diogu Mikeli: "Nahiko jokalari osoa naiz. Lehenengo kolpean ondo moldatzen naiz, eta ez dut aparteko arazorik izaten green-a bilatzeko (zuloa inguratzen duen belar saila). Hori bai, putt-a (green barruan egiten den azken kolpea, eta kolpe hori egiteko erabiltzen den makila) hobetu beharra daukat. Putt konbentzionalarekin gaizki moldatzen nintzen, eta azken zazpi hilabeteak eskoba izeneko putt-arekin egin ditut, askoz ere hobeto".

**Torneoetara joateko ezinbestekoak dira babesleak**

"Torneo bakoitzean esku hartzeko sei egun behar dira. Txapelketa hasi baino bi egun lehenago joatea komeni da, zelaia ezagutzea. Hala, eguna eta egubakoitzan kanporaketak egiteko erabiltzen dituzte, eta korte hori gainditzentz ez duena etxera itzultzen da. Peugeot Tourreko torneo bakoitzean 120 lagunetik 45 onenak sailkatuko dira asteburuan jokatzeko. Horrek esan gura du, txapelketako azken txanpana horretara sailkatzen ez dena esku hutsik itzuliko dela. Horretarako behar ditut babesleak, bidaia horiek guztiak ordaindu ahal izateko. Alde horretatik, aita dabil babesle horiek lortzeko lanean".

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Preferente maila**  
Aloña Mendi - Aretxabaleta  
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mutriku - Mondra

Zapatua. 16:00. Mutriku.

**Euskadiko gazte maila**  
Getxo - Aloña Mendi

Zapatua. 17:00. Fadura.

**Lehen erregionala**  
Bergara - Eibartarrak.

Zapatua. 16:15. Agorrosin.

**Bigarren erregionala**  
Antzuola - Ikerberri.

Zapatua. 16:00. Estala.

**Gazteak, ohorezko maila**  
Mondra - Zumaiako.

Zapatua. 16:00. Atxabalpe.

Aurrera Ondarroa - Bergara

Domeka. 11:30. Berriatua.

Aretxabaleta - Ordizia

Zapatua. 17:30. Ibarra.

**Gazteak, lehen maila**  
Bergara - Aretx.Arizmendi

Zapatua. 18:15. Ipinzia.

Zestoa - Antzuola

Zapatua. 16:00. Zestoa.

**Gazteak, bigarren maila**  
Axular - Arrasate CD

Domeka. 18:30. Berio.

**Kadeteak, ohorezko maila**  
Aloña Mendi - Hernani

Domeka. 11:30. Ibarra.

Bergara - Ordizia

Domeka. 11:30. Ibarra.

**Kadeteak, lehen maila**  
Arrasate - Mutriku

Zapatua. 11:00. Atxabalpe.

Aretx.Arizmendi - Urnieta

Zapatua. 12:30. Aretxabaleta.

**Kadeteak, bigarren maila**  
Behobia - Aretx.Arizmendi B

Domeka. 12:00. Irun.

**Infantilak, ohorezko maila**  
Ordizia - Aloña Mendi

Zapatua. 11:00. Idiazabal.

Antiguoko - Aretx.Arizmendi

Domeka. 11:30. Donostia.

**Infantilak, lehenengo maila, igoera fasea**  
HerreraSporting - Bergara

Zapatua. 11:30. Herrera.

Sto Tomas Lizeoa - Arrasate

Zapatua. 12:00. Berio.

**Infantil txiki**  
Aretx.Arizmendi - Tolosa

Domeka. 11:15. Aretxabaleta.

**Emakumeak, Igoera fasea**  
Aretx.Arizmendi - Ahorga

Zapatua. 11:30. Almen.

Mondra - Alleru

Domeka. 12:00. Atxabalpe.

Anaitasuna - Bergara

Domeka. 11:00. Azkotia.

**Emakumeak, Kopa**

Aloña Mendi - Amaikak Bat

Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Emakumeak, Kadeteak F-8**

Aloña Mendi - Ariz.Arrasate

Zapatua. 10:15. Ibarra.

Bergara - Elgoibar

Zapatua. 10:00. Ipinzia.

Lagun Onak - Aretx.Arizm.

Zapatua. 13:15. Azpeitia.

### ARETO FUTBOLA

**Nazional B maila**  
GSI Bilbao - Eskoriatza

Zapatua. 19:30. Bilbao (San

Inazio).

**Gazteak, liga nazionala**

Aloña Mendi - Ibarra

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako lehen maila**

Aloña Mendi - Ilrizabal

Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Gipuzkoako hirugarren maila**

UDA Mercedes - Laskorain

Zapatua. 17:00. Aretxabalet.

**Gazte maila**

Relojes Mond. - Eskoriatza

Zapatua. 17:30. Eibar (Ipurua)

**SASKIBALOIA**

**Lehen maila. Igoera fas.**

Viajes Marfil - Mugarril Alke.

Zapatua. 18:15. Barañain.

**Seniorrak, gizonezkoak**

Candy BKE - Kevin Sport

Zapatua. 18:30. Eibar.

Ametsa - Aloña Mendi

Domeka. 11:30. Ibarra.

**Seniorrak, emakumezkoak**

Internacional - Aloña Mendi

Zapatua. 19:30. Donostia.

**Bigarren maila, emakumezkoak**

Eskoriatza-UPV Araba

Zapatua. 18:00. Eskoriatza.

**Gipuzkoako junior maila, gizonezkoak**

Aloña Mendi - Goyerri

Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Mugarril Alk - Loyola

Zapatua. 12:00. Musakola.

**Gipuzkoako junior maila, emakumezkoak**

San Martzial - Aloña Mendi

Domeka. 17:00. Hondarribia.

Añorga - Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Donostia.

**Gipuzkoako kadete maila, gizonezkoak**

Aloña Mendi - Easo Loyola

Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Easo A - Mugarril Alkesa

Zapatua. 16:00. Donostia.

**XAKEA**

**Euskadi Txapelketa.**

Arlutz - Gros A.

Zapatua. 16:00.

Aretxabaleta.

**Euskadi lehenengo maila**

Arrasate A - Amurrio A

Zapatua. 16:00. Altamira.

**ESKUBALOIA**

**Lehen territorial maila**

Bergara - Ormaiztegi

Zapatua. 18:00. Labegaraiet.

Elgoibar - Arr. Oñati Kobak

Domeka. 11:00. Elgoibar.

Urnieta - Ford M. Arrasate

Domeka. 11:30. Urnieta.

**Bigarren territorial maila**

Arrasate - Donibane

Domeka. 11:30. Iturripe.

**Gazte maila**

Bergara - Atxuri jatetxea

Zapatua. 16:15. Labegaraiet.

**Gipuzkoako hirug. maila**

Bergara - Atletiko Zaleak

- Arrasate D

Zapatua. 16:00. Bergara.



Mondrako neskek Allerru taldea hartuko dute Atxabalpen  
Igoera fasean murgilduta daude Zabaloren neskak. Domekan kontrario gogorra izango dute (12:00): bigarren dagoen Allerru taldea.



KEPA AZKUE Aloña Mendiko jokalariez inguratuta, joan den denboraldiko erretretuan, Azkoagainen.

GOIENKARIA

### FUTBOLA > ALOÑA ETA UDAREN ARTEKO DERBIA

# Gutxi galtzeko eta dena irabazteko Azkoagainen

Preferentean gero eta indartsuago dabiltsan bi talde horiek neurituko dituzte indarrak domekan

### XABIER URTZELAI > ARRASATE

Azkoagainen (16:30) lehiatuko dira urtea ondoen hasi duten bi taldeak: Aloña eta Aretxabaleta. Aitor Oruetaren mutilek abendu hasieratik ez dute galdu: azken 18 puntuatutik 16 erdietsi dituzte. Eta horri esker daude sailkapeneko aurreneko postuan, Real Unioenkin berdinduta. Aretxabaletako-en aldeko datuak ere ez dira makan-

lak: bost norgehiagoka galdu barik seigarren postuan daude, eta norgehiagoka bat gutxiago jokatuta.


Domekako derbiaren gainean bi taldeetako presidenteek badalik kontrario gogorra izango dute la aurrean: "Orain momentuan, preferentean ondoen dabiltsan bi taldeak dira horiek", bota digu Javier Azpiazuk. Jokin Antxiaren iritziz, berriz, Aretxabaletak

domekan dena izango du irabazteko, eta ezer gutxi galtzeko: "Alde horretatik, gu presio barik joango gara, gauzak ondo egiteko behar den lasaitasunarekin".

### MURUAMENDIARAZ MONDRARA

Bestalde, Mondrako zuzendaritzak eguztenean adierazi zuen erregional mailan eta preferentean horren beste gol egin zituen Jon Muruamendaraz Mondrara itzuliko dela, uztailera arte. Izan ere, arrasatearra Beasainen ibili da orain arte.

## ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna



Zuhaitz Ezpeleta.

### > MENDIA Mendizale Federazioak Zuhaitz Ezpeleta sarituko du

Joan den egubakoitzean banatu behar zituen Euskal Mendizale Federazioak iazko kirolari oneen sariak, baina elurra zela-eta ekitaldia atzeratu egin zuten. Hala, datorren egubakoitzean jasoko du Zuhaitz Ezpeletak mendiko lasterketen saria, Galdakaoen egingo duten galan. Zuhaitz seigarrena izan zen Munduko Kopan. Lau probatan hartu zuen parte, eta besteak beste Franzisko 6000-D lasterketan laugarren sailkatu zen.

### Larralde - Arizmendi / Apezetxea - Auxkin

### Koka - Beloki / Mtz de Irujo - Eulate

### Baleztena - Galarza VI.a / Berasaluze IX.a - Zubieta



Erreserbak baita interneten ere: [www.aspelota.com](http://www.aspelota.com)





## > INES OSINAGA

Oso gaztetatik dabil Ines musikan. Ekon taldean ibili ostean, azken urteotan Isarevolution eta Gose taldeetako abeslaria da. Trikitixa irakaslea ere bada. > 50



## > ANTZERKIA

Olimplaff, Yllana taldearen azken lana gaur gauean Elgetan > 45



## > KOMUNIKAZIOA

Yellowing, AZK Komunikazio Enpresaren blog berria > 51

# Goya barik ere: aupa, Etxebeste!

Espaniako Zinemaren festa nagusian izan ziren Etxebestetarrak; azkenean, *Tapas* filmarentzat izan zen zuzendari berrien Goya saria

Ez zen gau magikoa izan euskal zinemarentzat: faboritoetako bat izan arren (hamar izendapen), Goya bakarra eraman zuen 'Obaba'-k

### EDU MENDIBIL > BERGARA

Espaniako Zinemaren festa nagusian, Goya sarietan, oho-rezko gonbidatuaren artean izan ziren Telmo Esnal eta Asier Altuna, *Aupa Etxebeste!* filmeko zuzendariak. Zaila zeukaten zuzendari berrien Goya eskuratzea, hau-tagaiak nortzuk ziren jakin zenetik *Tapas* zelako faboritoa.

Eta Madrilera joan bitartean egin zizkieten elkarrizketetan hala adierazi zuten Esnalek eta Kixi-k. Zoritzarrezz, pronostikoak bete egin dira eta Jose Corbachok eta Juan Cruzek eraman zuten Goya saria domeka gauean.

Beraz, Etxebestetarrek ezin izango dute etxeko saloian Goya jarri, kafea hartzera joaten zaizkien lagunei harro-harro era-kusteko. Hala ere, filmak gano-

razko oporraldiak izateko aukera eman die. Han eta hemen era-kutsi dute filma eta ikusleen partetik txalo zaparrada luzea jaso dute. Horixe saririk ederrena.

### 'OBABA'-K SARI BAKARRA

Domekakoa ez zen euskal zinemarentzat gau magikoa izan. Montxo Armendarizen *Obaba* genuen faboritoetako bat. Hamar izendapen zeuzkan arren, Goya bakarra irabazi zuen, soinu one-narena. Oscarra ere ez da Obabar iritsiko.

*Aupa Etxebeste!* filma ordezkatuz hainbat lagun izan ziren domekan. Kixi-k eta Iban Garate aktoreak han gertatutakoak komentatu dizkigute. Sari banaketa ekitaldian aspertu arren, ondo ibili ziren Madrilen.



KIXI eta Telmo soinu onenaren Goya irabazi zuen Carlos Bonmatirekin (*Obaba*).



AZALA:  
GOIO ARANA /  
IÑAKI ITURBE

ZINEMA > 'TAPAS' FILMAK JASO ZUEN ZUZENDARI BERRI ONENARI ZEGOKION GOYA SARIA

# Etxebestetarrak: Goya saririk gabe baina pozik Madrilgo esperientziarekin

Asier Altuna eta Telmo Esnal filmeko zuzendariekin batera beste hainbat lagun izan ziren domekan Madrilen, Biltzar jauregian ospatutako Goya sarien 20. ekitaldian

Goya irabazi zuten Juan Cruz eta Jose Corbacho zuzendariekin sagardotegi batera joateko geratu dira Etxebestetarrak

**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Zuzendari berri onenari eman-dako Goya saririk gabe itzuli dira Madrildik Asier Altuna *Kixi* eta Telmo Esnal. Azkenean, Juan Cruz eta Jose Corbachoren *Tapas* filmak eraman zuen saria. *Aupa Etxebeste!* filmeko zuzendariekin batera, Iban Garate eta Ramon Agirre aktoreak, Lola Lopez makilatzailea, Pite Piñas muntatzailea eta beste zenbait lagun izan ziren domekan Madrilen.

**NERBIOAK**  
Kiniela askotan *Tapas* zen Goya eskuratzeko faboritoa eta hala gertatuko zela uste zuen *Kixi*-k ere. Hala ere, saria banatzeko ordua iritsi zenean, ez zitzaien

nerbioei eustea erraza gertatu: "Momentu horretan tripetan-eta nerbioak azaltzen dira eta horren-bestea jende aurrera atera behar izanez gero zer gertatu den pasatzen zaizu burutik, zer esan eta guzti hori..." diosku *Kixi*-k. Ira-baztekotan zer esango zuten ger-tatzeke zeukaten: "Ez, ez genuen ezer idatzi... Irten zena eta kito. Pentsatzen dut lagundu gaituun denei eskerrak emango genizkiela, besterik gabe".

Gala luzea gertatu zitzaien Etxebestetarrei: "Pentsatzen nuen erritmoaren kontua eta beste gauza batzuk gaindituta zirela baina keba! Jendeak txalo gogorrenak gala bukatzean jo zituen... Satoa eta gazta eraman izan bagenu....

Eskerrak gala amaitutakoan jateko eta edatekoa bazegoela. Edozein modutan, esperientzia moduan ondo egon da hura eza-gutzea. Ondoan hautagaiendako festan pasa genuen, orain dela bi aste: *cocktail* bat egon zen eta han beste giro bat zegoen, sanoagoa".

Domekan, galaren ostean, Ranchito enpresak antolatutako jaian izan ziren: "Lagunak dira eta, besteak beste, efektu berezi onenen Goya saria ospatzentz ari ziren eta han ziren baita Isabel Coixet, Alex De la Iglesia...".

**EZAGUN MORDOA GALAN**  
Iban Garatek esan digunez, bera goizeko bostetan joan zen hotele-ra, zintzo-zintzo: "Azterkete-tan ari naiz eta ordurako neka-tuta nengo-en. Luzea egin zitzai-gun eguna baina ederto pasa genuen. *Road-movie* bat egiteko moduko bidaia egin genuen: goiz atera ginengurutako gogorrenak baina azkenerako lotsatu... Erro-dajean hasi ginengatik izan dugun giroa ikaragarri ona izan da eta

## di - da batean

Edu Mendibil

Goyek behea jo zuten

Goya sarien 20. ekitaldia orain arteko txarrenetako gertatu zen: luzea (gautxoriendako egina), grazia eta emoziorik gabekoa gainera. Concha Velasco eta Antonio Resines galdua ikustean Rosa Maria Sardarekin akordatu nintzen. Hala ere, gidoi hobea beharko zuen hark domekako gala aurrera ateratzeko. Hura zen nahasmena! Filmak egiteko gidoi onak eskatzen dituzte aktoreek behin eta berri. Zinemaren aritzen direnengatik ikuskizun hobea espero zitekeen. Baino Spainiako zinemaren promozio eska egin zuten, ikus-leak uxatzeko modukoa.

horrekin geratzen naiz. Zinema pixka bat ezagutzeko ere balia-garria izan zait".

Goya irabazi ez arren, *Aupa Etxebeste!* oraindik *bizirik* dago. Guadalajaran (Mexikon), Manchesterren edo Jaenen erakutsiko dute. "Oraindik emango ditu buelta batzuk filmak. Oso pozik gaude ikusleen aldetik jasotako erantzunarekin. Hori izan da politena. Horrek jarraitzeko indarrak ematen dizkigu. Badauzkagu ideia batzuk, baina aurrerago ikusiko dugu zer eta nola egin" dio *Kixi*-k. Martxoan *Sarean* bere azken laburmetraia aurkeztuko du bergararrak, Donostian.

## GOYAREKIN SAGARDOTEGIRA

Tapak ez, txuleetak eta sagardotegia dastatzeko geratu dira Etxebestetarrak Juan Cruzkin eta Jose Corbachorekin. "ETBrako *La gran evasión* egin zuen garaietik ezagutzen dugu Juan Cruz eta behin baino gehiagotan egin gara berae-kin. Oso jatorrak dira, *roiloona* dau-kagu. Sagardotegi batera etorri nahi dute eta han ospatuko dugu saria" dio *Kixi*-k. Eta Ibanez: "Gainera, Telmok esan zuenez, intxaurrak puskatzeko apropoa izan dait-te Goyaren figura".



GOYA sariekin ikusmin handia piztu zuten.



KIXI sari banaketaren aurretik, ETBko kazetariekin.

AUPA ETXEBESTE! filmeko ordezkariak eta haiek Madrilera joandako zenbait lagun.

ARGAZKIAK: IBAN GARATE



GARRANTZITSUENA ez da irabaztea, baizik eta barre gehien eragitea. Hori da marka.

YLLANA

ANTZERKIA > YLLANAREN EMALDIA GAUR ELGETAN, 22:30EAN

## Barrearen olinpiadak egingo ditu Yllana taldeak Espaloian

Madrilgo Yllana antzerki taldeak 'Olimplaff' ikuskizuna aurkeztuko du. Barre egiten onenak dira, nahiz eta horretarako berbarik ez erabili

IKER BARANDIAN > ELGETA  
Gaur, egubakoitz, olinpiadak egingo dituzte Elgetako Espaloia kafe antzokian. Halaxe era-baki du Madrilgo Yllana antzerki taldeak, han aurkeztuko du eta *Olimplaff* ikuskizuna. Yllanako ganberroek antzezlan hori asmatu zuten, Madril 2012 betetzen ez bazeen espainiarak konsolatzeko.

*Olimplaff* antzezlanean hiru atleta lehiatuko dira barre gehien eragiteko asmoz. Horretarako,

Yllanako ikuskizun guztieta moduan arau bat bete beharko dute: ezingo dute berbarik egin. Komunikatzeko onomatopeiak, keinuak, mimoa, musika, kolpeak, oihuak eta bestelakoak era-bili beharko dituzte.

FAMILIA GUZTIARENDAKO ESKETXAK  
Hainbat esketx egingo dituzte, guziak kirolarekin lotuta, baina oinarrian gizateriaren problematika landuko dute: harremanan, sexua, heriotza... Betiere,

umore gero eta beltzagoarekin kontatuta.

Ikuskizuna familia guztia rendako aproposa da, bai umeendako eta baita helduendako ere. Are gehiago, aktoreek har-tu-eman handia izango dute ikusleekin, haiak ere norgehiagokan esku har dezaten.

### IBILBIDE ARRAKASTATSUA

Yllana taldea ikuskizun barre-garriaren marka da. Orain arte arrakasta handia izan dute nazio-artearen beste hainbat ikuskizunekin: *Muu!*; *Glub, Glub; 666; Hipo; Rock & Clown; Spingo; Splash; Star Tripeta Los mejores Sketches de Monty Python*, bes-teak beste.

MUSIKA > ARRASATEARREK JAUZI NABARMENA EGIN DUTE 'BILUZTU' DISKOAREKIN

## Metal eta hardcore doinu gogorrak Anger eta Eraso taldeen eskutik 3.60 aretoan

IKER BARANDIARAN > ARRASATE  
Aspaldian Arrasateko 3.60 aretoan hainbat kontzertu entzutesu egiten dabilta. Orain arte, batez ere, Inglaterrako eta AEBetako punk eta Oi! taldeak eraman dituzte, baita Spainiaro Estatuaren izen handia hartu duten Baron Rojo eta haren antzeko taldeak ere.

Gaurko, egubakoitz, emanaldi gogorra antolatu dute, 23:00etan. Zarauzko Eraso eta Arrasateko Anger izango dira taula gainean. Erasok lotura handia dauka ibarrarekin, Sergio abeslari eta gitarrista jotzailea. Arrasaten bizi da-eta. Metak diskoe-txarekin kaleratutako Kontra diskoa aurkeztuko dute, orain

arteko laugarren. Anestesia taldeko Mikel Kazalisekin grabatu zuten, eta emaitza metal oso gogorra da, amorru handiz egindakoa.

Eurekin batera Anger taldea arituko da. Arrasatearrek *Biluztu* diskoarekin erraldoi batzen pareko jauzia egin dute, eta maila handiko metal eta hardcore abestiak idatzi. Sasoiaren daude biak.



### GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espaniako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide  
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

## Denbora gutxian kilo asko jaistea ez da gomendagarria

**M**arisabel, lagundu egin behar didazu, mese-dez, bi hilabetetan 14 kilo galdu ditut; lehen, kilo gehiagorekin ez nengo ondo, baina orain ere ez nago batera ondo. Argaldu ondoren zilborra pelbisaren parean geratu zait eta ipurdia, berriz, izterren parean. Azala edo ez dakit zer zintzilik geratu zait. Ariketak egin edo ebakuntza egitea komeni zaidan jakin nahiko nuke. Zeharo etsita nago; erantzun, mesedez (lotsa handia ematen dit zuk ni horrela ikus-teak).

Lehenengo eta behin, etsi-tzen, lotsa edukitzen eta negar egiten ez duzu ezer lortuko.

Ez zenitezke 14 kilo horren denbora laburrean galdu behar, hori eginda ondoren goa gertatzen da-eta: koipea, ura eta muskulua desagertu egiten dira; eta, hain justu, ura eta muskulua falta denean agertzen da zuk deskribatzen duzun flakotasuna.

Ez dakit zenbat urte dituzun, baina esango nuke 35-40 urte dituzula. Ondo diseinatutako ariketa programa bat ondo etorriko zaizu. Dena dela, ego-kiena ondorengoa egitea izango litzateke: fitness edo pilates programa bat koipea kentze-ko; horrela, muskulua gogortzen joango da eta azalera itsatsiko da. Zuri gertatu zaizuna hobeto ulertzeko, irudika ezazu ondo puztutako globo bat, ondoren aire paska bat kendu; gertatzen dena da globoa biguna gera-tzen dela, ez? Bueno, ba hori da, hain justu, zuri gertatu zai-zuna.

Soluzioa zein den? Lehenengo, zurekin egon nahi dut, bestela ezin dut jakin zehazki zer gertatu zaizun. Gero, hainbat aukera izango dituzu; auke-ra horien artean zuk aipatzeko duzun ebakuntza da garrantzitsuena. Abdominoplastia edo liposucciona ebakuntza batekin pozik gera zaitezen ondo-

rengoa ezaugarriak gertatu behar dira: flakotasun handia behar da eta ehnaren kalitatek ona izan behar du. Dena dela, hau guztia Maite Balda doktorea baloratu behar du. Maite gure-an egoten da hilean behin; dena dela, nahi baduzu Donostian ere badu kontsulta.

Emaitzak onak emango dizkizun tratamendu estetiko bat nahi baduzu, zurekin egotea beharrezko da. Niregana edo Balda doktorearenengana compromisorik gabe etor zaitezke. Pentsatzen dut orain argi daukazula ez duzula gizendu nahi, ez?

Etsita zaude, beraz; badakizu zer esaten duten: lotsarekin ez duzula ez jaten ezta gosaltzen ere. Badakizu, orduan, aurre egiozu arazoari eta konpontzen sariatu. Posible da nik zu ikusitakoan horren larria ez dela pentsatzea. Agian arazoaren dako konponbide ona eduki dezakete.

Titiak handitu egin nahi ditut, 95 neurria nahikoa izango da. Oraingo nire neurria ez da 80ra heltzen. Hainbat galdera ditut: ebakuntza mingarra da? Zenbat denbora beharko dut sendatzeko? Zenbat balio du? Zorrotzan lan egiten dut eta ez dakit zuen ordutegia zein den.

Ondo da, nik dakidanez ez da mingarra (ebakuntza osteo-denboraz ariko zara, ez?); bularretakoaren gainean ben-dabat jarriko dizute. Ariketa bortitzik ezin izango duzu egin denbora batean. Hematomak ez dira oso garrantzitsuak izango. Prezioa lehenengo konsultantjakinazik ditzu. Konsultalarra zatozenean nahi beste galdera egitea gomendatzen dizut; azken finean, oso gai pertsonala da.

Giartzu Estetika Zentroaren ordutegia ondorengoa da: aste-lehenetik ostiralerak 09:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.



**Maria Isabel Hurtado**

Dermatizista

e-maila: mi.hs@euskalnet.net

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Arrasate.** Etxea salgai Zerrajaran, 110 m<sup>2</sup>. Hego-mendebaldera begira. 618 62 79 89.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Fraikozurin. Bi logela, 87 m<sup>2</sup>. 699 43 49 52.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurre kalean. 80 metro koadro. Egongela, hiru logela, sukaldea, komuna eta ganbara ditu. 661 17 51 28.

**Bergara.** Ibargarai kalean. 86 metro koadro. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, ganbara eta garaje itxia. Gela guztia kanpora begira. 646 57 95.

**Bergara.** Ibargarai. Eraikin berria. 100 m<sup>2</sup>. Hiru logela. Bi komun. Erdi antzta. Trasteleku. Bi plazako garaje itxia. Telefonoa: 661 46 30 75.

**Bergara.** Koldo Eleizaldean duplexa salgai. Bi komun, hiru logela eta berogailua. Garajea aukera. Telefonoa: 943 76 27 68 edo 658 72 65 25.

**Bergara.** Matxategi kalean. 80 metro koadro. Hiru logela, bainugela, sukaldea, egongela eta balkoi. Igogailua eta berogailua ere baditu. 666 42 78 57.

**Etxeita.** 80 metro koadro eraibiltzeo. Sukaldea, bainugela, hiru logela, egongela eta ganbara. Konpontzeo dago. 943 76 80 72.

**Soraluze.** Etxebizitza salgai erdialdean. 84 m<sup>2</sup>, hiru logela eta bi bainu. Altzariekin. Arratsaldez deitu. 943 75 30 72.

**103. ERRENTAN EMAN**  
**Arrasate.** Erdialdean etxebizitza errentan ematen dut. 647 57 84 81.

**Arrasate.** Etxebizitza alokagai unibertsitatetik gertu. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egogela. 943 79 51 04.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan erdialdean. Altzariekin eta igogailuarekin. 943 79 60 88.

**Bergara.** Etxebizitza ematenda errentan. 943 76 44 34.

**Eskoriatza.** Logela alokatzen da, sukaldea erabiltzeko esku-

# IRAGARKI SAILKATUAK

943 25 05 01 edo sailkatuak@goiena.com

**ARRASATE**

Denda batek instalatzalea behar du etxetresna elektrikoak muntatzeko  
 943 77 00 34

**ARETXABAleta**

Ile apaindegi baterako esperientziadun ile apaintzailea behar da. Soldata 1.200 euro hilean.  
 635 70 66 02

**bidearekin.**

Unibertsitatearen ondoan dago. Telefonoa: 943 71 48 36.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartu nahi nuke erdialdean. 943 77 00 26.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Berogailuarekin eta altzariekin. Telefonoa: 650 96 23 08.

**Bergara.** Etxebizitza errentan erdialdean. Altzariekin eta igogailuarekin. 943 79 60 88.

**105. ETXEAK OSATU**  
**Arrasate.** Debagoieneko bines-

**BERGARA**

Dekoradore euskalduna behar da denden lan egiteko  
 943 76 70 58

**BERGARA**

Pertsona bat behar dugu Vodafoneko denden lan egiteko. Curriculuma denden utzi. Ibargarai 12 behea

**ANGIOZAR****BERGARA**

Martxan dagoen taberna errentan ematen da  
 943 76 54 75

**ARRASATE****ARRASATE**

Arrasateko plazan dagoen Zuk-Nahi taberna alokatzen da  
 618 76 34 40  
 605 76 08 29  
 943 71 48 36

**402. ESKAERAK**

**Arrasate.** Neska gazte bat pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Baita garbiketak egiteko. Telefonoa: 628 10 52 16.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Telefonoa: 676 18 60 82.

**4/ LANA****401. ESKAINTZAK**

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da. Aste batzen goiztiak eta besteak arratsaldetik lan egiteko litzateke. Telefonoa: 943 53 43 43.

**Bergara.** Neska euskalduna

*Pertsona oso berezia delako  
 Merezi duelako  
 Demostratu nahi diozulako  
 Horregatik guztiagatik  
 Mima ezazu...  
 ...mima zaitez*

tza... Eskamentuarekin. 697 80 64 03.

**Renault** Megane 1900 TDi autoa. 5 urte, 110 zaldi. 628 03 13 87.

**Neska** Ian egiteko gertu, garbiketa arloan, pertsona nagusiak zaintzen edo beste edozein motatako lanetan. Badu esperientzia. 659 35 09 30.

**Prestatzaile** fisiko gertu lasterketak prestatzeko edo osasuntsu egoten laguntzeko. Asier. 676 52 36 74.

**Zerbitzaria** gertu taberna edo jatetxeen lan egiteko, ordua. Esperientziaduna. 943 20 30 87 edo 652 77 88 10.

**403. BESTELAKOAK**

**Arrasate.** Lorezaina behar dut. Truken lur saila lagako nioko baratzapintzeko. 627 34 76 24.

**8/ DENETARIK****801. SALDU**

**Aluminiozko hagunak** salgai. 14 hazbete. 666 08 28 94.

**Besaulkiak.** Bi besaulki belarridun salgai. Egoera onean. 250 euro bakoitza. 675 70 16 07.

**806. GALDU**

**Bergara.** Urrezko belarritako borobilak galdu dut. Ertzaintza-renkuartela eta Mariaren Lagundia bitartean. 943 76 53 10.

**Erlajua** galdu dut Arrasaten, Portalo inguruan. 650 02 87 13.

**6/ MOTORRA****601. SALDU**

**Aretxabaleta.** Ingel esko-lak ematen ditut. 943 79 03 83.

**807. AURKITU**

**Txikilanda.** Galdu txikilarrak aterkiak batu dituzte. Arropak Txalipurdin daude, eta aterkiak Musakolako kiroldegian.

**808. BESTELAKOAK**

**Lekukoak.** Urtarriaren 28an kolpea eman zion norbaitek Citroen ZX zuri bati Arantzazuko apartakalekuau. Zerbait ikusi baduzu, deitu, mesedez. 656 00 85 10.



Bixente Ferrer 1  
 20500 ARRASATE  
 Tel.: 943 79 52 17

**Mima zaitez**  
 (aurpegia+gorputza) 60 €

**Relax paketea**  
 (bainuontzi+buztina+relax masajea) 60 €

**Laser eskaintza**  
 (izterrondoak+besapeak) 150 €

**Relax masajea**  
 (Jong Bao) 45 €



**Amaia Agirre eta Joseba Zubia** oñatiarrak, zapatu eguerdian ezkonduko dira Araotzeko parrokan. Bazkaria Zumaragako Etxeberri jatetxean ospatuko dute eta ezteibidaian Costa Rica joango dira. Zorionak, bikote, lagunen partetik.

ESKER ONA

## Valentin Letona Arejolaleiba

Martina Errastiren alarguna

Arrasaten hil zen 2006ko urtarrilaren 31n, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskoriatzan, 2006ko otsailaren 3an.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu,  
etor zaitez GOIENKARIaren ordezkaritzetako batera.

### GOIENKARIA

Astero 18.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 85 €.



## hildakoak

- Deunoro Oliden Larrañaga. Aretxabaletan, urtarrilaren 25ean. 72 urte.
- Pedro Altzelai Altzelai. Oñatin, urtarrilaren 26an. 66 urte.
- Dolores Egia Legorburu. Bergaran, urtarrilaren 27an. 84 urte.
- Bernardo Galeano Liberal. Antzuolan, urtarrilaren 27an. 60 urte.
- Agustina Bidegain Agirre. Aretxabaleta, urtarrilaren 27an. 79 urte.
- Tomás Iñurrieta Egidon. Arrasaten, urtarrilaren 28an. 73 urte.
- Eusebio Segurola Alberdi. Arrasaten, urtarrilaren 30ean. 60 urte.
- Pedro Ugartetxe Bañales. Arrasaten, urtarrilaren 30ean. 74 urte.
- Luisa Azkarai Karea. Arrasaten, urtarrilaren 31n. 75 urte.
- Luisa Leturia Belar. Oñatin, urtarrilaren 31n. 95 urte.
- Marcelino Arkaus Mugariaga. Oñatin, urtarrilaren 31n. 81 urte.
- María Trojaola Markaide. Aramaion, urtarrilaren 31n. 87 urte.
- Valentín Letona Arejolaleiba. Eskoriatzan, urtarrilaren 31n. 91 urte.
- Mertxe Agirre Aiastui. Arrasaten, urtarrilaren 31n. 80 urte.
- Cayo Gómez Robredo. Oñatin, otsailaren 1ean. 96 urte.

ESKER ONA

## Jacinta Atxotegi Askasibar

Angiozarren hil zen 2006ko urtarrilaren 17an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Angiozarren, 2006ko otsailaren 3an.

ESKER ONA

## Marcelino Arkaus Mugariaga

Donostian hil zen 2006ko urtarrilaren 31n, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko otsailaren 3an.

ESKER ONA

## Francisco Eraña Balanzategi

Bergaran hil zen 2006ko urtarrilaren 25an, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko otsailaren 3an.

URTEURRENA

## Jose Antonio Alvarez Etxeberria

"Joxan"

Lehen urteurreneko meza  
domekan, otsailaren 5ean,  
12:30ean, Arrasateko  
San Juan Batailatzailearen elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Pedro Mondragon Arruabarrena

Lehen urteurreneko meza  
domekan, otsailaren 5ean,  
11:00ean, Antzuolako Errukizko  
Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Otsailaren 6a: 074 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

# txokoa

## Sariak astero!

Astelehenean, otsailak 6, sari hauetik izen-abizenak izango dituzte.  
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleak.

### 073 zozketako saridunak


- "Istilu" etxearen kamisetak
- Miren Errasti Kortazar (Eskoriatza)
- Kepa Urteaga García (Antzuola)
- Amaia Zuazua Rodrigo (Arrasate)

- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko
- Imanol Galdos Igartua (Oñati)
  - Beñat Iñarra Lasa (Bergara)

### 074 zozketako sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA - GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko



- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremantean.

Harpidedun egiteko:



902 36 38 51  
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:

36 euro  
2006 bukaera arte

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

### Baldintzak

**bila bila****sudoku**


1		8		5		3
	4		3		7	
3		6		1		4
6		1		3		5
9		4		6		3
7		2		9		5
	2		1		4	
5		3		4		9

**hitz gezidunak**

Gaixoa	▼	Urez garbitu	▼	Aditu	▼
Nafarroako ibaia	►	*Argazkian	▼	Idazole	
Hazama, unide	►				
Bakarrik					
Gailur	▼	Bilera	►▼		
Hobeto		Edalontzia			
►				Onomatopeia	►
	▼			Arrantza-tresna	
Neu	►		▼	Lutezioaren sinboloa	►
Intsektu mota				Nondar atzizkia	
►					... fraganti, delitua egiten ari den unean
				Gisa, genero	►
				Dauka	▼
Erloju	►		▼		
Erregela, norma	►				▼
				Lasterka, korrika	►

**jeroglifikoa**

Eguraldi ona dagoenean hondartzara joaten zara?

**bono fotoa**Itzikerik erabili gabe XVI. mendean eraiki zuten garai hau bakarra da gaur egun Gipuzkoan eta bere ondoko baserriaren izena darama. **Ze herritan dago eta zein da bere izena?****Super BM**

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du GOIENKARIk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONO .....

Ekarri txartela MARTITZEN ARRATSALDEAN  
Goienako edozein egoitzara**Koipesol ekilore-olioa**

Litro bat

**1,19 €** 198 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEAK**

MADDI ALDAZABALEndako (Bergara) eta AGURTZANE DE BLASendako (Arrasate) izan dira 30 euroko erosketa-txartelak.

Berrigara-ko erantzuna: Itxumendi.  
Arrasate Press-eko erantzuna: Ulgor.**umore giroan**

Kike Amonarriz

**Oraindik horrela**

Emakumea Osakidetzen Anbulatorioko harrera leihatilera hurbildu da:

- Esango al didazu, mesedez, zer egin behar dudan haurrek pediatrara eramateko? — galdu dio harreragileari—.

- Zer urte dituzte haurrek?





- 4 eta 2.


- Eta ez al dituzu aurretik inoiz ekarri?

- Ez, ez naiz oso medikuza-lea,... Ez dut uste senarra duela sei urte hil zitzaidanetik anbulatorioan sartu naizenik.


- Hala! Senarra duela sei urte hil eta bi haur txiki dituzu?

- Aiz! Hildakoa senarra da... Ez ni!

**soluzioak**Gehienetan gehi enetan:  
jeroglifikoa:



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Saizar

Kale-Zahar auzoa 39 / USURBIL  
943 36 22 28

- Urte guztian irekita
- Txotx garaian sagardotegiko menua sagardotegian
- Jatetxean urte guztian kartara
- Igande gauean eta astelehenen eguerdian itxita
- Bertako janaria
- 500 lagunendako lekua eserita
- "Tolare" sagardotegia



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia / HERNANI  
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deitura
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
- Egubakoitzetan eta zapatueta egin osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- "Tolare" sagardotegia



## Iparragirre

Iparragirre baseria / HERNANI  
943 55 03 28 / 639 05 33 10

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gaez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- "Zabadiz" banataile ofiziala
- "Tolare" sagardotegia



## Iturrieta

Iturrieta baseria / Arraga auzoa  
ARAMAIO / 605 70 64 51

- Urte guztian zabalik ostegunetik igandera.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako janaria.
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik.



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA  
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



## Elutxeta

Elutxeta baseria / URNIETA  
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- "Tolare" sagardotegia



## Rezola

Ipintza baseria / ASTIGARRAGA  
943 55 66 37

- Urte osoan egunero eguerdian eta gauean zabalik
- Igande gauetan itxita
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- Berritua eta handiagoa
- Urte osoan txotxetik eta botilatik sagardoa
- "Tolare" sagardotegia



## Otatza

Otatza baseria / ZERAIN  
943 80 17 57

- Maiatz bukaerara arte zabalik
- Domeka gaua eta astelehena egin osoa itxita
- Bertako janaria
- Aste bukaera eta jai egunetan egin osoz zabalik
- 170 lagunendako lekua eserita
- Eguerdietan enkarguz zabalik talde handiendako
- "Tolare" sagardotegia



## Zabala

Garagartzia baseria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako III. Sagardo lehiaketako irabazlea 2004an
- Botilak salgai urte osoan
- "Tolare" sagardotegia

Ines Osinaga > Musikaria eta musika irakaslea

# "Ekon taldean ibili ostean gogoa nuen trikitixa jotzeko trikitilarri izan barik"

Ines Osinaga arrasatearrak ibil-bide luzea egin du 23 urtean. Oso gaztetxotan trikitixa taldea

sortu zuen Naiararekin. Horren ostean, biek Ekonen abestu zuten taldea desegin arte. Azken

urteotan, berriz, Isarevolution eta Gose taldeko abeslaria da. Trikitixa irakaslea ere bada Are-

txabaletako eskolan. Tapia ta Leturiaz gain, Garbage edo Chemical Brothers gustuko ditu.

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Gose taldearen gaitak albiste da aspaldian, baina Osinagak urte asko darama musika egiten eta gaur egun musikarekin jaiki eta musikarekin oheratzen da.

## Ines edo Isa?

Une honetan Ines. Isa (revolution) izan zen lehenengo taldea eman zidana aukera biluztu eta oihu egiteko, trikitixa barik eta folketik aldenduta. Orain neurri baten alde batera utzita daukat, baina hori seme nagusi guztiei gertatzen zaie bigarrena jaiotzen denean. Horregatik ez dut gutxiago maite.

## Txikitatik musikari izan gura zenuen?

Izan gura nuen albaitari, tore-atzaile, harakin..., baina musikari izatea betidanik izan da nire ametsa, nahiz eta jakin ez nintzela hortik bizi izango. Umetan ez nintzen panpinekin jolasten. Aitak oparitutako organo txiki bat ibiltzen nuen. Horren ostean, akordeoi txiki bat eta geroago bateria bat. Aitak betidanik jo du gitarra eta zeresan handia izan du. Horrez gain, Maixa Lizarrabarrek ere asko lagundu dit.

## Biokimika gustuko duzu edo hori ikasi duzu musikaz gain zerbait serioagoa egiteko?

Gustuko dut, baina ez da hain bokaziozko. Dena dela, badirudi bizi garen ibarrean industriarekin zerikusia ez daukanak ezin duela jaten eman. Nik jotzen dudan instrumentua ez dago araututa. 18 urterekin erabaki nuen beste zerbait ikastea.

## Zelan gogoratzen dituzu Ines eta Naiararen sasoia?

11 urterekin trikia, panderoa, porrusaldak... gustuko genituen, eta hori jotzen genuen. Txapelketa batzuk irabazi, soinu ekipoa erosia eta 13 urterekin maketa grabatu genuen... Oso harro nago egindakoarekin.

## Erromeriekin aspertzen hasi zineten?

Bai. Ordurako folkloreak eta erromeriek ez gintuzten betetzen. Erromeriak oso gogorrak dira, hiru ordu eta erdi jo behar duzu... Beste gauza batzuk entzuten genituen, eta beste gauza batzuk egin gura genituen.

## Zer gurago duzu, zure musika jende aurrean erakutsi edo etorkizuneko musikariak pres-tatu?



JOSETXO ARANTZABAL

## PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Biokimika eta Musika irakasle-ikasketak. **Zaletasunak:** musika, lo egitea eta ezer ez egitea. **Debagoineko txoko-rik politena:** oraindik ez dut aurkitu. **Zure burua teknosexualtzat daukazu?** Bai, guztiz (barreak).

**Diskriminatuta sentitu zara inoiz emakumea iza-teagatik?** Ez. **Urtaro bat:** Bosgarren bat, denetik daukana. **Zein filmeko protagonista izango zinateneke:** Matrix-eko Trinity edo La naranja mecanica-ko Alex.

Jotzea, duda barik. Hala ere, umeak, irakaskuntza eta trikia oso gustuko ditut. Irakasle bokazioa daukat. Umeekin asko ikasten da, euren mailan jarri eta berbetan. Aurten, Musika irakasle-ikasketak egiten hasi naiz.

## Zer eskatzen diozu irakasle on bati?

Berak ematea, gero eskatze-ko. Irakasle onak gai izan behar du ikasle ona ez denari erakus-teko, ikasle txarra motibatzeko.

## Zure ikasleak joaten dira zure kontzertuetara? Axola zaizu esaten dizutena?

Bai, batzuk joaten dira. Batzuei gustatzen ziae eta beste batzuei ez. Noski euren iritzia importa zaidala, nahiz eta kasurik ez egin.

## Trikia eta elektronika batze-ko asmoa zeukan aspalditik Iñaki Bengoak. Asko kostatu zitzzion zu konbentzitzea Gose egiteko?

Ez. Nik ere aspalditik neukan asmo hori. Piztu egin zitzagun ideia biok elkar ezagutu ondoren. Hala ere, orain dela hamar urte Naiarak eta biok erritmo kaxa erabiltzen genuen.

## Eta zerk erakartzen zintuen gehien, eskema apurketak?

Apurketak, eta baita ere gustatzen zaizkidan gauzak egiteak... Maurizia eta Tapia ta Leturia gustuko ditut, baina baita ere Garbage edo Chemical Brothers. Gainera, Ekonen ibili ostean gogoa nuen trikitia berreskura-tzeo beste modu baten. Ekonen sasoian sanplerrak eta sekuenzia-kiak ezagutu nituen, eta lehen-dik etxeen Q-base eta Midarekin ibiltzen nintzen. Horregatik era-baki nuen trikiarekin zerbait egi-tea, trikitilarri izan barik.

## Taula gainak engantxatu egiten du? Zer eskatzen diozu frontman edo frontwoman bat?

Bai, droga baten modukoa da. Urduritasun puntu bat sentitzen da. Ez dakizu zer den, baina ezin duzu hori barik bizi. *Frontman* edo *frontwoman*-ari eskatzen diot egiten duena sinisteko, bestela ikusleak ez duelako sinistuko. Zintzotasun apur bat behar da, nahiz eta antzerkia ere garran-tzitsua den. Beti kontzertu baten aurretek arropa aldatzen dut eta modu berezian margotzen naiz. Uste dut une berezia dela eta prestatu behar duyula.

**BLOGAK** > AZK-N LANEAN DIHARDUTEN 16 LAGUNEK IDATZIKO DUTE 'YELLOWING'-EN

# AZK: komunikazioaren esparrua lantzen duen enpresa beteranoa

1987an sortu zen AZK enpresak, *Yellowing* izeneko bloga kaleratu berri du.

Komunikazioko esparruen gainean iritzi-trukaketa eragitea da helburua

**EDU MENDIBIL** > BERGARA  
AZK Komunikazio Enpresak ibilbide luzea egin du dagoeneko. 1987 sortu zuten eta bi egoitza ditu gaur egun, bata Bilbon eta bestea Aretxabaletan, Basabe polo-gonoan. Juan Jose Brizuela gas-teitzaren zuzendaritzapean 16 lagunek dihardute AZK enpresan lanean. Komunikazioen arloan Debagoieneko zein Euskal Herri osoko enpresekin lan egin dute.

#### 'YELLOWING' BLOGA

Eguneroke lanean jorratzen dituzten esparruei buruzko hausnarketa egiteko asmoz, bloga kaleratu berri dute: [www.yellowing.net](http://www.yellowing.net).

Blogak zenbait atal finko dauzka: *branding* edo markaren



AZK iritzi trukaketa eragitea du helburu *Yellowing*-ekin.

GOIENKARIA

mundua, Internet, komunikabideak, marketina eta publizitatea. Iritzi-trukaketa eragitea da helburu nagusia. Juan Luis Azkaratek zera esan digu: "Goi mailako eztabaidari uko egin gabe, modu ulergarrian komunikazioaren gaineko eztabaida plazaratzea da asmoa. Gure ikuspe-

gia globala eta aldi berean lokala da. Bezeroekin zein komunikazioarekin interesa duten guztiek iritzi-trukaketa izatea da helburua". AZKren kolore korporatiboa horia denez, *Yellowing* izena aukeratu dute blogerako. Euskaraz eta gazteleraez idatziko dute bertan.

#### > TELEBISTA

**Vanessa Sanchez,**  
**'Teleberri'** albistegiko aurpegi berria

Vanessa Sanchez kazetari arrasatearrak ETB-2ko *Teleberri* aurkeztuko du otsailaren 13tik aurrera. Aitzol Zubizarretaren laguntza izango du gaueko albistegian. Azken bost urteotan ETBko Pari-seko berriemailea izan da Vanessa. Era berean, nazioarteko gerakizunak jarraitu ditu gertutik, Asian izan zen tsunami edo Txileko hauteskundeak esaterako.

#### > IRRATIA

**Info7 irratian goizeko magazina gidatuko du Martin Garitanok**

Info7 irratian goizeko magazina zuzenduko du Martin Garitano kazetari bergararrak. *Kale gorri* saioan gaurkotasun-albisteak jorratuko ditu Itziar Arteagarekin batera: Info 7 irratia ostiralean hasi zen emititzen, Internet bidez. Satelite bidezko konexioa heldu bitartean, honako helbidean entzun daiteke: <http://www.info7.com/index.php>

#### > MARKETINGA

**Garbigailu berrirako maskota lehiaketa deitu du MCCK**

Fagor enpresak Frantziako estatuan bere produktuak merkatatzeko Brandt marka erabiltzen du. Orain, garbigailu berri baten maskota aukeratzeko lehiaketa deitu du Interneten, bezero posiblentziaz zabalkundea lortzeko asmoz. 1.200 proposamen eta 300.00 boto jaso dituzte. Argibideak: <http://www.castingbrandt.com>

## teknologia berriak

#### > MULTINACIONAL BATEN ITZULERA

**Commodore marka historikoa indarberrituta itzuli da merkatura, 1995ean porrot egin ostean**

Commodore marka historikoa da informatikan. Amerikako Estatu Batuetan gazte askok marka horretako ordenagailuekin hasi ziren, eta Europan ZX Spectrum mikro-ordenagailuak sortu zuen antzeko iraultza eman zen AEBn.

Commodore multinacionala 1995 urtean porrot egin zuen PCren garaietara egokiutzeko gauza izan ez zelako. Orain indarberrituta itzuli da, hainbat produktu kaleratuz. <http://www.goiena.net/blogak/klikbikoitza/94>



MP3ak entzuteko eta bideoak ikusteko Commodore etxearen aparailu berria.

#### > ARGAZKILARITZA

**Satugo: argazki kamera bihurria kaleratu dute, botea egiten duen kamera da-eta**

Dena asmatuta dagoela esatea alferrikakoa da informatikaz ari garenean. Satugo, bote egiten duen argazki kamera kaleratu berri dute. Interesatzen bazaizue, kamera berriak 60 euro inguru balio du. Ez dakigu kamera erabiltzea zaila izango den, baina erabiltzaileak kontuz ibili beharko dira kamerak eskuetatik ihes egiten badie. Hori bai, argazki originaltasuna ziurtatuta dago Satugo kamerarekin.

<http://www.tecnogadgets.com>



Satugo, kamera berria eta originala. 60 euro inguru balio du.

#### > GOIENA.NET

**Blog komunitatea handituz doa: bi blog pertsonal berri kaleratu dituzte oraingo astean**

Laster urtebete beteko da Debagoieneko blog komunitatea (<http://www.goiena.net/blogak>) sortu zenetik. Goienako ekimenak erantzun bikaina izan du eta horren leku gure blogosferak izan duen hazkundearena. Dagoeneko blog pertsonalak 33 dira eta komertzialak, berriz, beste 30 bat.

Oraingo astean hiru blog pertsonal berri iritsi zaizkigu: Lander Juaristirena (*Zahar-berri*), Igor Ezpeletarena (*Capoeira*) eta Eneko Zuloagarena (*Blogligrafoa*). 23 milioi blogari dira munduan gaur.



*Zahar-berri* eta *Capoeira*, Lander Juaristi eta Igor Ezpeletaren blog pertsonal berriak.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko-blog-komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog-komertzialak)

- Zure negozioko eskaiztaren berri sarean
- Euskal merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Goiena.net**  
Debagoieneko ataria Interneten

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:  
[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak).  
[azabarte@goiena.com](mailto:azabarte@goiena.com).  
943 76 92 70

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)  
/4quattro4 /joseba /gallastegi /merkeopari /pando /elejalde  
/argi-plastik /BZ-sistemas /garaia /multiopticash /udalatx  
/aregi /dragon- /gutzizeder /ohiak /udalaitz  
/blogak/atai /oriental /irudisport /okipark /gorkataxi  
/azkarate /ezkutuorly /korozabala /vitoria /ehmff

Eta baita ere:  
[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)



**berriak**

> EKOIZPENA  
**Haurdun dauden emakumeentzat ikus-entzunezkoa**

Debagoieneko Mankomunitateak haurdun dauden emakumeentzat liburu bat eta ikus-entzunezkoa sortu gura ditu. Asmoa du haurdunaldiaren gaineko zenbait atal izango dituen liburua eta DVD kaleratzeko.

Grabazioak, muntaia eta diseinua Arteman Komunikazioak enpresak egingo ditu. Liburuan eta ikus-entzunezkoon azalduko dira haurdunaldiaren fase guztiak.

> RROGRAMAZIOA  
**Alberto Gorritiberea kazetariaren 'Debarri' saioa GOITBn**

Alberto Gorritiberea kazetari mutrikuarraren *Debarri* saioa datorren astean itzuliko da Goiena Telebistara. Otsailetik ekainera bitartean bederatzi saio egindo ditu, Debagoieneko herri guztietako alkatekin eta Mankomunitateko presidentearekin. Aurreko urteetako saioarekin alderatuz aldaketak izango ditu. Besteak beste, ekonomia arloko erreportaje bat izango du saioak.

> ARRASATE IRRATIA  
**Asteko ibilbideen laburpena, asteburuan**

Makina bat kilometro egiten ditu astean 107.7 FMko autobusak uhinetan barrena. 10:00etan abiatzen da egunero eta 12:00etan hartzen du atseden. Arratsaldeetan, eguneko ibilbidea jarraitzeko beste aukera bat ere baduzue.

Hala ere, astean gurekin bat egiteko modurik ez baduzue, asteburuan, astean izan dugunaren laburpena eskainiko dizuegu oraingo honetan ere.

> SARIAK  
**'Nasdrovia Txelov' antzezlanerako sarrerak**

Asterotzizitzen ditugu 107.7ko autobusean entzuleentzako gordetako sarrerak. Oraingo honetan, datorren otsailaren 12an Amaia antzokian Vaiven Producciones-ek taularatutu duen *Nasdrovia Txelov* antzezlanerako sarrerak eskaini nahi dizkizuegu.

Eta eskuratu nahi izanez gero, zatoz goizero Arrasate Irratian duzun *Igo Autobusa!* saiora. Parte hartzeko deitu, bada, 943 71 17 31 telefono zenbakira.

'DIDJERIDU' > EGUNA, 22:15

## Aloña Mendi taldeko masaje-emailea 'Didjeridu'-n izango da

Iñaki Ugarteri egin diote elkarrizketa oraingo astean *Didjeridu* saioko lagunek

**GORKA ETXABE > ARRASATE**

Aloña Mendi futbol taldeko jarraitzailerik sutsuena izateaz gainera, Iñaki Ugarte taldeko masaje-emailea ere bada. Oraingo astean *Didjeridu* saioko lagunek elkarrizketa egin diote eta egunean GOITBn ikusi eta entzungo duzue.

Aloñan nola hasi zen galdeztean zera erantzun zuen Iñaki Ugarte: "Oruetarengana joan nintzen eta esan nion nahi nuela Aloña Menden sartu. Hark esan zidan ea zer egin gura nuen eta nik esan nion masajista izan nahi nuela. Momentuz masajista izango naiz eta gerora, behar-



IÑAKI UGARTE gure lankideen galderai erantzuten.

GOIENKARIA

bada, entrenatzalea. Batek daki non bukatuko dudan". Zalantzak ez futbola biziki gustuko duen horietako da Ugarte: "Futbola baino gehiago, Aloña Mendi. Herriko taldeak gola sartzen

duenean hunkitu egiten naiz eta ezin izaten diot negarrari eutsi. Batez ere negar egiten dut taldeak irabazten duenean. Futbolean onena da lagunak egitea eta taldeak golak sartzea".

**EUSKAL HERRIKO ARATUSTEAK, SAIO BEREZIAN > ZAPATUA, 15:45**

## Ibarreko Aratustea girozko, Ituren, Zubietako eta Bera bisitatuko ditugu

**GORKA ETXABE > ARRASATE**

Berako Ttipi Ttapa telebistak eginiko ikus-entzunezkoarekin gozatzeko aukera izango dugu zapatu arratsaldean eta, aldi berean, gure herrietako Aratustea girozten joateko aukera eskainiko digu saio bereziak. Nafarroa

ohitura handiko Inauteriak ospatzeko dituzte eta Beran kaldereroak eta inudeak eta artzainak irteten dira kalera. Era berean, Zingar arraultze astelehena ere ospatzeko dute.

Ituren Aurtitz eta Zubietako ere bisitatuko ditugu Ttipi Ttapako

lankideen eskutik. Ituren eta Zubietako joaldunek bat egiten dute urtero, bi herrien arteko loturak sendotu eta Inauteriak ospatzeko. Garai batean, artaldean inguruan ibil zitezkeen otsoak, eta bidenabar, izpiritua gaiztoak uxatzeko helburua zuten joaldunek. Gaur egun, ordea, jendea uxatzeko baino gehiago, jendea erakartzeko balio dute, eta urtero Euskal Herri osoko jendea batzen da bertan. GOITBn zapatua arratsaldean izango duzue aukera ikusteko.

**telebegi**

Edorta Arana

### Bakarrizketa

**H**artu telebista ikusten ari diren ehun pertsona eta 54 bakarrik daude. Alboan besteren bat dutenak 34 dira eta 12 taldeko jardunean daudenak. Kopuru altuak ala baxuak diren zuk esan, baina garbi dagoena da telebistaren paperaz, kontsumo-orduez, etxeko ekipamendu teknologikoaz, aisiaaldiaren erabilera eta familien tamainaz asko esaten duela. Azken hauek, denek, sekulako eragina dute telebistaren aurrean ematen ditugun orduetan eta baita ere bakarreko lanean aritzen garen ala bikotea, laguna, seme-alabak ala gurasoak inguruan ote ditugun.

To beste datu pare bat: pentsa daitekeenaren kontra, umeak dira gutxiengotan direnak bakarrik eta aldiz erdira heltzen da 13-24 urte bitartekoena. 2005eko datuen arabera, gauerdia eta goiza dira telebista lagun bakar modura dugunaren ordu tarte ohikoena. Eta, azkenik, aste barruan gehiagotan egoten da pantailaren parean pertsona bakarra, asteburuetan baino. Eskerrak telebistan agertzen denak, gero, ematen digula zertaz berba egin jende artean gaudela.

**arrasate irratia**

FM 107,7

### Zapatua

10:00 Asteko Gainbegiratua. Henry Bazar, Aloña Mendi futbol taldeko jokalari boliviarrak; Iñigo Elkor, 18/98 auziaren epaiketaren gainean; Iratxe Aranburu, Arrasateko kirol teknikaria....

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera!

10:00-12:00 Igo autobusera! Albistegia Eguraldiaren iragarprena (Joxe Landa) Ibil Munduan geltokia Elkarrizketak Zozketak Zorion agurrrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra. 12:20 Izarreran ordua: abesti ezagunak 13:00 Euskadi Irratiko albistegia. 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.) 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra. 17:15 Zorion agurrren tarte (errep.)

## GOITBko programazioa

### Egubakoitzza, 3

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezbideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorratza. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klip@. 16:30 M1. 16:35 Gezbideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo: Arcelor. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:15 16 mm. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

### Zapatua, 4

07:55 Emisio hasiera 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Eltze beroa: Limoi tarta. 12:15 16 mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:45 Didjeridu. 14:15 Klip@. Musika taldeen bideoklipak. 14:45 Jazz mintegia. 15:15 MKT. 15:45 Bera, Ituren eta Zubietako ihauteria. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma. 19:15 Eltze beroa. Limoi tarta. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo: Arcelor. 20:30 Zera dio eta Motzean: Estitxu Fernandez. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berbaire: Mahai inguru. 22:15 Elkartsun bideak. 22:45 16 mm. Gorka Egiaren Hego haizea, ero haizea. 23:15 Erreportaje. 23:45 Emisio amaiera.

### Domeka, 5

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparorratza, Ganges ibairen inguruak bisitatzeko aukera. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze beroa. 12:45 Erreportaje. 13:15 Elkartsun bideak. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Bidetzurrek. 15:00 Ilunpean. 15:30 Behazulo. 16:00 MKT musika. 16:15 Iuskizuna. 16:45 Marrazki bizidunak. Bilduma. 18:45 Klipak. Musika bilduma. 19:15 Iparorratza. 19:45 Behazulo. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 Didjeridu. 21:30 16 mm. 22:00 Berbaire, Marijo Deogracias: aurkeztutako mahai inguru. 22:30 Didjeridu. 22:30 Teknopolis: erreportaje saioa. 23:00 Emisio Amaiera.

### Astelehena, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:30 M1. 14:35 Gezbideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduri bueltaka: Argentina. 15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tarte. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezbideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Didjeridu. 17:45 Berbaire. 18:15 Jaun ta jabe. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Albisteak. 23:15 Jazzikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

### Martitzena, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Gezbideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartsun bideak. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezbideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportaje: Legartzako urtegia. 18:15 Munduri bueltaka: Argentina. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 21:45 Berriak. 22:45 Albisteak. 23:15 Berriak. 00:15 Emisio Amaiera.

### Eguaztena, 8

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1. 14:35 Gezbideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezbideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportaje: Legartzako urtegia. 18:15 Munduri bueltaka: Argentina. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 21:45 Berriak. 22:45 Albisteak. 23:15 Erreportaje. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio Amaiera.

### Eguna, 9

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje. 14:15 Motzen. 14:30 M1. 14:35 Gezbideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezbideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 16mm. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartsun bideak. 18:15 Iparorratza: Danubio. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportaje: Sanxtxotena museoa. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Jaun ta Jabe. 21:45 Berriak. 22:15 Didjeridu. 22:45 Albisteak. 23:00 Berbaire. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

# Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

2005-2009rako HELBURUAK

• Euskararen erabilera sustatu eta indartu.

• Hizkuntza politika zehar-lerrotzat jo Eusko Jaurlaritzaren baitan.

• Arlo sozio-ekonomikoan eragin lan munduan euskara gehiago erabiltzeko.


• Euskara bera modernizatu eta normalizatu.

• Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriean euskararen erabilera areagotu.

• Helduen alfabetatze-euskalduntzea gaurko beharretara egokitu.

• EBPN garatu.

• Herritarren hizkuntza eskubideak jagon.



# Otsailak 3-10

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguedikoa 12:00ak baino lehenago  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Rock kontzertua



ARRASATE

### > BKBO, All Jazz Era eta Lukas Prest taldeak, MusikHerria proiektuaren esku

MusikHerria proiektuaren gaztetxeen biraren barruan, BKBO (Maule), All Jazz Era (Bilbo) eta Lukas Prest (Eskoriatza), argazkian, bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Musikarioi baliabideak errazteko proiektua da MusikHerria.

## Euskal musika tresnak



ESKORIATZA

### > Euskal Herriko musika tresna tradizionalak erakusketan ipini dituzte

Euskal Herriko musika tresnen erakusketa dago Ibarraundi museoan. Arrasateko Lorentzo Altubek Eskoriatza-k Udalari utzitako tresnak dira guztiak, hark urte askoan batutakoak. Hilaren 16ra arte egongo da erakusketa zabalik.

## Dantza emanaldia



BERGARA

### > Moises Azpiazu taldeko umeek dantza emanaldia egingo dute San Blas auzoan

Moises Azpiazu dantza taldeko 15 bat umek dantza erakustaldia egingo dute etzi, domeka, San Blas Txiki eguna. San Blas auzoan izango da, 11:30ean. Fandangoa, arin-arina, esku dantza eta beste batzuk egingo dituzte.

## Lehiaketak

DEBAGOIENA

### > III. Korrika-AEK beka deialdia zabaldu dute

Euskarazko arte eszenikoak bultzatzeko, euskal sortzaile berriei bidea zabaltzeko eta jendaurrean aurkez daitezkeen lanak sortzeko, III. Korrika-AEK beka deialdia egin du AEK-k. Taulara daitezkeen euskarazko lanak aurkez daitezke apirilaren 24aren eta 28aren bitartean. 29.000 euro emango dizkiote irabazleari lana ekoizteko, eta 3.000 euro gehienez Korrika Kulturaleko emanaldi bakoitzeko.

Argibideak: [www.aeknet.net](http://www.aeknet.net), AEK euskaltegietan edo AEK-k hiriburuetan dituen bulegoetan.

## Ikastaroak

ONATI

### > Dantza afrikarra ikasteko tailerra antolatu dute

Dantza afrikarrak ikasteko tailerra emango dute otsailaren 25ean eta 26an, asteburua, baina izenemate epea otsailaren 10ean, egubakoitza, bukatuko da. Horretarako, jo Gazte Informazio Bulegora 10:00-13:00 edo 17:00-20:00 ordutegian.

Otsailaren 10ean bukatzen da izenemate epea. Argibideak: [gip@oinatigazteleku.com](http://gip@oinatigazteleku.com), edo 943 71 82 57 telefonoan.

ARAMAIO

### > Etxetik eros ezazu delako Internet ikastaroa

Internetez erosketak zelan egin irakatsiko dute datorren asteluhenean, hilak 6.

Otsailak 6, asteluhena, KZgunean, 16:00-19:00. Argibideak: [tutor.aramaio@kzgunea.net](mailto:tutor.aramaio@kzgunea.net).

ARRASATE

## nire aukera



**Maider Osa**  
Kultura Teknikaria  
Bergara

## Plan gogokoena, mendira joatea

**A**rrasatearra jaiotzez, herri komunikabideetan kazetari eta telebista aurkezle lanak egin ondoren, Bergarako Udal Kultura Saileko teknikaria da Maider Osa 2003ko uztailaren 14az geroztik.

Bere lanarengatik, Deba-goieneko herri bakoitzean zein kultura eta aisialdi eskaintza dagoen ondo eza-gutzen du Maiderrek. Hala ere, hauxe diosku: "Asteburua iristen denean, astean egiten dugun lanarekin apurtzea gustatzen zait; kaletik irten eta mendira edo base-rrira joatea". Horixe da bere asteburuko aukerako plana.

**Neguan ere, mendira?**  
Bai; ondo jantzita joanez gero, neguak ez dit beldurrik ematen. Joan den domekan, Elorregiria joan eta buelta egin nuen trenbidetik.

**Debagoienean, non dago kultura eskaintza onena?**  
Arrasaten edo Oñatin. Hala ere, herri txikietan ere badago aukerarik.

**Ibarrean, areto gogokoena?**  
Elgetako Espaloia kafe antzokia. Lan polita egiten ari dira.

**Zein musikari ekarriko zenuke Bergarara?**  
Ainhoa Arteta.

**Zer dago asko Bergaran?**  
Musika zaleak. Abesbatza asko dago, Orfeoia, musika eskolan ikasle ugari...

**Eta zer falta zaio?**  
Erabilera askotako kultura azpiegitura bat.

**Beherapenetan ibili zara?**  
Oso gutxi; zerbait Donostian, Gasteizen eta Arrasaten.

# Zinema

### ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

**Los dos lados de la cama**  
Egubakoitz: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 20:00.  
Astelehenet: 20:30.

**Las crónicas de Narnia**  
Domeka: 17:00.

**El sabor de la sandía**  
Eguena: 20:30.

### ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

**Hirukiak**  
Domeka: 17:30.  
**La terminal**  
Eguaztena: 21:30.

### ESKORIATZA IBARRAUNDI

**Dragon Hill**  
Domeka: 17:00.

### OÑATI KULTURA ETXEA

**Flores rotas**  
Egubakoitz: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehenet: 19:30.

**Wallace y Gromit**  
Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.

**Paradise now**  
Eguena: 20:00.

### GASTEIZ GURIDI

**Memorias de una geisha**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Crash**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Secretos de familia**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Napola**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Esta abuela es un peligro 2**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Underworld evolution**  
17:30, 20:00, 22:30.

**En la cuerda floja**  
17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**  
Brokeback mountain  
17:00, 19:45, 22:30.

**La vida secreta de las palabras**  
17:00, 22:30.

**Iluminados por el fuego**  
19:45.

**Match point**  
17:00, 22:30.

**¿Cuánto me amas?**  
19:45.

**Secretos compartidos**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Una rosa de Francia**  
17:30, 20:00, 22:30.

### La terminal \*\*

AEB, 2004. Zuzendaria: Steven Spielberg. Aktoreak: Tom Hanks, Catherine Zeta-Jones, Stanley Tucci. 128 min. Drama. *Viktor Navorski* (Hanks) Europako ekialdeko biharia da AEBetara. New Yorkeko airoportuan dagoela, estatuko pelea egiten dute bere herriari, eta aireportuan harrapatuta geratzen da. Orduan, han bizi izaten hasten da.

### Crash \*\*

AEB-Alemania, 2004. Zuzendaria: Paul Haggis. Aktoreak: Sandra Bullock, Don Cheadle, Matt Dillon. 100 min. Drama. Hainbat arraza eta nazionalitatek ezezagunek elkarren berri izango dute eta elkarrekin topo egindo den halaberrez Los Angelesen. Euren arazoak eta drama pertsonalak azalera etorriko dira orduan.

### El jardinero fiel \*\*\*

Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Fernando Meirelles. Aktoreak: Ralph Fiennes, Rachel Weisz. 129 min. Thriller.

### EIBAR UNZAGA

**Underworld evolution**  
Egubakoitz: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehenet: 19:30, 22:15.

### RIALTO

**El imperio de los lobos**  
Egubakoitz: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehenet: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ GURIDI

**Memorias de una geisha**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Crash**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Secretos de familia**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Napola**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Esta abuela es un peligro 2**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Underworld evolution**  
17:30, 20:00, 22:30.

**En la cuerda floja**  
17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**  
Brokeback mountain  
17:00, 19:45, 22:30.

**La vida secreta de las palabras**  
17:00, 22:30.

**Iluminados por el fuego**  
19:45.

**Match point**  
17:00, 22:30.

**¿Cuánto me amas?**  
19:45.

**Secretos compartidos**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Una rosa de Francia**  
17:30, 20:00, 22:30.

### Escondido

17:30, 20:00, 22:30.  
**El jardinero fiel**  
17:30, 20:00, 22:30.

### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Underworld evolution**  
16:00, 18:00, 20:20, 22:30, 00:40.

### La semilla del mal

16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

### La joya de la familia

19:30, 22:00, 00:30.

### Esta abuela es un peligro 2

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

### Terror en la niebla

16:00, 18:00, 20:10, 22:20, 00:40.

### ¿Cuánto me amas?

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

### Alone in the dark

20:00, 22:00, 00:30.

### El tiovivo mágico

16:00, 18:00.

### Aeon flux

20:00, 22:00, 00:30.

### Doce fuera de casa

16:00, 18:00.

### Los dos lados de la cama

22:00, 00:30.

### King Kong

16:00.

### Las crónicas de Narnia

16:00, 19:00.

### Gauerdiako saioak, egubakoitz eta zapatuak.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Underworld evolution**  
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

### En la cuerda floja

12:15, 16:40, 19:20, 22:00, 00:40.

### Bambi 2

12:15, 16:15, 18:00, 19:45.

### Secretos compartidos

12:15, 16:50, 18:40, 20:30, 22:00, 00:10.

### Una rosa de Francia

12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

### Brokeback mountain

12:15, 16:30, 19:15, 22:00, 00:35.

### Munich

Egubakoitz eta zapatuak:  
17:30, 21:30, 00:45.

### Secretos compartidos

12:15, 16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:45.

### En la cuerda floja

12:10, 16:30, 19:30, 22:10, 01:00.

### Esta abuela es un peligro 2

12:00, 16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 01:00.

### Munich

12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:05.

### Secretos de familia

20:10, 22:30, 01:00.

### Brokeback mountain

12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

### Memorias de una geisha

12:00, 16:25, 19:20, 22:15, 01:00.

### Crash

20:00, 22:20, 00:45.

## &lt;h3

# Titia ematen ari diren amendako erremedioa

Mari Carmen Maiztegik argizarizko kapelatxoak egiten ditu; titi buruetako zauriak sendatzeko emakume askok erabiltzen dute 'osatitis'-a

**EDU MENDIBIL > OÑATI**  
Titia ematen ari diren emakume askok Oñatin sortutako produkta erabiltzen dute. *Osatitis* izeneko erremedioak arrakasta nabarmena izan du azken urteotan ama izan diren emakumeen artean. Goiko Benta baserriko Mari Carmen Maiztegi dugu produktuaren egilea: "Lau seme-alaba dauzkat, eta lehenbiziko alabarekin gaizki ibili nintzen. Titi buruak zaurituta izaten nituen, minduta, eta ezin nion titirik eman alabari. Amak ikusi ninduean, argizariarekin osatuko zitzaidala esan zidan, eta hala geratu zen. Argizari zati eder bat ekarri zidan, urtu ondoren molde batzuk egin genituen eta liso. Bularra eman bitartean titi

buruetan jartzear, alde ona! Hurrengo hiru seme-alabekin ez nuen *osatitis* beharrik izan".

#### PATENTE A LORTZERA, MADRILERA

Lagunen eta ezagunen artean berehala zabaldu zen erremedio: "Bixenta Igartuak kapelatxoak *milagrosuak* zirela esan zidan. Zenbait medikurengana jo ondoren, *osatitis*-a probatzeko esan nion. Ez zeukan konfiantza handirik, baina *osatitis*-arekin minak eta zauriak joan zitzakion eta afari eder batera gorbidiatu ninduen. Ondoren, pediatrarengana jo zuen Bixentak, eta ideia ona iruditu zitzaison hari. Patentatzeko esan zidan, baina hemen trabak besterik ez nuen aurkitu. Madrilen egin behar



OSATITIS erremedioak titi asko sendatu ditu. Mari Carmen Maiztegik egiten ditu kapelatxoak, argizaria erabilita. EDU MENDIBIL

izan nuen *papeleo* guztia, 1978. deak erabilita. Gipuzkoako farmazia gehienetan eros daitezke, 4,20 euroren truke. Azkenaldian horrelako beste kapelatxoak ere agertu dira, beste izen batekin. Hala ere, Mari Carmenek esan

diguez, berak erabiltzen duen argizaria berezia da, eta sekretua gorde egin nahi du: "Lagun batek ekartzen dit eta izugarri ona da, titiak hezetasun puntu batekin mantentzeko egokia".

#### ahorero

"Harrobiaren aldeko apustu garbia egin dugu. Oinarrizko futbolarekin ahalegin berezia egin behar da"

Jose Mari Bakero > Realeko kirol zuzendaria

Harrobiaren aldeko apustua egin (halabeharrez) eta hilabete batean lau atzerritar fitxatzea ez da oso koherentea. Baino, dena beharko dute txuri-urdinek gora egiteko.

#### iturri onetik

#### 'GH'-ko Saray eta Jesus bere mutil-laguna Bergaran izan dira astean

Gran Hermano saioko Saray eta bere Jesus Tomellosokoa Bergaran izan dira egunotan. Bergararrak erakutsi dio bere bihotzeko azukre koskorriari herria, aurkeztu dizkio familia eta lagunak... Ikusi zaie maiteminduta, eskutik helduta, musuka, keinuka..., eta ibili dira dendetan, tabernatan, herriko txoko ederrenetik paseatzen. Oporraldi txoa gurean igarota, telebistara itzuli dira.

#### piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

#### Familiaz harro

Zorteko garenok, familiaren babesean jaiotzen gara eta hazten, gure kabuz ibiltzeko gai izan arte. Eta, truke zentzuzkoan, familiak eskatzen digu une bakoitzeko kide ahulenaz arduratzea. Bi zutabe horiek ditu, niretzat, familiareniko harremanak: babes eta ardura. Hortik gorakoa, oparitzat hartzen dut.

Eta aste honetan, opari bikoitza egin dit familiak. Imanol anaia Estatu Batuetara joan da, Nevadako unibertsitatean euskal liburutegiaz arduratzeko. Lehia latzean irabazi du lanpostua eta anaiaz harro nago. Eta atzo bertan, Gurutze/Fatimetu arrebari eman diote 'Euskal Kooperanteari' saria, lehendakaritzan, Saharen alde eman/eman duena aitortuz. Noski, arrebaz ere harro nago.

Hori bai, beste laurak eta ama ez dauzkat saltzeko.

#### aiene!



#### Ardi latxa, munduaren konkistan

Ardi latxaren berri ematen dute blog honetan, ingelessez. Tolosaldeko elkartearren ikurra ezaguna egiten ari da han eta hemen.

<http://tinyurl.com/c8eqb>



**TOYOTA**

Orain  
Bergaran.



**EuskoAuto**

Olabarrena z/g BERGARA

943 76 23 85

BERGARA

EUSKOAUTO

ELORREGI